

limosn
Kan
baldin
nik ga
erruki

BIZKAIKO BERTSOGINTZA



Bizk
Anbo
gizon
baserr
baitan.

Gerra aurreko emoitza

Goizian sartzen ziran
tabernako atian
ez eben alde egiten
bihamon artian.

Arbola bat zan Bizkaian bere
neure anaia laztanak
zeinen azpian pozez beterik
egoten ziran asabak.

Kerizpe zabal hartan jarririk
eginda euren batzarrak
buztarri baya nasai ta libre
bizi ziran Bizkaitarrak.

Xabier Amuriza

Neskatilea zaila
nire andra Jazinta
agertuten zan beti
ederto jantzita.

Garritik eukazala
beherantza jausita
larrosa koloreko
lau sedazko zinta.

Seigarren nobioa
Eustakio Eulea
prakazahar inuzente
koitodu pobrea.

Hik bere bahenduen
ezkondu gurea
baina eragin heunstan
erretiradea.

Komedi tokia da
gure okoilua
behiak adarrak dantzan
da hik akuilua.

Bi alditan hor habil
mutil kankailua
esnez bete ezinik
heure katilua.

BIZKAIKO BERTSOGINTZA III

GERRAURREKO EMOITZA

Xabier Amuriza

KOPLAK ETA BERTSOAK

Gerra aurreko aroa, berez, *Bizkaiko Bertsogintza I Izengabeak eta Bizkaiko Bertsogintza II Izendunak* liburuetan sartuta geunkan, bai lehenengoko anonimoen, bai bigarreneko izendunen sailetan. Oraingoan, ostera, aldizkari eta egunkariak gehiago induskatzeko aukera izan dogunez, aro horri jagokozen material barriak agertu dira, bila joan garelako, bestalde, susmatzen baikenduen gauza interesgarri mordoa geratu zeitekeela, aurreko liburuetan sartu bakoa. Aproba egin dogu eta, zorionez, halantxe gertatu da, batez be, aurreko liburuetan aztertzeko modurik izan ez genduen *Euzkadi* egunkaria ikuskatzeko lan luzearen ondoren. Kopla eta bertso anonimo ugariz gainera, izen batzuen (Eustakio Eulea, Bonifazio Latxa, Kirikiño, Antonio Goitia...) sorta barri ezin interesgarriagoak aurkitu doguz eta, honelako liburuak edonoiz egiten ez direnez gero, (bilduma honetako bosgarrena egiterako, batzuk, beharbada, liburu ahaztuetan baka-rrik existituko gara), material hori guztia oraintxe sartzea pentsatu dogu, liburu aparteko batean, III. liburuaren gehigarritzat sartzeko, atal handiegia eritzirik. Orduan aurkitu ez genduzen izen barriak be agertu dira, bi, behin-

tzat: Juan Egileor lekeitiarra, XIX. mendekoa, eta Esteban Uriarte bermeotarra, XX. mendearen lehenengo erdikoa.

Sail handi bat koplarietak hartzen dau, Bizkaian hain maitea eta, zorionez, ugari jasoa izan den bertsogintza xarmagarri horrek. Beste sail bat bertso anonimoek hartzen dabe, non ikusten den bertsogintzak Bizkaian be, bere urrian, emoitza duinak eta uste baino gehiago emon zituela. *Euzkadi* egunkariak, zorionez, sail bat zeukan, *Euzko-Folklore*, *Dantza-Abesti Zaharrak* eta horrelako izenekin izentatzen zena, herrietan ezagutzen ziren koplak edo bertsoak bialdu zeieezen; eta bai irakurleek bialdu be, gehiengan, ezizen baten azpian. Aldizkarietan be baziren horrelako atalak, eta euri eskerrak ezagutu geinke gaur hain material ugaria eta estimatua.

Azkenik, bigarren liburuan zetozen izen eta ezizen batzuen sorta barriak be emongo doguz, iturri zabalagoen hustuketan agertu direnak. Aldizkarietan be, norbere bertsoak edo herrian jasotakoak agertzeko joera handia izan da beti eta, horri eskerrak, Bizkaian be, bertsolaritzak bere korpua osatu dau, ez koplarietak beste baina.

KOPLARITZA IZENBAKOA

ONEN MIKOLAS KORONILLO

1. Mikolas Koronillo
2. Koronillo Mikolas
3. Koronillo Mikolas
4. Koronillo Mikolas
5. Koronillo Mikolas
6. Koronillo Mikolas
7. Koronillo Mikolas
8. Koronillo Mikolas
9. Koronillo Mikolas
10. Koronillo Mikolas
11. Koronillo Mikolas
12. Koronillo Mikolas
13. Koronillo Mikolas
14. Koronillo Mikolas
15. Koronillo Mikolas
16. Koronillo Mikolas
17. Koronillo Mikolas
18. Koronillo Mikolas
19. Koronillo Mikolas
20. Koronillo Mikolas

1914
1915
1916
1917
1918
1919
1920
1921
1922
1923
1924
1925
1926
1927
1928
1929
1930
1931
1932
1933
1934
1935
1936
1937
1938
1939
1940
1941
1942
1943
1944
1945
1946
1947
1948
1949
1950
1951
1952
1953
1954
1955
1956
1957
1958
1959
1960
1961
1962
1963
1964
1965
1966
1967
1968
1969
1970
1971
1972
1973
1974
1975
1976
1977
1978
1979
1980
1981
1982
1983
1984
1985
1986
1987
1988
1989
1990
1991
1992
1993
1994
1995
1996
1997
1998
1999
2000
2001
2002
2003
2004
2005
2006
2007
2008
2009
2010
2011
2012
2013
2014
2015
2016
2017
2018
2019
2020
2021
2022
2023
2024
2025
2026
2027
2028
2029
2030
2031
2032
2033
2034
2035
2036
2037
2038
2039
2040
2041
2042
2043
2044
2045
2046
2047
2048
2049
2050

Hasi gaitezen sailik ugariena den koplaritzatik, eskaintzen dogun materia-
lari buruzko ohar garrantzitsu bat eginez. *Bizkaiko Bertsogintza I*
Izengabeak liburuan, batez be, eta baita *Bizkaiko Bertsogintza I Izendunak*
izenekoaren gehigarrian, milaka jasoak izan ziren, iturri ezbardinetan ager-
tutako errepikatuak bertsino bakarrean itzirik. Hemengo iturrietan be,
aurreko liburuetan argitaratutako kopla asko agertzen ziren. Bidezko
zenez, barriak jaso doguz. Baleiteke batzuk errepikaturik agertzea, baina
behinena zen diferentea izan zeitekeen ezein ale ez kanpoan iztea.

DON MIKOLAS KORONELO

(Ekin, 1934, 101. zk., 4. or.)

Don Mikolas koronelo
Konpesero Mari Andres
Alarguna-dontzeilia
Kantaremos alegria
Bost etxe ta sei ate
Zazpi etxe ta subete
Agillando, agillando
Zu Matxin Arrando
Aingeruak gara
Zerutik gatoz
Por una limosnita
Por amor de Dios
Si, si, si, no, no, no
Otzara bete solomo.



Koronelo: koronero, koroï-koronatik
harako hitza.

Subete: suete, sute, sukalde.

Agillando: aginaldoa, saria.

Arrando: izen berezia.

AGILANDO ERRESILANDO

(Zeruko Argia, 1973-08-05, 545. zk.)

Agilando erresilando
aqui se vive un caballero
Dris drask gartaitras
Mataremos gallinas dose compañía
por la Birjina Maria
Agilando todo montaña
Zazpi nogain da zortzi gaztaina
haren gainean lau sagarrik daukat
altzoa zabal-zabal.



Erresilando: hitz moldatua, *errezu*-tik etor daitekeena.

Gartaitras: hitz moldatua, *gorta*, *atrás* edo horrelakoetatik.

Nogain: *nogal* hitza moldaturik, seguruenik. Aldaerarik gehienetan intxaur-gaztainak batera.

Doaz: *bost intxaur da sei gaztaina; zazpi intxaur da zortzi gaztaina.*

GURE ORTUAN

(Zeruko Argia, 1973-08-05, 545. zk.)

- | | |
|---|---|
| 01. Gure ortuan sagarra loran
Donianeko heldurik
haren azpian uso bi dantzan
ederrik eta galantik. | 03. Soineko eder bat eingo neuskio
urrez ta barraz beterik
“Eskerrik asko, galant-galanta,
ez dot neu gona biharrik. |
| 02. Eskribau zaharrak hiru alaba
hirurak sedaz jantzirik
hiruretatik ederrenari
banentso palabraturik. | 04. Zazpi arkako utxea daukat
neuk estrenatu bagarik
zortzigarrena gorderik daukat
urrez ta barraz beterik”. |



01. **Donianeko:** Donianerako, Done Joanerako, San Joanerako.
 02. **Banentso:** baneuntso, baneutso. *Banengoko, banengokio.*
 03. **Neuskio:** nioke.
 04. **Utxea:** hau, seguruenik, *kutxea* izango da, izan leiteke gaztelaniazko *hucha*-tik be baina.

Deigarria da lauко sortatxo honetako koplek errimakera bera daroela. Euskarazko erromantzeek-eta IK-RIK errima hau oso maitea dabe eta badirudi, errima aberastasunaren ardura handirik ezaz harago, kontakizunari jasotasun eta batasun efektua ezartzeko erabiltzen ebela; era intuitibon, jakina, honelako koplek egileak apenas izango ziren errimari buruzko gogoeta handirik eginak eta.

AURTENGO GAZTAINIA

(Euzkadi, 1932, 6086. zk., 5. or.)

01. Aurtengo gaztainia
 lelia, lelia da
 Markinako mutilak
 txotxoluak dira.
 02. Markinako mutilak
 zer dabe merezi?
 Errekan jabonduta
 lixiban egosi.
 03. Lixiban egosi ta
 lixiban egosi
 harritxu baten jota
 sasian eskegi.



01. **Lelia:** *lelo-leloa* femeninoan. Tentela, ergela.
 02. **Jabondu:** xabondu, xaboia eman.
 03. **Lixiba:** lisiba. Arropak garbitzeko likidoa. Garbiketa bera.

FORUAN BATUTA

(Euzkadi, 1932, 6185. zk., 6. or. Bialtzailea: *Txindor-kumia*.)

- | | |
|---|---|
| 01. Oraingo neskati
dote arrigua
burduntzalitxu zahar bat
hiru zulokua | 06. Ezkonduten bazara
Lumo aldekuakin
ibili biharkozu
pitxer murkuakin. |
| 02. Mendata baino gorau
mendi-etxe baten
hamalau neskati
morokila jaten. | 07. Hango pitxer murkoko
esnien gozua
harek engainetan jok
Gernika osua. |
| 03. Maritxu Torrekuak
dirautso amari:
“Txomintxu auzokua
gustetan jat niri”. | 08. Oizen kanpaia da ta
Oizera nua ni
nogaz ibili nazan
ez esan amari. |
| 04. Ama, buruen min dot
ez esan aitari
gaubeko errondiak
ondo galdu nau ni. | 09. Busturiko miruek
pikue zorrotza
arin susmau daroa
usoen hainkotsa. |
| 05. Narbarnizen ei dago
morokila merke
txakur txiki bataitik
galdara bat bete. | 10. Painelo zuri-gorri
erretratuzkuak
Juanpetxuk andreari
erregalatuak. |



- | | |
|--|---|
| 01. Arrigua: arreo, ezkontzako dotean
hartzen diren ondasunak. | 09. Susmau daroa: susmatu ohi dau.
<i>Eroan</i> honek, beste aditz bati aginduz,
maiztasuna esan gura dau. |
| 03. Dirautso: dinotso, diotso, esaten dio. | Hainkotsa: hanka hotsa. |
| 05. Bataitik: bategaitik. | |
| 06. Pitxer murko: pitxer morkoa, pitxer
mota zakar samar bat, buztinezkoa. | |

EZKONTZEN ZARIELA

(Euzkadi, 1932, 6126. zk, 6. or. Bialtzailea: *Miren Agurne.*)

- | | |
|--|--|
| <p>01. Ezkontzen zariela
aukozu famia
aspaldian daukozu
holako gania.</p> <p>02. Tiriki tauki-tauki
mailuaren hotsa
noz ezkonduko ete da
gure neska motza?</p> <p>03. Eder dagozarian
alkarri begire
dinue baltzeranok
jaio ez bagine!</p> | <p>04. Logura naz ta lo eingo neuke
argi-oilarrak jo dabe
argi-oilarrak jo ezketiok
ogera juan leiteke.</p> <p>05. Aitita ta amama
basora juan dira
aizkoria galduta
hasarratu dira.
Amamak aititari
belarritik tira
alkarrenak dira ta
konponduko dira.</p> |
|--|--|



- | | |
|---|---|
| <p>01. Gania: gogoia, gaztelaniazko <i>gana</i>-tik.</p> <p>02. Motza: gehienetan, esangura peiorati-
boa (laburra, kamutsa, itsusia)
daukan adjektibo honek, batzuetan,
esangura xerakorra, maitakorra
dauka, hemen legez.</p> | <p>03. Dinue: dinoe, diote.</p> <p>04. Ezketiok: ezketino, ezkerok.</p> |
|---|---|

Bosgarren ahapaldian, kopla bi bat eginda datoz, bialtzailearen edo egun-
kariaren errakuntzaz. *Alkarrenak dira ta konponduko dira:* bigarren libu-
ruan emon genduen Pantxillonon *Bizkaiko bazter baten* izeneko bertso
sorta be horrelaxe amaitzen da, honek kopla zaharretatik harturik, edo alde-
rantziz, seguruenik.

03. Hiru pezeta dira
hirutxu bat lauko
ameak alabea
salduteko dauko.
04. Saski handia eta
ugazaba solo
Kriskitinen arrigua
gertaturik dago.
05. Iñaki motrokilo
dendari karua
kapela zabalian
zinta moradua.
06. Katalin tirrin-tarran
Katalin arina.
Zenbaten saltzen dozu
dozena sardina?
07. Neu bere jostuna naz
zeu bere harotza
nik zeugaz ezkondu nahi
ta zu barriz lotsa.
08. Anton Urruti dozu
lora ta pitxia
Maripa Barrentzekok
gurezta itxia.
09. Painelo erretorta
zinta moradua
Antonek Maripari
erregalatua.
10. Ama neuriak dino:
“Adela, Adela!
Datorren hilian ni
ezkontzen nazela”.
11. Nire nobiuaren
izenak dezente
Antonio, Jeronimo
Paskual, Bizente.



01. **Oka-Pagoeta:** Okapagoeta, Muxikako toki izena.
Dauz: dagoz, daude.
02. **Posture eingo neuskio:** apustu egingo nioke.
Txakil-Errota: Txakilerrota, etxe izena.
03. **Ameak:** amak.
05. **Motrokilo:** *motrailu* edo *motroilolitik* moldaturiko hitza, kankailua edo baldar samarra esanguran.
08. **Barrentzeko:** Barrenetseko, Barrenetxekeo.
Gurezta itxia: gura ez eta itzia, sobran utzia.
09. **Erretorta:** gaztelaniazko *retorta*-tik. Oihal mota bat.

Muxikarra izango zela pentsatu behar den *Muxikako* honek ez eban askorik pentsatuko, ordutik ia mende batera, zelako gozamina emongo euskun jasotzeko azarkera izan eban kopla-sorta honek. Oka Muxikako auzo bat da, Zugaztietatik Ariatzara bitartean. Hango orduko izenak ete dira hemen agiri direnak? Badira beste *Oka* batzuk be Bizkaiko toponimian, Berrizen, esaterako.

ETORRI PORAKELLO

(Euzkadi, 1932, 6207. zk., 8. or. Bialtzailea: *Larragane*, Kortezubitik.)

- | | |
|---|--|
| 01. Etorri porakello
ardura bagarik
hiru alaba daukoz
ezkondu gurarik. | 05. Ai zer mutiltxu ona
Martintxu guria
prakatxu zaharrak eta
bera deungia. |
| 02. Laugarrena semia
prakatxu zaharrakin
konejue dirudi
bere bixerrekin. | 06. Ha mutilaren palu
polainia falta
amak topau dautso, ba
arratoiak janda. |
| 03. Taluak erreteko
ona da paria
Manuel auzokoak
alaba paria. | 07. Ez dakit nik zer egin
neure buruagaz
Martola ta semia
tximinotan duaz. |
| 04. Iketza egosteko
ona da larrina
Manuel emoidazu
alaba lorrina. | |



03. **Paria, paria:** lehenengoa *parea, para-pala*-tik. *Talo-para* = talo-burdina. Bigarrena, *parea, bi, pare*-tik.
04. **Larrin:** larrain, lan batzuk egiteko zelai zatia.
Lorrin: eguraldiari buruz, euri-aroa, baina gehiegi be ez. Lardaska. Pertsoneri aplikaturik, ganora gitxikoa, nahasia.
05. **Deunga:** dongea, gaiztoa.
07. **Tximinotan:** tximinoini edo txipiroi bila.

Sorta hau dantza gangarrerako ezin alazoago etorriko zen, hain dira koplak burlosoak eta satirikoak eta. *Tximinotan joatea* ligatzera joatea be izan daiteke.

ATSUA ZALAKUAN

(Euzkadi, 1932, 6207. zk., 8. or. Bidaltzailea: *L'tar K.*)

- | | |
|--|--|
| 01. Atsua zalakuan
astuan hankia.
Geldi, geldi, Maritxu!
Eingogu bakia. | 03. Neuk ikusi nituan
San Juan gabian
Txomin eta Bartolo
tabernako atian. |
| 02. Igetargiak argi
Igeko kalian
esaidazu, Maria
nun bizi zarian. | 04. Hormia zalakuan
batak bestiari
txiza egiten eutsen
praketan alkarri. |



01. **Eingogu:** egingo dogu.
02. **Igetargi:** irargia, ilargia.
Ige: Ea, Bizkaiko kosta-herria.

Atsua zalakuan... hormia zalakuan... Hamaika errakuntza gertatzen zen orduan be, hainbeste gaupasa egin barik. Txiza alkarri praketan egiteak aktualitate handian jarraitzen dauela dirudi.

ESKU BATIAN

(**Euzkadi**, 1923, 3193. zk., 2. or. Bialtzailea: *Belu-Mendu*. Zazpi Santa Ageda kopletarik, hiru jaso doguz.)

01. Esku batian urdai trontzoia
bestian lukainka paria
harek guztiei gitxi eretxita
altzoan dozena arrautzia.
02. Etxe honetako ugazabak
ederrak dituz alabak
goizean goizetik jagi biharko deu
harek guztiak dituzanak.
03. (*Ezer emoten ez daben etxean*)
Etxe honek dituz ate bi
batak bestia dirudi.
Etxe honetako nagosi jaunak
astokirten bat dirudi.



01. **Trontzoi**: trontzoa, zati handi samarra.

ZE ORDU DE?

(**Euzkadi**, 1927, 4553. zk., 4. or. Bialtzailea: *Matxalen*, Busturitik. “*Hemen holan esaten gendun geure txiki denporan, bat erdijen imintxe ta bestiek kordan, berari bueltak emonaz; gaur, tamalez, holakorik ez da entzuten*”.)

Ze ordu de?
Batak
Ze ordu de?
Bijek.
Ze ordu de?
Hirurek

(“Eta honan jarrai ordu guztijena esaten, hamabijak arte”)

Ze ordu de?
Hamabijek.
Nire lapikotxue egosi de?
Bai, ta txakurtxuek jan be.
Nire talotxue erre da?
Bai, ta katutxuek jan be.
Nun da katutxue?
Eskilaretatik jausi ta hil.
Nun dauz eskilarak?
Suak erre.
Nun da sue?
Urek amata
Nun da ure?
Kortako idi gorriek edan.
Nun da kortako idi gorrie?
Diruetan saldu.
Nun dauz diruek?
Kartetan galdu.
Nun dauz kartak?
Hormako zuluena usteldu.



Ze ordu de: zer ordu da.

Dauz: dagoz.

Amata: amatau, amatatu, itzungi, itzali.

AHOTXUA LO TA LO

(Euzkadi, 1927, 4569. zk., 4. or. Bialtzailea: *Artibai*.)

01. Ahotxua lo ta lo
zuk orain eta nik gero.
Biok batera lo egiteko
etxian inor ez dago.

02. Lua, lua, lo lua
triste da neure gogua.
Kanpuan da ta etorriko da
larrosa maiatzekua
Um...um...

03. Goizian goizik jagi nintzan
biregarrua goizago.
Biregarruan kanta soinuaz
nik ezin neban egin lo
Um... um...

04. Josebatxuri dirudiena
Atxurin dago usua.
Atxuritikan Begoñaraino
Hega eginda dijua.
Lo... lo...

(“Josebatxuri ipintzen dot, gogoraturik hemengo euskaltzale batek daukan semetxu eder bategaz, benetan polita dalako” –dino bialtzaileak). Lehenengo koplako “ahotxua” hori, seguruenik, “hautxoa”-ren errakuntza edo deformazioa da.



03. **Biregarro:** birigarroa, biligarroa.

AINGERU GUARDAKUA

(Euzkadi, 1927, 4569. zk., 4. or. Bialtzailea: *Artibai*.)

01. Aingeru Guardakua
lotara nua, lotatik nator.
Topa nituan hiru aingeru
bat burutik, bi oinetatik
Ama Santisima
nun dozu semia?
Hor goian
ultzez da arantzaz josirik.
Hau egunian hiru bider
esaten dauenak
ez dau izango
inpernuan parterik
ezpada zeruan.

Ama Santa Ines
bart ein dot ames.
Ona bada, bion partez
txarra bada, dule bere bidez.



Ultze: untze, iltze.

Ezpada zeruan: zeruan baino, zeruan baizik.

Dule: doala, bihoa.

KUKUAN PRAKAK

(Euzkadi, 1927, 4576. zk., 4. or. Bialtzailea: Txori-Erreka, Ondarroatik.)

01. Kukuan prakak eta
erreginan gonia
Santo Tomas eguneko
jabonaduria.
02. Upin-upin de la bandera
ahuntzak igon dau laba ganera
laba ganetik Txantxalanera
Txantxalanetik etxera
ogian pixka bat hartzera.
03. Gabon gabonzeta
errosa kisketa.
Drau drau drau!
Sardiña Makallau!
04. Aitite Morokillo
Pipe-hartzailia.
Pipiak erre deutso
bere sur luzia.
05. Pipiak erre deutso
bere sur puntia
nahiago erre baleutso
enparau guztia.
06. Aitita ta amuma
biak egurretan
aizkoria galduta
biak errietan.
07. Hemen dator ontzia
hiru palokua
bera bisitatzera
karabinerua.
08. Itsasoko aldetik
dauko bentania
handixik botaten dautso
maitiari sokia.
09. Ai, ai, ai!
Mutila txapela gorria
Ai, ai, ai!
Neskia painelo zuria.
10. Teresa, Teresa
esnia edatera
Santa Krutz mendiko
zelaira.
11. Amona gonagorri
aitona kaskazuri
gure soluan zein dabil
aza-buruak ostutzen?
Ala kixkillera
Ala samurrera (*hemen, izena
esaten da*)
bira beste aldera.

12. Andra-Yoseya tronpeta
erreberentzia lurrera
jarri belauniko
adorau Jesukristo.
Gure baratzan zer dago?
Aza-buruak loratzen
aitatxo ta amatxo
Urra, urra, pitxitxo.
13. Txardan txardan
txulien txulien
mekeke mekeke
hartu daijala pelotia.
(“Bat ixentatzen da”)
14. Sirriketa marraketa
kitarria
botikaiuan alabia.
15. Zirkula maskulu
eragiten
zure lepua
para-egiten.
16. Aitite dala tutulu-mendi
amuma dala masusta
aita jua da Bitoriara
ama manduan hartuta.
17. Lua lua, Santa Lua
zeru altuko Jaungoikua
eragiozu umetxu honi
ordu bi edo hiruko lua.
18. Lo-lotxu engainadore
traidore paltsua.
Zetan engainau dozu
gure umetxua?
19. Aitita moduando
Zinko konpainia.
Hemen gatoz lau lagun
emon eiguzu limosnia.
Eup!
20. Txantxala piko-monte
txantxala pikote
basamosala kristiana egoten.
21. Erromillote, erromillote
txakurrak buztana jan diote.
Atia jo ta aurrera
Erroken semia jaio da.
22. Bela bela bela
mundu guztitik
kana bat ostu dabe
Lion Pepenetik.
Ez dabe ostu baina
gorderik dago
Marie mutrikuarra
begira dago.
Ortuan perejila
saleruan gatza
atera platerera
jan daigun lebatza.
23. Pio Piolin
Matio Txanbolin.
Arrainak harrapau dauz
Txabik korainakin.
24. Jose Jose kitarra
Antzubiako bizarra.
Botako neuke, botako neuke
hemendik haraino uzkarra.

25. Antonio Goitiko
bibolinterue
poltsan diru gutxi baina
bai enbusterue.
27. Antoniok koplak esan
dirua poltsara
hamaika zoro gangar
batzen da plazara.
28. Pinto ta Kinto
biak txiza-erreka bana egin
eta biak ito.
29. Tropa ta tropa
tropa-matrallo
hilten danian
kanposantura.
30. En-da bat, bi, hiru...
En-da bat, bi, hiru...
Enda bat. (*soka-jolas abestia*)
31. Txarra bat daukot
loraz beterik
Ama Birjina Loretakuantzat.
(*Soka abestia*)
32. Goiak panpoxak eta
behiak baldrasak
Amoton ikusi nitun
Lakako neskatxak.
33. Hiru ta hiru sei
hiru bederatzi.
Hobe geunke neskazahar
horreik baino
ardaua merke balebil.
34. Altza binbolin eta
urra binbolina!
Andra buru-arinak
edan txakolina.
35. O, mutil gazte, begi-gorri!
Nun hartu dozu arrain hori?
Sasiolako arrocketan
arratsaldeko ordu bietan.



02. **Txantxalanera:** Txatxalaren etxera.
Ogian pixka bat: ogiaren, ogi pixka
bat.
05. **Enparau:** enpaidu, gainerako. *Beste
enparauak:* beste guztiak.
23. **Koraina:** kodaina, sega.
30. **Enda:** eta.
31. **Txarra:** pitxerra.
32. **Amoto:** Amoroto, Bizkaiko herria.
Laka: etxe edo auzo izena.

Sorta honetan, neurri eta genero ezbardinetako aleak datoz: koplak, kantak, errezitapenak, jolasak... Ondarroako *Txori-Errekak* ondo egin eban, danak batera, erreskan bialtzeaz, bereizka bialtzea pentsatu baleu, beharbada, erdiak bertan geldituko ziren eta. Edo ez, hurrengo sorta be berak bialdu eban eta.

GABON GABIAN

(**Euzkadi**, 1927, 4584. zk., 4. or. Bialtzailea: *Txori-Erreka*, Ondarroatik.)

- | | |
|--|---|
| 01. Gabon gabian
bakardadian
Piotxu idoro neban
ipurdi agirian. | 05. San Migel, San Migel
eutsi neure bustia
Ekatzu zeure sikua. |
| 02. Austin Peruk ohian kaka
amak emon zipli zapla. | 06. Irrite landaria
zer dozu negarrez?
Orinala hausita
ipurdiko minez.
Inazio Polonio
pasa por aquí
ipurdi txiki. |
| 03. Gure Martzelinatxu
jaio zan urtian
herriko asto guztiak
hasarratu zirian. | 07. Inazio Polonio
Pasa por aquí
errotako txakurrak
dantzan daki. |
| 04. Txin txin gora
sua goitik behera.
Abadia kanpuan
umia zuluan
aita negarrez
ama dolorez. | |
05. **Eutsi**: hartu eizu, tori.
Ekatzu: ekarzu, ekar ezazu.
06. **Irrite**: irritu? Halan balitz, hasarreko-
rra, zirina.



MENDI HANDI BAT

(Euzkadi, 1931, 5784. zk., 5. or. Bialtzailea: *Eiztari*.)

- | | |
|---|---|
| 01. Mendi handi bat dago
bioren erdian
ez dula alkar ikusten
nahi dogun guztian. | 06. Neronek ikusia
nere begiakin
asto bat lapikuan
belarri biakin. |
| 02. Zu ikusi bagarik
daukodan eguna
pentsetot gaba dala.
Haren da iluna! | 07. Auzoko mutil horrek
atzo ta harainegun
iturriko landara
egiteko lagun. |
| 03. Atzian lainua ta
mendian edurra
gaztiak bizkarrian
bihar dau egurra. | 08. Ez nintzan juan eta
ez dot gura bere
kokotxu horren gura
ez naz ni neu bere. |
| 04. Oraingo mutiltxuak
barrabanak dira
euren berba guztiak
guzurrak ei dira. | 09. Baltzerana nazala
zeuk esan ei dozu
ez naz zuri ederra
egia esan dozu. |
| 05. Etxe txiki bat dago
hatxaren ganian
neu be hangoxia naz
bai zorionian. | |



- | | |
|---|---|
| 01. Ez dula: ez dogula. | 07. Harainegun: herenegun. |
| 02. Bagarik: barik, bage, gabe. | Egiteko lagun: lagun egiteko,
laguntzeko. |
| Pentsetot: pentsetan dot, pentsatzen dot. | 08. Bere: be, ere. |
| 04. Barraban: barrabasa, deabrua, gaiztoa. | Koko: ar, zomorro. Pertsonetan, ezku-
tua, ostekoa, geldoa. |

AZA BERTDIE

(Jon Lopategi bertsolariagandik jasotako koplak)

- | | |
|---|---|
| 01. Aza berdie eta
kafie ganien
Elgetako kalien
San Roke gabien. | 04. Txikitxu polit, nungoa zara?
– Jauna, ni Markinakoa.
– Lau ziri baino nahiago neuke
bazina neure herrikoa. |
| 02. Kurutze santuaren
seinaliagaitik
eraioak hanka horri
Jaungoikuagaitik. | 05. Kandela horren erluze
geuganaino dator luze.
Goiko leihoak ondo itxita
beheko atera erduze. |
| 03. Santakruz Bizkargiko
ginerra lorie
munduko babak baino
askotaz hobie. | |



- | | |
|---|---|
| 03. Ginerra lorie... hobie: idiak
aprobatzera, gauetz, isilean, Bizkargi
mendira joaten ei zen, han, sastrakei
lotu eta tiraka, indartzeko. Hortik,
ginarra lorea babazko pentsua baino
hobea izatea. | 04. Lau ziri: lauzirikoa, lauzurikoa.
Antzinako diru bat.
05. Erluze: ...? Ez dakit zer izan leitekeen.
Erduze: zatoze, etor zaitetze. |
|---|---|

AUZOKOAK GAREZ

(Algortako Bertsolari Eskolak *Santa Ageda 2004* izenez atara eban orri batetik, aurreko libu-
rutan jasota daukaguzenen ezbardinak diren lau koplak dakarguz hona.)

- | | |
|---|---|
| 01. Auzokoak gazez, asauko ez gazez
bakigu hemengo barrie
zelan zezina bere in dozun ta
txarrie bere handie. | 02. Etxe honetako andrea
hamar gonaren jaubea
hamarretarik hiru jantzita
dirudi erreginea. |
|---|---|

03. Etxe honetako andrea
hamar gonaren jaubea
beste zazpirak jantzi ezker
ate beteko andrea.

04. Bartzelonako astilleruen
barko barria dau eitxen
etxe honetako mutil gaztea
haraxe doa kapitxen.



01. **Garez:** gara.
Asauko: asagoko, urrungo.
In: egin.

04. **Dau eitxen:** dago egiten.
Kapitxen: kapitain.

NABARNIZ ETA ZAMUDIO

(Jon Aurre irakasle, bertsozale eta, sasoi batean, behintzat, bertsolari ibiltzen zenak, eta aurreko liburu bietan be kolaboratzaile oparoa izan genduenak, eskuratutako kopia zerrenda da hau, Nabarniz eta Zamudion jaso ei zituenetatik. Hemen barriak edo ezbardinak begitandu jakuzenak hartzen doguz.

Eskekoak, Zamudio:

01. Mendirik mendi joanta dago
uren eskinen Plentzie.
Beatxu ederra, nok euki leiken
zeugazko komenentzie!

03. Etxe honetako jostuntxo hori
dago josteko hari barik.
Orain geu bere holantxe gabiz
mozkortako diru barik.

02. Hortxe goien dago saratsa
gure samaren garatxa.
Edango geunke pitxartxu bete
ardau zurie nahi baltza.



01. **Beatxu:** *Bea* izen berezia, diminutiboan.

03. **Mozkortako:** mozkortzeko.

Eskekoak, Nabarniz:

01. Etxe buruen pinue
Antonek ein dau kinue
berak esan dau emongo daula
ardauterako dirue.

02. Etxe azpian madari
adarrak ditu hamabi
etxe hontako neska gaztiek
merkatariak ugari.

03. Joxe tronkolo monkolo
hik ez dok asko emongo
hik emondako limosnarekin
ez gaituk gu mozkortuko.



02. **Merkatari:** eroslea, hartuko leukeena.

Erromeriakoak, Nabarniz:

01. Matxalen Busturiko
kalien gora
sostorra sartu jako
ipurditik gora.

02. Zegaitik juan zinan
ipurdi zabalik?
Ez neuelako jakin
sostorrik euenik.

03. Etxera etorrita
bat, bi, hiru ta lau
kalera joan eta
mozkorra harrapau.

04. Zapata txirki txarko
sonbrero kastorra
Sobara-Goikon dago
mutila bizkorra.

01. **Sostor:** abar zatia, zotz zakarra. Oztopoa.

02. **Euenik:** zegoenik.

Donine Monine

Donine Monine bezpera gabien
abadiak hasarratu zirien
eta besterik ez eben egiten
alkarrerri musturrek hausitzen.



Donine: Doniene, San Joan.

Ipuin berezi

Ipuin, ipuin berezi
ahuntzen korotzak egosi.
Ni hortik eta hemendik nabilen artien
Mirenek danak iruntsi.

ETXE HONETAKO

(Mikel Zarate Iker Mintegia. Labayru Ikastegia. *Santa Ageda koplak Sopelana-Urduliz inguruan*. Separata. Eusko Ikaskuntza. Sociedad de Estudios Vascos. Aurreko liburuetatik, barriak eta ezbardinak hartuta.)

- | | |
|--|---|
| 01. Etxe honetako etxeko andrea
andre ona ta noblea
eguno bere ez deu bialdu
limosna barik pobrea. | 03. Krabelinaren orriarekin
larrosa maiatzekoa
hementxe nago zure begire
Maritxu bihotzekoa. |
| 02. Udabarrien urtetan deude
erreka munan bitxiak
haretzek baino politau dire
Maritxu, zure begiek. | 04. Kanta, kanta, mutilak
bapere bildur bagarik
etxe honetan ez da izango
karidadean faltarik. |

05. Aurten hil bazu txarririk
ez eizu esan guzurrik
pixka ta pixka ibili barik
ekarri eizu osorik.



01. **Egundo bere:** egundo be, inoiz be.
02. **Urtetan deude:** urteten dabe, irteten
dira.
Muna: lurrazalaren behera- edo gora-
gunea, hegal erripena egiten dauena.

05. **Hil bazu:** hil badozu.
Bitxiak: bitxilorak. Gauza politak.

ANTONIO SALAUE

(Alfonso Irigoienen funtsean agertutako papera.)

- | | |
|---|--|
| 01. Antonio salaue
bibolinterue
San Koliparkoetan
Artiara due. | 05. Antonio Goitia
bibolinterue
sekule andreakin
lo egin bakue. |
| 02. Antoniok egin dau
biherra majua
Bermion itxi ditu
bost ume ta atsua. | 06. Neskatile gona zuri
eizu dantzan geldi-geldi.
Antonio buruarinek
ez zaitu holan ipini. |
| 03. Horrako neska horrek
uzkerra bota dau
Antonio barrabanak
behinguan susmau dau. | 07. Orain korrure sartu dan
amantal berdedun hori
korrutik urten orduko
enbarkauko da berori. |
| 04. Beste neskati horrek
dauko engainue
uzkerra botateko
katigu kainue. | 08. San Koliparko gloriosue
eizu miserikordije
biboline be busti jat eta
altzaizu eguraldije. |



- 01. **Salau:** saladu, graziosoa, atsegina.
- 03. **Barraban:** okerra, bihurria.
 Behinguan: berehala.
- 04. **Katigu:** lotuta, trabatuta.
- 08. **Altzaizu eguraldije:** jaso, ondu ezazu eguraldia.

Antonio Goitia hau *Antonio Gregorio Goitia eta Azketa* dogu, Mundakan 1830. urteko abenduaren 24an jaio eta, nagusitan, Bermeoko Erriberan harotz bizi izan zena, erromerian ez zebilenean. Heriotza datarik ez dogu aurkitu. Bizkaiko kopletan sarri agertzen den izena da, *bibolintero* moduan, koplek dinoenez. Erromeriagile popularra izan behar eban, Bermeotik Zornotza ingururainoko guztian ibiltzen zena, eta berau izango da, koplaritza anonimoan, ezagutza izenduna daukagun pertsonaia bakarra. Barri gehiago, *Bizkaiko Bertsogintza I Izengabeak* liburuko 96-98 orrialdeetan.

Errose Bustinza “Mañariko”

Mañariko ezizenez edo *Mañariko Errose* izenez idazten eban emakume hau Rosa Bustinza zen, Mañarian 1899an jaio eta 1953an hila, beste mañariar ospetsu baten, Ebaristo Bustinza Lasuen “Kirikiño”-ren iloba. Elhuyar Hiztegi Entzilopedikoak dino: “*Euskal Herriko ipuinak batu, jantzi, idatzi eta argitaratu egin zituen. Irudimen aberatsa zuen; baserrietan zehar, hamaika ipuin zahar jaso eta berpiztu zituen, euskal kulturarako eta etnologia aldetik, balio handiko lanak burutuz. Olerki eta kantu-letrak ere egin zituen; euskara erraz eta herrikoian sorturiko lanak hainbat euskal aldizkaritan barreiatu daude. Euskal Herriko Ipuinak izenburupean argitaratu dira bere ipuin eta alegiak*”.

Emakume honek bialdutako sortak jasotzeagaitik bakarrik merezi eban *Euzkadi* egunkaria begiratzea, hain kolaboratzaile ugaria eta sen handikoa izan zen eta. Mañaria lako herri txiki batean, hainbeste koplak eta kanta batzea harrigarria da, beste herri batzuetan jasoak be Mañarikotzat bialtzen ez bazituen. Ze, Mañarian bakarrik hainbeste egotera, zer izango zen, sasoi haretan, herri guztietan halako batzaile bat izan balitz? Egia da ale asko eta asko inguru zabaleko eta euskalki osoko komunak zirena, baina, herri bakotxean, beti izaten dira bertako bereziak edo bertan bakarrik gogoratzen direnak. Errosek batu zituenetan, aurretik ezagun genduzen asko agiri dira, jakina, eta horreek ez doguz hemen emongo, baina, halan be, ikaragarria da urten dauen saila.

SANTA AGEDA BEZPERA

(**Euzkadi**, 1932, 6086. zk., 5. or. 18 koplak jasotzen ditu, esanez: “*Mañariko herritxuan entzun legetxe*”.)

- | | |
|--|---|
| 01. Santa Ageda bihar dalako
hemen gabiltzaz kantetan
pobretxu, umil eta egoki
hementxe gatoz atetan. | 04. Eskupeko ona hartuta
orain baguaz etxera.
Santa dontsuak eruango dau
hilten danian zerura. |
| 02. Elexondoko ate ganian
txoriak dabilz kantari.
Etxe hontako nagusi jauna
herriarentzat pozkarri. | 05. Arpegi eder, zuri-gorrian
begi ilunak agiri
etxe hontako neska ederrak
urre bitxia dirudi. |
| 03. Abade jaunaren bihotza
samurra eta biguna.
Santa Agedan alabantzaz
emon begisku limosna. | 06. Hemen gagozan mutil gaztiak
zeuri dautsugu kantatu
zeure ezpanen barre gozua
ez egiguzu paltatu. |

07. Baso zelaitik gorantza
mendian zihar larrosa.
Etxe hontako andra zintzuak
urregorritzko ardatza.
08. Urregorritzko ardatza eta
diamantezko gorua
atorra finak ondo eiteko
honek badauko modua.
09. Etxe hontako nagusi jauna
zaldiz da elexaratzen
zaldiz da elexaratzen eta
zidarrez ofrendaratzen.
Handik etxera datorrenian
urrezko silan jesartzen.
10. Giltz handiak jaso-jaso
Kaxarainoko bidian.
kaxaraino juan da hutsik etorri
ez da berorren andrea
ez da berorren andrea eta
ez geuretzako be hobea.



01. **Kantetan:** kantatzen.
Atetan: atartea, ataria.
03. **Begisku:** beigu, biezagu.
04. **Dontsu:** dohatsua, zeruan dagoena.
09. **Elexa:** eliza.

MUTILTXU TXANBELINAK

(**Euzkadi**, 1932, 6181. zk., 7. or. “*Bertzto oneik geure erritxuko atso brizkailarijeri entzuni-kuak dira*”.)

01. Mutiltxu txanbelinak
bentaja bi ditu
plazan eder ta galant
etxian irritu.
02. Eperrak kantetan deu
goizian-goizian
ez asko piatzeko
mutilen hitzian.
03. Piatzen bazerade
mutilen hizketan
eroriko zerate
harri labanetan.
04. Gaztia nintzalako
zorua ni izan
zeugaz ezkonduko
konpormau ein nintzan.

05. Ez igarri beneutsu
zetako zenbiltzan
baina igarri ez ta
oin nola gabiltzan!
06. Harotzak egiten jok
egurraz zozpala
haregaz egosten jok
lapikotxu ederra.
07. Barrenkalian dago
amilu-jentia
ezkonduko litzakez
balebe bentia.
08. Badabe bentia ta
nun dabe dotia?
Santi Kurutz larran dao
lorian otia.
09. Txikitxua ta polita
Txorruetako Pantziske
alargunaz ezkontzia
asko sentiduko neuke.
10. Txikitxua zara baina
besuan zaitut haziko
mundu guztiagaitik be
ez nauskizula itxiko.
11. Gaztia nintzarian
oin hamar urtetan
baneban ezkongea
bai barrabanetan!
12. Ezkondu eta gero
hurrengo goizian
belarriondokuak
ezkaratz zaharrian.
13. Gaztia nintzan orduan
haiziak nituzan buruan
orain akordatutzen naz
protxu ez dan orduan.
14. Gaztia nintzarian
nire kontentua
atian ikustia
tanbolinterua.
15. Lau lau lau
andriak galdu nau
lau bost sei
dantzan ikasi lei.
15. Ai ene, oi ene!
Kortara jausi naz ta
txarriak jan nabe.
16. Hementxe naukazue
kantetan penetan
eskerrik asko bere
ez daust inork esan.



01. **Irritu:** larritu / Haserretu.
 03. **Laban:** labain, irristakor.
 06. **Zozpal:** ezpala.
 07. **Amilu:** liho mota arrunt bat.
 08. **Larra:** larre, zelai.
 10. **Ez nauskizula itxiko:** ez nizukeela utziko.
 11. **Oin:** orain.
Barraban: deabru. *Barrabanetan:* deabruetan, demonioetan.
13. **Protxu:** probetxu.
 14. **Lei:** leiteke.
 15. **Korta:** gorta, ukuilu.
 16. **Kantetan penetan:** kantatzen penetan.

ANDRA GALANTEN ETXIAN

(Euzkadi, 1932, 6192. zk., 8. or.)

01. Andra galaten etxian
 haizia presko goizian
 atia drinbili-dranba
 inor ez dago etxian.
02. Karmen eguna dala
 zeuk bere badakizu
 buruko painelua
 dotore daukozu.
03. Ez dakit dantzan baina
 banabil erdian
 tuertua alkate
 itsuen herrian.
04. Honek bai dantzariak
 dantzan egiteko
 begira dagonari
 barre eragiteko.
05. Txakurzulon larrapost
 Mañarian jausi
 mamina mailatuta
 hazurrik ez hausi.
06. Anton errementarik
 buruan kalbua
 urria dalakuan
 plomua darua.
07. Ez naz ederra baina
 bai eder zalia
 ez dauket ezer, baina
 bai esperantzia.
08. Esperantziak dino
 badago legerik
 ez hartu agurarik
 badago gazterik.

09. Izango bada bere
prakakin bakarrik
zaldun gazte polit bat
behar dodala nik.



05. **Larrapost:** laban egin, laprast, irrist.

ZAPATARI APRENDIZ BAT

(**Euzkadi**, 1932, 6167. zk., 5. or. Bialtzailea: *Mañariko*. Baita **Euzkerea**, 1935, 8. zk. Bertsinorik luzeena (16 ahapaldi, puntu bikoak) Alfonso Irigoien funtsean zegoen paper bat da, dinona: “*Honeek be Ramona Madariagak, 88 urte ondo betedunak eta Baldatikako (Forua) alabak abestu dauz, eta aintxina-aintxinakuak dirala diraut*”. Makinaz idatzitako paperaren azkenean, “*geyago etzan gogoratzen*” dino. Horrek esan gura dau Ramona batzuren batzuk gogora ekarri ezinik ibili zela eta, beraz, bertso gehiago zirela. Hiru bertsinoekin osatu dot hemengoa. Ahapaldi bi erdizka gelditzen dira eta bederatzigarrena be jatorrian ez zen horrela izango, seguruenik. Hiru bertsinoek puntu biko ahapaldietan idazten dabe, Bizkaian hatara ohituago zegozelako, baina argi dago, denei osoan begiratuta, zortziko txikiko sorta dela.)

01. Zapatari aprendiz bat
dago Bitorijen
barriak egin leikez
haren historijen.
Neskatxak kortejetan
beti iturrijen
zazpi nobije dituz
hile bi ta erdijen.

02. Neskatxa bat egoan
ostatu krijeda
ekarten eutsen hainbat
okela gijerra.
Bigarrenak trabenatik
beterik pitxerra
hirugarrenak txanpona
kentzeko bixerra.

03. Nobijerik onena
Antonia Perez
zer ein ez dakiena
alperren alperrez.
Bigarren nobijie
Agustina Bandres
gorputz polita baina
arpegia baldres.
04. Hirugarren nobijie
Doña Mari Andres
lastimez botaten deu
begi bata trabes.
05. Laugarren nobijie
da Doña Irrita
lastimaz deko ezpana
oker ebagita.
Bosgarren nobijie
Doña Margarita
motza izan ez balitz
neskatxa polita.
06. Beste bi bere txito
gorule maratzak
hari eginen puruz
tximurturik hatzak.
Etxe onekuak eta
txito aberatsak
ez baleuko gustorik
Erriojako mahatsak.
07. Bata da Petronila
bestia Maria
ogetik jagiteko
mokorren nagia.
Txokolate pinari
begia argia
atorratxu zaharra baina
minian barria.
08. Juntau die neskatxok
iluntze batien
eta ikusi dabe
nobijoa atien.
Juntie egin dabe
guztijen artien
lepoa berotzeko
Anjikori kalien.
09. Neskatxekin mutila
berbetan jarri de
kontua egon ez balitz
jentie begire.
Batak besotik eutsi
beste guztijek jo
halan ibili dabe
kalien Anjiko.
10. Auzote honen barri
jentiek bakije.
Horra honen despedida
Jauna lagun bekijo.



01. **Barriak:** barreak, irriak.
Leikez: leitekez, litezke.
03. **Gijerra:** gihar, giharre.
03. **Baldres:** narrats, trauskil.
05. **Motza:** itsusia, zatarra.
06. **Gorule:** gorulari, goruan egiten dauena.
Maratz: fina, langilea.
Hari eginen puruz: haria eginaren eginez, hariginan jardutearen ahaleginez.
07. **Minian barria:** mihian zeresana, barri-keta.
10. **Auzote:** auzotegi, auzune.
Bakije: badakie.
Bekijo: bekio.

Mañarikok oharrean dino: “*Bertso honeik Mañariako andera urtetsu bateri entzunikuak dira. Biharbada, ganora larregirik ez dabe izango; baina, guztiak bialtzeko esan zenduan ezkerro, honeik be bialtzen dautsudaz*”.

Euzkadi-ko sail horren arduradun dirudienak, Ibon izenez, iruzkin hau egiten dau: “*Bertsuok, egia esan, ganora larrei bakuak dira, baina, edozertara be, ‘zapateru aprendizak’ ‘nobiak’ bilatuteko eban baino ganora gehiago dauke. Oskigintzarako ganora gehiago ez badau, neuretzako oskitan ez naiako behinguan juango*”.

Euzkerea aldizkarikoak Altubek emon ei eban bertsino txikiago bat dakar, sei ahapaldikoa. Bertan bertsino jatorrizkoa eta bertsino konpondua emoten ditu, berba ustez mordoiloak garbituz: *aprendiz-ikasle; barriak egin leikez-barre egin leike, bai; nobijia-ekongaia, polita-liraina, dauko-dau*. Bertso sortari ez deutso gatzik eta piperrik ukatzen, baina bai herri hizkera gogor kritikutzen.

Gaurtik begiratuta, bertso ‘*ganoradunak*’ ez ezik, bizkaierak emon dauen sortarik zorrotzen eta dotorenetarikoak da, hizkuntzari buruzko filosofiak (filosofia arloteak) uste artistikoak baldinduko ez balitu.

NIRE MAITIAN GONIA

01. Nire maitian gonía
urrezko orratzaz josía
zedazko hari pinagaz
egina dago guztía.
02. Abadiñon San Blasetan
egozan dama gazte bi
bata zan baltzerantxua
bestia zan lar zuri.
03. Begi ederrak nork ditu?
Baltzak edozeinek ez ditu
iraina egingo zeunstan
zuriak izan banitu.
04. Baltzeran graziosa
parerik gabía
munduan askok daki
nazena zeuria.
05. Munduan askok daki
ta zeuk ez jakítia
ondo egiten dozu
disimulatzia.
06. Neskatilatxu pertxenta
gerria dozu liraina
zure gorputzak dirudi
erretreatuan egina.
07. Errotako harriak
uruna dario
mutiltxu txanbelinok
ez dabe balio.



06. **Pertxenta:** dotorea, airosoa.
07. **Urun:** hirina.
Txanbelin: liraina, graziosoa.

ANTONIOK EGIN ARREN

(Euzkadi, 1936, 7213. zk., 14. or.)

01. Antoniok egin arren
solteru burue
Bermion itxi ditu
bost ume ta andrie.

03. Jentia hemen dabil
firri eta farra
biba mokordua ta
biba kakazaharra!

02. Gizon ardauzaliak
atzian zulue
etxian bihar dana
kanpora darue.

HARA HOR GOIAN

(Euzkadi, 1935, 7130. zk., 10. or.)

01. Hara hor goian atso bi
batak bestia dirudi
batak daukoz ehun urte eta
bestiak ehunda hamabi.

03. Zuriak zuri dira
neu naz baltzerana
kolore perpetua
baltzeranena da.

02. Batak gura dau ezkondu eta
bestiak josten ikesi
haren soineko gonaik onenak
mila ta bostehun ipingi.

AURTEN ETORRI DIRA

(Euzkadi, 1936, 7339. zk., 12. or.)

- | | |
|---|--|
| 01. Aurten etorri dira
ordena barriak
ezkondu daitezala
neskazahar guztiak. | 07. Ederra, banidosia
galanta baina nagia
baltz igerrak gusturik
..... |
| 02. Ezkontzen ez badira
datorren hilian
errematera duaz
hurrengo urtian. | 08. Maritxu Katalina
entzun egidazu
ugerra ta koipie
ugeri deukazu. |
| 03. Maritxu Petrolina
Etxebarrikue
jango neuke talue
zuk eginikue. | 09. Dantzan arina eta
briskan be zolia
biharrian, ostera,
alper ta nagia. |
| 04. Gaztia nintzarian
oin hamar urtetan
baneban ezkongea
bai barrabanetan! | 10. Zu lako neskatila
alper takirria
mutil kokoluentzat
nobia zolia. |
| 05. Bata gazte polita
bestia mutilzahar
ederto biziteko
komentzia lar. | 11. Igaz igazkua ta
aurten aurtengua
ez haz hi ezkonduko
ganorabakua. |
| 06. Maritxu txanbelinak
bentaja bi ditu
plazan eder ta galant
etxian irritu. | 12. Tristerik nago tristerik
ez daukat alegrentzirik.
Bostehun urteko agure bat
ohian daukat neuk geixorik. |

13. Oilo bat hil dauzat, baina
ez dauka mejoriarik
beste bat hilgo neuskio
sekula jagiko ez balitz.



05 **Lar:** larregi, gehiegi.

06 **Txanbelin:** liraina, graziosoa.

Irritu: ziztrindu, hasarratu.

10. **Takirri:** *takarro*-ren femeninoa, zaskarra, trauskila.

13. **Jagi:** jaiki.

EDERRA DA LORIA

(Euzkadi, 1936, 7379. zk., 8. or.)

- | | |
|--|---|
| 01. Ederra da loria
zuria dalako
zu ederrago zara
loria dan baino. | 05. Txoriak dabiltz kantetan
beresi goiko landetan
txorrotxio ta pipirika
ez dabe izten baketan. |
| 02. Aingerutxuak hegazka
lainuan dabiltz ziharka
luma zuridun hegotxuakaz
kulunkatuten sihaska. | 06. Isili-isilik, txorritxuak
umia dago negarrez
lotxu gozua eginda gero
hasiko jatzue barrez. |
| 03. Hora hor goian lau ardi
laurak zortzi belarri
portun txikitxu gura dabenak
eskatu bere amari. | 07. Sabin txikitxu samurra
urre bitxia langue
begitxuak itxita
lotxu gozuak darue. |
| 04. Txakur txiki ta polita
aitak Dimatik ekarri
buztan, belarri eta mustur
dana da zuri ta gorri. | 08. Gure umien lolue
lotxu osuak darue.
Gure umiak lo dagonian
bakia emon darue. |



03. **Portun:** portuna, fortuna, izen bihurtua. Ume dohatsua, aberatsa.
05. **Beresi:** txaraka, berez hazitako landaredia.
05. **Langue:** langoa, lakoa, bezalakoa.

08. **Emon darue:** emon ohi dau. *Eroan* aditzak, beste aditz bat menpean daroanean, maiztasuna, jarraitasuna esan gura dau.

UDABARRIKO LORIA

(Euzkadi, 1936, 7379. zk., 8. or.)

01. Udabarriko loria
nora zuaz zu neguan?
Zu lako lora eder bat
ez dot ikusi zeruan.

04. Horra hor goian ermita
deritxona Santiago
nire maitia hantxe dago
asistuten ermitaino.

02. Maritxu Errotatxuko
neskatuaren polita
bihotz erdian dauzala
hiru dozena larrosa.

05. Dantzan ez dakien horrek
oinak narraska darabiltz
hobeto egingo leuke
plazan agertuko ez balitz.

03. Antoniok egin ei dau
iturrien zantzo
Maritxu saladiak
ezkatzian salto.



02. **Dauzala:** dituela.
04. **Asistuten:** *asistiduten* laburturik, asistitzen.

GAZTIAK GAZTE DIRA

(Euzkadi, 1927, 4564. zk., 4. or.)

01. Gaztiak gazte dira
neu be ez naz hain zaharra
egarri nazanian
bertsolari txarra.
02. Oraingo mutiltxuak
zer dabe merezi?
Errekan beratuta
lexiban egosi.
03. Lexiban egosi ta
harrian kolpe bi
harrian kolpe bi ta
kakuan eskegi.
04. Arin-arintxue da
itsuen soinue
zapatai urretzeko
azpiko zorue.
05. Desierture nue
han gura dot bizi
munduko gustuari
nahi neuskio itzi.
06. Itsasuan duanian
untzia kristalezkua
handixik deituten dabe
Maria Begoñakua.
07. Barregarriek dire
katuen lorratzak
buztena luzie ta
erpiek zorrotzak.
08. Batian gorantza ta
bestian beherantza
astuak egiten dau
basuan arrantza.
09. Arratietik datoz
mutilek gorriek
kolkuen arto zati
ikeragarriek.
10. Mutile galanta ta
polainie falta
tabernako atostian
arratoiek janda.
11. A, mutil hanka luze
pipe-hartzailia
pipiak erre deutso
surraren puntia
hoba erre balue
enparau guztia.
12. Esango neuke baina
lotsa naz esaten
oraingo mutiltxuek
dakiela eraten.



07. **Erpiek:** erpeak, atzaparrak.
10. **Atostian:** ate ostein, atzean.

11. **Erre balue:** erre baleua, balik.
Enparau guztia: gainerako guztia.

MENDI HANDI-HANDI BAT

(**Euzkadi**, 1927, 4505. zk., 4. or. Bialtzaile izenik ez dakar, baina *Mañariko* izango da, Mañarian batuak direla dino eta.)

- | | |
|---|---|
| 01. Mendi handi-handi bat
bioen erdian
ez du arkal ikusten
nahi dogun guztian. | 05. Etxe txiki bat dago
atxaren ganien
neu bere hangoxie
bai zorionien. |
| 02. Zeu ikusi bagarik
dekuan egune
pentsetot gaba dala
haren da ilune. | 06. Mañaritik gorago
etxe zapal baten
hamalau mutil zaharko
morokile jaten. |
| 03. Izarrak argi-argi
Artzate ganien
esan biher deustazu
nun bizi zarien. | 07. Hauxe da despedidie
despedidaren tristie.
Agur, aita ta ama
agur, arreba gatzie. |
| 04. Maitie, maite zaitut
zeuk halan banozu
biok biziko gara
zeuk gure badozu. | |



01. **Ez du arkal ikusten:** ez dogu elkar ikusten.
02. **Dekuan:** dekodan, daukadan.
Bagarik: barik, gabe.
Pentsetot: pentsetan dot, pentsatzen dot.
Haren da: hain da.

05. **Atxaren:** haitzaren.
Ganien: gainean.

OBAN DABIL GIZON BAT

(**Euzkadi**, 1927, 4581. zk., 4. or. Bialtzaile izenik ez dakar, baina *Mañariko* izango zela dirudi, honakoa baitino: “*Honeek abestuten ziran Mañarin eta Diman, orain hirurogei edo larogei urte. Igande ta jaiegunetan, lanian ibilten ziralako atara eutsiezan atso-agura batzuk*”.)

- | | |
|---|---|
| 01. Oban dabil gizon bat
beti biherrien
eta kargie dakar
Gorpuzti egunien. | 06. Txarritxu bat hil dabe
pasa dan astien
arroga bi izan ei de
pisetu danien. |
| 02. Domeka guztietan
Iñungana aldera
izerakada orbelak
daruez etxera. | 07. Urte bi pasau eta
urdaiek etxien
harek bai koipetsuek
irauen artien. |
| 03. Nahiz izan Erramu ta
nahiz izan Pazkue
nahiz Asentziuetan
etxera zorrue. | 08. Domeka ta jaietan
ez egin biherrik
goratu Jaungoikoa
ahal dozun guztitik. |
| 04. Bai Pepe Anton eta
bai Pepa(i) Antoni
linuek ataretan
domekan ibili. | 09. Berak emongo deusku
bi'ogun guztie
umil eskatu eta
hartuko dogule. |
| 05. Erdiek usteldu jakez
soloko pozuen
albinu bat egiteko
gauza ez dan moduen. | 10. Domeketan biherra
egiten dabenak
ez dauela izango
beti zoriona. |



- | | |
|--|--|
| 01. Oba : Dimako auzo bat.
Biherrien : beharrean, lanean.
Gorpuzti : Corpus Christi eguna,
lehenago jai handia.. | 02. Daruez : daroaz, daramatza. |
| 05. Pozuen : pozuan, putzuan.
Albinu : albainua, hariaren zuntza. | 04. Linuek ataretan : lihoak ateratzen. |

06. **Arroga bi:** arroa bi, 25 kilo. Hiltzeko txarri batentzat, pisu barregarria da hori.

07. **Irauen:** zirauen, zirauten, jan barik zegoen bitartean.

09. **Biogun:** behar dogun.

IZARRAK ARG-ARGI

(Euzkadi, 1931, 5776. zk., 5. or.)

01. Izarrak argi-argi
arranak aldian
zugaz pentsetan nago
denpora luzian.

06. Hor goiko zelaietan
lora ederrak dira
baso-uso politak
lo gozuan dira.

02. Ametsak amets dira
orain nago pozez
zeure maitetasuna
hartzeko bihotzez.

07. Sagastiko iturrian
ur gozua dator
egarria ase ta
atseginez nator.

03. Jaio nintzan eta
gura neuke bizi
ikusi nahi ez nabena
begi biak itxi.

08. Arpegi zuria dau
neskatila horrek
aingerua dirudi
neure maite honek.

04. Arin-arintxue da
itsuen soinue
zapatai urratzeko
azpiko zorue.

09. Hiru mila klabelin
lau mile larrosa
zure bihotz txukuna
edertasun hutsa.

05. Zapatak urratu ta
gorputza nekatu
zerurako bidia
apur bat luzatu.

10. Bihotza minberatu
begiak ilundu
zure edertasunak
egin nau itsutu.

11. Jaungoikuak nahi badau munduak ezarren biok biziko gara etxe txiki baten.
12. Igaz hogeitau urte ta aurten hemeretzi zeuria izango naz bihar edo etzi.
13. Etxebarri izena ez da izen txarra kortara jausi jako bere sabai zaharra.
14. Ederrak bi balio karinosiak lau apala izatiak asko balio dau.
15. Agur, agur, Maritxu Maria Zelemin bakotxak bere lekuan nahikua zeregin.
16. Mañariko mutilak Sandroke gabian aza berdiak janda kajia ganian.
17. Barrenkalian dago “Kazuela-buru” neskatxak engainetan badau mile modu.
18. Iragarrita dauko San Joan korukok mutil zaharrik ez dala zeruan sartuko.
19. Mañaritik gorauko etxe zapal baten hamalau mutil lelo morokila jaten.
20. Alperrik izan dira etxian hasarre ez nabe mudatuko hiltan ez banabe.
21. Hil eta gero bere biztutzen banabe lehengo hitzetan pirme aurkituko nabe.
22. Gaztiak gazte dira neu be ez naz hain zaharra egarri nazanian bertsolari txarra.



01. **Arranak aldian:** joareak, zintzarriak soinean.
11. **Munduak ezarren:** munduak nahi ez izan arren.

15. **Zelemin:** lakaria, garaunen neurri bat, ezizen bihurtua.
19. **Gorauko:** goragoko.

LORA ZURI BAT

(Euzkadi, 1931, 5800. zk., 5. or. "Sehaska-abesti zaharrak", dino.)

01. Lora zuri bat zeruan
izar ederren artian
maitasunezko gar biziagaz
guztiz gorritu artian.
02. Milaka izar baino
lora zuria gurago
munduko bitxi guztia baino
goikuak beti hobago.
03. Hodei gailurren ganian
atseginezko ortua
maitasunezko ezteguetan
pozez beterik kantua.
04. Horra hor goiko landetan
usuak dabilz kantetan
lotxo gozua egin lezake
maitia zure besuetan.
05. Zerura gura dot nik
zerura hegaztu
aingeruak balikedar
hegoak prestatu.
06. Hegoak balitzakez
argizarizkuak
laster urtuko leukez
bihotzen beruak.
07. Gure neskato polita
lo gozuak darua
zeruko ate nagosiraino
aingerutxuak darua.
08. Hegoak dituz urdinak
jantzia barriz zuria
bular barruan bihotz ederra
lirio lora ontzia.
09. Amodioaren indar handiak
lurra itxirik darua
zeru altuko lorategian
zorioneko arua.
10. Gure umetxu politik
Birjina Amagaz batera
kontu-kontari zintzo dihardu
berak dakian erara.



05. **Balikedar**: balekart, balekarkit.

09. **Lurra itxirik darua**: lurra utzita
darama.

Arua: aroa, aldia. Baita giroa be, egu-
raldiaren egoera.

11. Holan ezin bok bete
tripa zital hori
amak emongo dua
baba-lapiko bi.



01. **Kopeta:** ule trentza.

02: **Pazil:** fazil, erraz.

07. **Txanka:** hanka.

09. **Gonburu:** bete-beterik, gainezka.

10. **Kurtzulu:** argiontzia, kriseilua.

11: **Ezin bok:** ezin badok.

Dua: emongo deua, emango dik.

HASIKO NAZ HASITERA

(Euzkadi, 1933, 6455. zk., 7. or.)

01. Hasiko naz hasitera
gaziok dibertitzera.
Ni honelan ikusi eta
errukituten ez zara.

02. Itxurie ta presentzie
ta mile duket baneuko
herri hontako mutil kaxkarrak
aintzat ez neukez hartuko.

03. Neska presumida horrek
etxera dijoanian
esango dau bere artian:
“Antoniok ondo poztu nau
gaur Urkiola ganian”.

04. Erreka bazterrian
larrosa ederrak
maitian arpegian
kolore gorriak.

05. Nire nobiak baki
taluak egiten
baita buru-zapia
dotore iminten.

06. Arpegi ederra ta
gorputza lindia
ezkonduko ninteke
zurekin maitia.

07. Neska ederrak dagoz
gure auzuetan
danak era batian
dabiltz goruetan.



05. **Baki:** badaki.
Iminten: ipintzen.

DINGIN DANGINDAN

(Euzkadi, 1933, 6407. zk., 8. or.)

01. Dingin dangindan
umia zulora
ama negarrez
aita dolorez
abadia kantetan
boz alegerez.

02. Aitita zaharra durduri
zopak janda logura
azak janda egarri
mustur guztia gorri-gorri.

03. Atsue Txarrantxako
kanpaiak joten dago
sardina-buruak janda
egarriak hilik dago.

04. Dantzan-dantzan sonbreilu
Marie gurie ezkondu
Marie gurie ezteguetan
arto beruaz koipetsu.

05. Patxiko txantxaniko
nor dozu noble?
Zentenoren alaba
kolore gorrie.

06. Kolore gorria ta
begiak ilunak
harekek emongotsuz
ointxe kalabazak.

07. Koxe moxe kitarra
ontza biko bixarra
botako leuke, botako leuke
Praitziarainoko uzkerria.

08. Karetula sorki
ken hakit hortik
heuk okelia janda
katuari zapi.

09. Kubi-kubi kinarra
kainaberia larrosa
kabelin da kabelin
jaunak, nora zoiaze?
Kalia gora, kalia behera
bost intxaurren erditik
eskuan daukat hazia
poltsan urregorria
akerra baltzan señoiriari
atarakutsat eskumako
begi gorri-gorria.
10. Edurra dator menditik
Urkiola ganetik
amak opilak labatik
aitak ardaua zaragitik
amamak okelia lapikotik
aititak sagarrak kamaratik.
11. Zirrin zarran dominikan
zure semia errotan
errota txikia klin-klan
Katalina bertan
txirriki txikiton
Martin zapaton
kainaberia tronpeta
Laukirikon.
12. Atxakili tantantan
txarria soluan
gaztaina piluan
Patxikok ataraten ez badau
jo belarrionduan!
13. Ipuin-ipuin berezi
nire babak egosi
ni eleizara nazala
Sabel-handik iruntsi.

Mañarikok sarrerako oharrean dino: “*Hona hemen guk txikitan, jolasian inarduten gebanian, abestuten gebazan abestituak, sail begiko honetan. Bertso honeik ulertu gura badozuz, irakurle, buruhauste itzela egin bihar-ko dozu, gehienok ‘sasi-kantuak’ diralako*”.

Ez dira hain ulergatxak, berba asko moldatuak edo ‘sasituak’ badira be, ume hizkera eta ipuinen aproposko deformazino, asmazino, edo lerratze dotoreetan. Halan, esaterako: *durduri, txarrantxako, sonbreilu, txantxaniko, karetula, baltzan, dominikan, zapaton, laukirikon, atxakili...*



03. **Txarrantxa:** ganadua orrazteko, lihoa kardatzeko... tresna latza, hemen izen berezi bihurtua.
06. **Emongotsuz:** emongo deutsuz, dizkizu.
07. **Koxe moxe:** Jose mose.
08. **Zapi:** katua uxatzeko hitza.
09. **Kubi-kubi:** kui-kuika.
Kinarra: ginarra. Baso landare bat eta beragaz egiten den erratza.
Atarakutsat: aterako deutsat.
13. **Sabel-handi:** izen arrunta, mamu-izen edo pertsonaia mitologiko baten izen bihurtua.

Hamairugarren koplaitik, *Mañarikok* dino: “*Zaharrakandik, ipuinok entzun gura izaten ziranian, bertso hori abesten zan. Eta, orduan, aitita-amamak euren ilobatxuari Aitita Txarrantxako ta Amama Maluta-koen ipuinak edestuten eutsoezan*”.

Mañariko Errosek edo Rosa Bustinzaren ipuinak eta alegiak *Euskalerriko Ipuinak* izeneko liburuan argitaratu ziren. Bertan, ipuinen testu barruan, kopla banaka bat agiri da:

Baso baltzean okila
solo landuan mokila.
Lanaren ordain
jan daigun orain
hemen daukagun opila.

Andrea etxean agintari
gizona etorri mandatari.
Izarrak goian agertu orduko
damutuko jako berari.

Urdai eta lukainka
txitxi ta burduntzi.
Ardaotxo gozoagaz
guztiak iruntsi.

(Kopla hau basa-koipetsu edo txitxi-burduntzi egunean)

Istorio misterio latz
ehun zorri eta berrehun bartz
horreik guztiok bizkarrean dauzanak
izango dau non egin hatz.

GERRAURREKO BERTSO IZENBAKOAK

ELANTXOBE

(Euzkadi, 1932, 6086. zk., 5. or. Egilea: *Perularra.*)

01. Villarcayotik idatzi dauste
Elantxobe nun daguan
uste dabe, ba, herri hau daula
Navalcarnero onduan.
Berihalaxe erantzun dautset
Gernikatik bi leguan
Ibarrangelu igaruagaz
bertan dagola behinguan.
02. Beste idazki bat hartu dot orain
luze ta ondo egina
euskeralduta zuei ipiniko
dautsuet, bai, alajaina
erdelzaliok euki daizuen
poz handi ta atsegina
nahita neuretzat gorde isilik
berak daragistan mina.
03. “Goralgarriak, txalogarriak
Elantxobeko semiak
zuek zarie Perez-hizkuntzan
jakitun bardinbagiak.
Ta ez katalan, muntxetatarrak
euren girigai zaliak
zuek zarie neure ustian
Unamunoren umiak.
04. Irakurrita erdel hizkuntzan
jai ospetsuen barria
hor gara laster Deun Pedruetan
bertako oste handia.
Zazpi asto ta hainbat patari
sei txakur eta lukia
bilatu deian gau ilunian
zeuen oiluen habia.
05. Barkilero bi, lau zorrotzaile
makakua ta txoria
konponer ondo paraguas ta
laster daukagu euria.
Gehiago inor bihar ezkeru
hainbat lasterren abia
bada poz-pozik juango gara
Zibiliarte guztia.
06. Endore jaunak gertu daiela
geuretzako ostatua
eta Udalak ordaindu orain
hor eingo dogun gastua.
Bada gerorantz geure herritik
bialdukogu dirua
eskier egon, zaldunak gara
laster dozue girua.

07. Baita, ganera, neska politak
geu hor gagozan artian
ez genduke nahi mintzo daitezán
sagarduoz-en elian
ezpada erdera geure hizkuntzan
kristinau onan antzian
horretarako egon dirala
ikasten lekaimetxian.
08. Gora zuek, ba, gora erdera!
Gora patriotismua!
Gorde daiela katalandarrak
bigarren artikulua.
Bestela, zelan, gu jua ezik
apaindu herri txirua?
Eta ganera ederto batu
errematetzat dirua”.



01. **Daula:** dagoela.
Igaruagaz: igaro ondoren,
pasatutakoan.
Behinguan: behingoan, ber-bertan,
berehala.
02. **Nahita:** nahiz eta.
Daragistan: eragiten didan.
03. **Muntxetatarrak:** *Muntxeta* izenetik.
Girigai: erdaratik hartutako hitza.
Berebeta iluna eta ulergatxa esan gura dau.
04. **Oste:** pilo handia.
Patari: piztia, animalia.
Luki: azeria.
05. **Abia:** abiatu.
Zibiliarte guztia: Sibiliarainoko
guztia. Sibilia = Sevilla. Erdal Herri
guztia esan gura dau.
06. **Endore jaunak gertu daiela:** alkate
jaunak gertatu daiela, presta dezala.
Eskier: seguru, ziur.
07. **Sagarduoz:** euskal jatorria adierazoko
leukeen hitza. Gorago agertu den
Perez-hizkuntza erdara bada,
Sagarduozen elea euskara litzateke.
Lekaimetxian: moja komentuan.

Bertso sorta hau ondu eban Perularrari ez jakon sentimendurik eta eztenik falta. Sentimendua, kasu honetan, amorrúa da, bere herri Elantxoberen *erdelzaletasuna* ikusita, zoritxarrez, hangoa bakarrik izango ez zena. Eta, eztena sartzen hastean, fantasia satiriko bitxia eta gordina asmatzen daue-la autortu behar, errealitatea deskribatzeko plantan. *Deun Pedruetako oste handi* edo espedizino horretan, Elantxobera joateko diren partaideetariko asko egiazkoak izango ziren. Bertsoek, hizkuntzaz, espresibitate handia daukie eta, teknikaz be, maila onean eginda dagoz.

EL RIOJANO

(Euskalduna, 1901, 207. zk., 679. or. Sarreratzat, dino: “*Tomamos las siguientes estrofas de una chispeante poesía que figura en la hoja repartida entre los patriotas de Bermeo*”.)

- | | |
|--|---|
| 01. “El Riojano” atera dabe
“El Bermeano”-n izenaz
itsasaldeko euskaldun hutsak
bizi gaitez an erderaz. | 04. Astotxu bana otzara bigaz
ondo hamarratzez beterik
emongo jake gelditu ez dein
hemen hamarratz kastarik. |
| 02. Hamarratzaren jauntxutasuna
lurrerratu daigunean
Erriojara bialduteko
jarriko doguz bidean. | 05. Salgei horrexek papel barruan
batuta saldu daiezan
“El Bermeano” eroan leie
mando zahar baten ganean. |
| 03. Casa-camiño eperdikara
Ardao-maisu ta Judaski
Don Ziruelo eta Sur-eder
bandera bataz aurreti. | 06. Hauxe egin arte isiltzen da
Bermeoko Tertzana
soinua jotzen adar bategaz
orduan agertuko da. |



- | | |
|--|--|
| 02. Hamarratz: hamar hatz daukazana,
olagarroa.
Lurrerratu: lurrera bota, eraitsi. | 04. Ez dein: ez daiten, ez dadin. |
| 03. Eperdikara: atzerik hara, atzetik.
<i>Eperdirik hara > eperdikara.</i>
Leitekeena da eperdi-ikara, epurtarina
izatea be
Bataz: bategaz. | 05. Eroan leie: eroan leikie, eraman
lezakete. |

ZEOZERTXU NIK ESAN GURIA

(Ekin, 1932, 25. zk., 5. or. Egilea: Garrarte. Lezamako ‘Ejolari’-ri.)

01. Zeozertxu nik esan guria
deutsat gaur Ejolariri
eskerrak mila, zeure goguan
aurkitu nazalako ni.
02. Hil ete nazan zeure goguk
erabili zaitu larri
ez ikaratu, Jaunan eskerraz
pozarren aurkitzen naz ni.
03. Izpartxu batzuk idatzi dodaz
nozik behin ehuntz-herritik
ezeutu nozu ziur-ziur zuk
ehuntzaren bekekoretik.
04. Holan ez balitz, neure goguk
ez deu eiten huts makala
bekekorera zuhur neure ustez
egoten da beti akarra.
05. Ehuntz-herri eta akar-herrien
erdi-erdien jarririk
ez dozu esan inoztxo bere
zeure piztien barririk.
06. Esan egizu bildurrik gabe
geratu zaite egien
lehen bazan bere ez zagozala
orain zu zorri-herrien.
07. Herri polita aurkitu dozu
toki polita Lezama
orain urtiak, txori-herria
askok esaten eutsana.
08. Akarrak eta ehuntzak batera
egiteko euren ferie
egoki-egoki dago neure ustez
erdien txori-herrie.
09. Honek guztiok batu ezker
egingu feri edarra
honetarako prestau beharkozu
akartxo baten iztarra.
10. Hauxe eiten bozu, esker berua
izango dozu ugari
feri eguna noz izango dan
egizu zeuk iragarri.



01. **Eskerrak mila:** mila esker.
03. **Izpar:** albiste, barri.
Ezeutu: ezagutu.
Ehuntzaren bekekore: ahuntzaren
bekekea, bekerekea.
04. **Zuhur:** adi, ernai, zoli.
05. **Akarrak:** larrabetzuarren gatxizena.
06. **Zorriak:** lezamarren gatxizena.
07. **Txori-herria:** Orain, behintzat,
eskualde osoari deritzo Txoriherri.
Badirudi *zorri-herri* hori burlazkoa
dela.
09. **Egingu:** egingo dogu.
10. **Eiten bozu:** egiten badozu.

DIRUA ETA KONPIANTZA

(Eguna, 1937, 84. zk. Bertsolariak: Juan Sastria eta Bautista. Bertsoen ondorengo oharrak dino: “Bertso oneik errian batuak dira. Olerkiotan agiri danez, Derio’n ospatu ei zan ezta-baideoi. 1877’gn ingurukoa dogu bertsolari-gudeoi”.

01. *J. Sastria:*

Bertsotan jokatzeko
daukagu amesa
bertsolari bik Derion
egin dogu promesa
kunplitzen ez da beti
izaten erreza
bada interesa
edo konpiantza
zein hobiagua dan
esplikatu beza.

02. *Bautista:*

Dirua da errege
mundu guztikua
halaz itxaso eta
ligorrekua.
Dirurik ez dabena
beti da plakua
etxure bakua
eta halakua
etxean egoteko
gizon bapua.

03. *J. Sastria:*

Konpiantza munduan
beti da nagusi
hoberik orain arte
nik ez dot ikusi.
Diruarekin asko
ezin ondo bizi
lapurren igual
sasirik sasi
konpiantzak diruari
beti irabazi.

04. *Bautista:*

Nahiago dot dirua
baletor nigana
alperrik zuk iduki
konpiantza dana.
Guztiak datoz pozik
dirudunagana
hau da neure plana
eta erreprana
mundu guztiak daki
hau egia dana.

05. *J. Sastria:*

Kanpotik dabilenak
ikusitzen ditu
dirua euki arren
kanpuan gelditu.
Konpianzadunari
barrura deitu
egin hemen kontu
hor-hemen aditu
konpianza lakorik
ez da arkitu.

06. Bautista:

Dirurik ez dabena
beti dago lotsaz
gauza asko ezin legi
estamangu hotzaz.
Diru zorioneko
bigarren bihotzaz
interesen pozaz
pirmeago askozaz
asko kontsolatzen da
diruaren bozaz.

07. *J. Sastria:*

Biok hartzen badogu
biaje luzia
dirua euki arren
palta gauzia.
Klaru esango dautsut
nik zer dan kausia
zuk diru-poltsia
nik konpianzia
dirua jan ezin da
tripan gosia.

08. Bautista:

Urregorritz beteta
badaukozu poltsa
aurrera pasatzeko
ez zerate lotsa.
Hartu zintatik eta
eragin hotsa
alper izan motza
eta palta hortza
diruak konsolatzen
dau neure bihotza.

09. *J. Sastria:*

Ni inoz aurkitu naz
euki arren dirua
bilatu ezinikan
erretirua.
Konpianzarik eza
hau zan motibua
etxe katiua
kontrapartidua
bentanatik kanpora
bota tirua.

10. Bautista:

Ailegatu ezkerro
gabian atera
hartu partikaratik
poltsia atera.
Han izango dirade
guztiak batera
juateko jatera
aurrera platera
jaten ez baldin badau
bere kaltera.

11. *J. Sastria:*

Nik han izan banitu
zeinbait pariente
aurrera juango nintzan
txit baliente.

Kontra nituzan bertan
makina bat jente
ezin emon prente
danai derrepente
aurrera sartu bage
egin eban tente.

12. Bautista:

Dirua da neronen
kontsolagarria
harek kontsolatzen dau
neure begia.

Mundua pasatzeko
hau da alegria
bada urregorria
ez bada zuria
haretxen bila dabil
mundu guztia.

13. *J. Sastria:*

Dirua asko badozu
konpiantza gutxi
berregarri bihar dozu
bihar edo etzi.

Konseju bat eutsi
nahi dot erakutsi
baztarrera begira
ez hemen hasi.

14. Bautista:

Nahiz dala baztarra ta
igual aurrena
ezin apartau leike
hil behar dabena.

Nahiz dala enbria ta
igual gizona
oker ta zuzena
plako ta gizona
ezin apartau leike
hil behar dabena.

15. *J. Sastria:*

Interes asko eta
juan bihar treña
pobriak ez dau euko
hainbeste pena.

Diruak beti dauko
atzeko eztena
seme ta errena
harek beti lehena
berari itxitzeko
etxean daukena.

16. Bautista:

Zerorrek hasi dezu
neuri erremata
biok egingo degu
bertsuetan pata.

Diru ta konpiantza
lehenengo zilbota
Bautista da bata
hau egia da-ta
diru asko badauko
ez da ezer palta.

17. *J. Sastria:*

Bautista, eman diozu
zuk errematia
estimatuko neuke
neuk ematia.
Biok kontentu gera
adiskide maitia
bata lez bestia
zaharra ta gaztia
konpiantzara dago
Juan Sastria.



06. **Ezin legi:** ezin lei, ezin leiteke.

09. **Katiua:** katigua, lotua.

11. **Bage:** barik, gabe.

13. **Eutsi:** hartu eizu, tori.

14. **Ezin apartau leike hil behar dabena:**
puntu hau, bertsoaren barruan,
errepikaturik aurkitzea ez da normala,
baina horretan itzi beharko dogu.

15. **Euko:** eukiko.

Errena: erraina.

Itxitzeko: izteko, uzteko.

16. **Zilbot:** sabel ingurua.

Bertso sorta interesgarria eta bitxia benetan. Alde batetik, neurria (beti zehatza ez dena, bestalde) oso berezia da, bertsolaritzan ezagutu doguneko, behintzat. Bestetik, bertsoak elegante eginda dagoz. Gipuzkerazko ikutuek euskalki eredu apur bat lorrintzen badabe be, bertsoak hizkera naturalean eginda dagoz.

Joseba Santxok, sorta honetaz, honako ohartxo bialdu deust: “Bat-bateko bertsoak dirudie. Jarriak izateko, errepetizino lar jagok, baita puntu makal asko bere. Neurrian gorabeherak. Errazoi batzuk txikerrak dozak, apurtxu bat azalekoak, baina bertsoak biziak eta naturalak dozak”.

Neuretzat, bat-batekoa izateko baino konplexuagoak dira. Aurretiaz erabagita dagoela pentsatzeko moduko argumentu garbia dago. Puntu batzuen makaltasuna bideko deformazioekin be esplikatu leiteke. Edo, beste barik, jatorriz izan zeitekezen makalak, baina ahapaldi batzuen kalitatea, neurriaren zailtasuna, sortaren tonu orokorra eta ondasun biren kontrajartze guztiz pentsatutik garatzen den dialektika estua, orduko Derioko bat-batekotasun ahalmen posibletik gora dagoela suposatu leiteke. Areago, bakarra ez ezik, maila horretako bertsolari bi behar zirelako. Argumentuaren garapena buru bakarrean pentsatuta dagoen itxura emoten dau.

MIKEL ANJEL ALDEKO

(**Karmel**, 1959, 1. zk., 12. or. Aurkezpen oharrak dino: “*Ibili gabiltzanok ikus-ikasi gabiltz. Ona emen baserri bateko neska-mutiltxoak bertsolari. Lekeitiotik Elantxobe bitarteko herri polit batekoak doguz*”).

01. *Mutila:*

Mikel Anjel Aldeko
bai mutil gogorra!
Ukabilaz zartaka
hausi dau anporra.

03. *Mutila:*

Tximutegin badira
kerixak ugari
lapurretan bazoiaz
hor da Jose Mari.

02. *Neska:*

Baserri politena
goi-herrian urrun
zugatzen gerizpian
pozik bizi Asun.

04. *Neska:*

Karmen Uribarrengo
etxeoandria
haren pentzutan dago
etxian guztia.

05. *Mutila:*
Luistxu Legortzakuak
indarretan nahiko
otsua be hilgo leuke
hurrian baleuko.
06. *Neska:*
Maribel Larriñakok
zereginik asko
etxian lau gizonen
arduria dauko.
07. *Mutila:*
Ogien bila dabil
ama sukaldian
Pedro Mari totolok
hortzak sar ogian.
08. *Neska:*
Anakineko Tere
etxian txikina
etxeke txikina bai
ez gero hondakina.
09. *Mutila:*
Jesus Mari lakorik
ez dago beste bat
gozokitxo guztiak
nahi ditu berentzat.
10. *Neska:*
Basoko etxequak
ule gorritxo bi
eskolan ta dotrinan
harek bai ikasi.
11. *Mutila:*
Errapel Gartxoneko
gaixorik egon zan
kilin-kilin hartunda
arin osatu zan.
12. *Neska:*
Sabina Goierriko
Goitila beherakua
zeregin guztietan
beti da zintzua.
13. *Mutila:*
Kortazarren Pedrotxok
hamaika badaki
berentzat solomua
Pilintzat saiheski.
14. *Neska:*
Txikina, zuk badozu
ibilte bizkorra
orbela zuk atzetik
haizien gogorra!
15. *Mutila:*
Ardautan Jesus Maria
amak hor bidali
otzaratik ardauak
bidean igesi.
16. *Neska:*
Gartxoko alabia
Errosariotxu
ondo orraztu nahi bozu
hareri begitu.

17. *Mutila:*

Juan Mari Klareneko
eupadaka dago
harria jasoteko
besterik balego.

18. *Neska:*

Dotrinarako giltza
Arantzak ekarri
elizara lorak be
harexek hamabi.

19. *Mutila:*

Tomastxu Pabiñeko
ez da estututen
totolo ta morrosko
beti lodituten.

20. *Neska:*

Arbiondoko Mari
hor lora eskian
pozik emongo deutsez
altzuak betian.



01. **Anporra:** Mukur handia, enborra.

04. **Haren pentzutan:** haren eskuan, haren gorabeheran.

07. **Totolo:** potoloa. Baita kokoloa be.

08. **Txikin:** txiki.

11. **Errapel:** Rafael-Errafael-Errafel-Errapel.

Kilin-kilin: txurruplina, edaria.

Hartun: hartu.

Arin: bizkor, azkar.

18. **Dotrina:** katekesia.

MARTOLO ALPERRA

(**Euzko**, 1934, 86. zk., 1. or. Egilea: *Billetxe*. "Txeru lez abestuteko", dino izenburuak.)

01. Jai eguna dala be

Martolo alperrak
arkondara ta parkak
zahar eta ugerrak.

Jai-jai!

02. Peru zintzuak, barriz

baratzetik hara
barri, garbirik, txukun
parka ta arkondara.

Peru!

03. Alperraren etxia

zarkel, uger, ilun
zintzuarena, barriz
alai, garbi, txukun.

Alper!

04. Alai, garbi ta txukun

bizi nahi badogu,
Martolori lagata
maite daigun Peru.

Alai!

05. Lora txukun usaintsu
gure baratzean
amak ekarri eban
untzi politian.

Lora!

06. Opil gozo eta handi
laban erre barri
guk erosi ta gero
dakartso amari.

Opil!

07. Txori papar-gorria
dabil abeslari
ume ona danentzat
alaitsu, pozkarri.

Txori!

08. Gotzontxu hego zuri
logura ez naz ni
zure maitia naz ta
ipuintxo bat niri.

Gotzon!



01. **Parkak:** prakak.

02. **Baratzetik hara:** baratzetik zuzen,
ortutik urten barri.

03. **Zarkel:** trauskila, narratsa.

08: **Gotzontzu:** aingerutxo.

EZKONTZA BATEN KASUAN

(Euzkadi, 1933, 6401. zk., 8. or.)

01. Bertso batzuek jartzera noia
ezkontza baten kasuan
bi urte t'erdin ibilia naz
satsipazino osuan.
Ni besterikan maite ez zuela
nobiak esaten zuan
honelan geldu behar nuela
asko pentsatzen ez nuan.

02. Oraindik ondo akordatzen naiz
Santiago egunean
hala hasi zan hasarratuten
ezkontza horren ganean.
Ordura artean gurasuakin
nengoan pake onean
geroztik beti gerra izan dot
etxera natorrenean.

03. Nere jaiotzaz Deriokua
Isidro daukat grazie
dama batekin ezkontuteko
tratamentuan hasie.
Ez da erreza honelanguaz
hartuten pazientzie
ez da posible zelan pasa dan
deklaretia guztie.
04. Zamudioko pontekua da
Prantziska dauko izena
Zubietako alaba berez
ez da alaja zuzena.
Bi urte t'erdiz engainatute
neu naz ibili naizena
tranposa batek burla egitia
horrek emoten daust pena.
05. Alde batera laga neuela
orain egiten naz poztu
jan-edanian horren pabore
egin leiteke apostu.
Jornalarekin sostenitzeko
badauko nahikua gastu
zelemin erdi baba jateko
lagun beharrikan eztu.
06. Beste gauza bat esan behautsut
San Juanetako kasuan
hori egingo zenduenikan
asko pentsatzen ez nuan.
Soinua jota dantzatu ginen
hiru bet ordu osuan
etxera juaten atrebitu ezta
lo egin zendun auzuan.
07. Aitagaz droga izan dodala
enteratu da jentia
arren, albora ez ekarteko
diru bagako andria.
Nik interesa baneukala ta
zetako nuen pobria
kontu hau ezin arreglaturik
sei hilabete juan dia.
08. Pamili horregaz barri onikan
ez da entzuten inundik
euren auzoko pertsona batek
notizia bat emon dit.
Duda bagarik jakingo zuen
hartzeko daukonagaitik
ahiztia ezkondu zaneke zorra
pagadu barik oraindik.
09. San Inazio egun batian
pasatu jakon handie
nozobait burura etorri zaion
Basurton zala perie.
Bere erropa ta astoagaz
buel tako da ibilie
inuzentiak egiten dute
holako erromerie.
10. Prantziskak zuen Juli laguna
astoa hirugarrena
prozesinuan ibili ziran
kale goitik barrenera.
Jose auzoko pentsatu zuten
kontrabandisteik onena
Isidro nun dan topatutzeko
emon dautsie ordena.

11. Egun haretan deskuido batez
kolpe bat nintzan hartua
horregaitik zan biaje hori
apur bat atzeratua.
Nobiak zeukan amodiua
bihotzeraino sartua
agostuaren hogeirako zan
hurrengo juntamentua.
12. Egun haretan gu ginan pondan
jan gendun kopau gozorik
Julik esan du ez dala izaten
kunplitzen ez dan plazorik.
Prantziskak dino ez dadukala
Isidro izteko asmorik
mundu hontako barriketari
ez egiteko kasorik.
13. Euria sano diharduela
urten genduen pondatik
Prantziskak zuen guardasola bat
ere neuretzat emon dit.
Katarrorikan hartu ez nezan
ondo kontserbatziaitrik
Juli ta bera bustiagaitrik
ez ziotela inportrik.
14. Begi argia ipinten eustan
dama horrek amodioz
bat emoteko konporme zeon
izan balitu bi bihotz.
Denpora hatan bero genbiltzan
ezkontzeko negozioz
asto ganean jarri nedila
kojo nengoan medioz.
15. Nere denporan ez jat ahaztuko
San Bartolome eguna
preguntarikan guk egin gabe
Prantziskak esan euskuna:
“Ai, emaztetzat hartzen banozu
zeuretzat dago portuna”
Isidro zala mundu honetan
bere gustuko laguna.
16. Iluntze aldera gure parada
Antononen etxe barrian
sangri apur bat opresiduta
ez zegoala premian.
Guzurraz ala zelan ebilen
seguru ez nerakian
azunbretxu bat edango zuen
disimuluko tokian.
17. Prantziska, ondo akordau zaite
Pazko zapatu gabian
zelan egon ginan zeure etxeko
bentana txiki batian.
Hamar orduak jo ebenetik
goizeko laurak artian
esne beroa nahiko edanaz
pitxar haundia betian.
18. Egun batian apuratuta
presentau zan dama hori
komeni zala berba egitza
aitari eta amari.
Pineza zer dan ez daki horrek
beti paltsia ugari
sua emotia merezi luke
horrela dabilenari.

19. Irailaren hamarrian da
dama hori nigaz juntatu
labankeriak pranko baziran
ezin leitekez kontatu.
Mutil ederra nengoala ta
guztiz egoala kontentu
Zamudioko dama tranposa
ez zera txarto portatu!

20. Prantziskagandik apartatuta
Isidrokan dadukan poza
neure ahaideak eraman dute
nahikua pena ta lotsa.
Mutilzaharragaz ezkontzen dala
orain entzuten da boza
lauziriko bat beria ez duen
buru harro orgullosa.



03. **Deklaretia**: deklaratzeari.
04. **Ponte**: bataio-harria. **Zamudioko pontekua** = Zamudion bataiatua.
07. **Droga**: liskarra, haserre.
12. **Kopau**: otamen, mokadu.
13. **Euria sano**: euria ugari, euri asko.
17. **Hamar orduak**: *hamarrak* esateko forma arkaikoa, orduen elipsia egin aurrekoa.

18. **Paltsia**: faltsukeria.
19. **Labankeria**: berba engainagarriak, adulazinoa.
20. **Lauziriko**: antzinako txanpona, merabedi bikoa.

Bertso sorta luze honek Bizkaiko kontakeraren (Eustakio Euleagan-eta ikusia dogunaren) ezaugarri guztiak daukaz: solemnitatea, naturaltasuna, ironiaren eta xalotasunaren arteko nahaste erromantzezkoa. Lastima da, Eustakio Euleak ez legez, euskalkiak apur bat nahasten dituela, baina, kontakizunaren balio orokorraren barruan, ez da akats handitzat hartzekoa.

Joseba Santxok honako iruzkina bialdu deust: “Gipuzkereagazko interferentziak ez dozak edozelakoak. Igarten dok, bai, egileak kiputzen estiloa ezetan dauala. Txirritaren hainbat errima jarabilek, edo hobeto esan, Txirritaren denborako bertsolari kiputzena. Edozelan bere, bertso ederrak dozak. Eta baten batzuk itzelak, antologikoak. Kasutarako 5.a (*Alde batera laga neuela*) eta 20.a (*Prantziskagandik apartatuta*)”.

ALBAKO TXORITXUAK

(**Euzkadi**, 1933, 6276. zk., 8. or. Bialtzailea: Beti-Bat. Lekeitio. Oharrean dino: “Bertso honeik abestu daustez Etxebarriatar Anakeldak, 70 urtedun alarguna ta bere lobak, Etxebarriatar Kasildek eta Mirenek. Esan dauste, baita, Lekeitioko neskatila bateri aterauak dirala, orain ehun urte baino gehiago”.)

01. Albako txoritzuak
egin dau poto
egin dau poto
neuk bera nahi bai
baina berak gorroto.
Donoso
kantatuko nitukez
hiru-lau bertso.
02. Aurten udabarrian
naiz amoratu
naiz amoratu
amore txit eder bat
jat agradatu
Nor ete?
Zerutik edo baneu suerte
neu ere banengoke
sendo eta puerte.
03. Usuak beltzak dituz
hegotxu biak
hegotxu biak
zeuk, neure maite horrek
begiak biak
kristalak
Jaun zerukuak berak emanak
betiko geure jaube
bera izanak.
04. Klabelinak dituzuz
matraila-gainak
matraila-gainak
surretik beherakuak
hortzak txuriak
jazminak
zure ezpanak dira
koral gorriak.
05. Garganta eskojidia
perlaz betia
perlaz betia
nor da ez leuskizuna
borondatia,
maitia?
Ea, ba, zeu neuria izatia
guzti hori zarialako
diamantia.
06. Zeure bular arteko
hitz egitia
hitz egitia
altxaten jat bihotza
kana betian.
Donosa
eder da maiatzian larrosa
zu zer neuretzako
eder da gustosa.

07. Ez dago larrosarik
ez liriorik
zeure eskuak baizen
gauza txuririk
jazminik
Ez dau emon maiatzak
hobarik
kataiakin naukazu
hemen loturik.
08. Gerri lindia dozu
ongi egina
horregaz emon zeunstan
amore mina.
Gozua
pozik eman lezake besua
inoiz eukitjarren
zeure amets-lua.
09. Ez daukat zer esanik
ointxuakaitik
ointxuakaitik
bardinagorik ez dana
baldin badakit
munduan.
Ez neu ohi-heldu
nazan lekuan
ezpada serafin bat
zeruan.
10. Ni zugaz ikustia
damu hemen daude
hemen daude
laster hiltzen ez banaz
halan bihar.
Amore emotiarren
zeu ikusi gabe
hemetik eraman
gura nabe.



09. **Ohi-heldu nazan lekuan:** *Ohi-heldu* hau, seguruenik, *oihaldu* izango da, hau da, oihaletan dagoen lekuan edo sehaskan. Edo, beste barik, oihaletan sartu, muduratu, jaio. Orduan, “ez legoke nire bardinik munduan, oihaletan nazan lekuan, ezpada serafinik be ez zeruan”.
Munduan / Ez neu oi(h)eldu / nazan lekuan (lurrean) / ezpada serafin bat / zeruan. Baleiteke “heldu ohi nazan lekuan” izatea, beti be, lur honetan esan guran, zeruaren kontraposizinoz.

10. **Halan bihar:** halan beharrez, halabeharrez.
Hemetik: hemendik.

Sorta bitxia eta liraina benetan, neurriz, egituraz eta estiloz. Kanta baterako, ezin aproposagoa.

ALBAITERUA

(Euzkadi, 1933, 6417. zk., 8. or. "Sondikatik barriak". Egilea: Urrengo-Arte.)

01. Bertso batzuk hementxe
bihar dodaz jarri
albaiteru on baten
aldi emongarri.
02. Egia esan arte
oso nago larri
agur egin dausku, ba
oso barregarri.
03. Truzioztik honantza
egin dabe ekarri
holango ejenplorik
ez da pasau sarri.
04. Orain jentia dago
oso baina larri
pagau barik ei dauka
burdi bete txarri.
05. Egia esan bihar
Martzianotxuri
a zelako ziria
sartu deuskun geuri!
06. Martziano Sondikan
oso ibil da harro
Manutxuk hartu dautsoz
zaldi, bihor, karro.
07. Manutxu guztiz da, ba
gizon haundi zale
orain emoten ondo
Tapiaren txale.
08. Kamiruagatar Martin
ta Manutxu Llona
Martziano ez da gehiau
agertuko hona.
09. Lagun maitia izan da
Euliano Urrutikoetxea
Manuk kendu ei dautsoz
burdi ta kotxea.
10. Martzianoren lagun
izan da Norberto
inoiz ikusi ez baleu
askoz be hobeto.

01. Tabernara goizez dua
geure kaleko atsua
baitago penaz beterik.
Gero elizan danian
burua dauko airian
ta ezin egin otoiрик
Aitaren
semiaren
Ezkerraz egiten dala
nok esan dautsu, mamala?

Mozkor bat eta mozkor bi
hiru ta zortzi hamabi
zenbatzen ahaztu atso horri!

02. Jaun ona, nitzaz erruki!
Baina zer jazo jat neuri
dana badakust biraka?
Lehen torre bat zan tokian
bi jarri dabez, agian
beata hori burleka
altaretan
deunak dantzan
egiten dabez saltuak
edo itxutu nau lausuak.

Mozkor bat eta...

03. Apez jauna, zer dagizu?
Ardoz ugutzauten dozu
geure kutuntxu txikerra?
“Gloria” esan biharrez
“basua bete ardo onez”?
Bai errespontso ederra!
Edan barik
oso-osorik
nago neu, behintzat, oindino
suspiruz nago horraitino!

Mozkor bat eta...

04. Buru hau daukot galdurik!
Ur bedeinkatua barik
betor aurrekoa bera.
Orio ordeaz ardautxuak
betetu daun kurtzulutxuak
lagundu begist ohera.
Neure lagun
poz ta zorun
zahatotxu bat bego onduan
hainbat samin dot goguan!

Mozkor bat eta mozkor bi
hiru ta zortzi hamabi
zenbatzen ahaztu atso horri!



01. **Mamala:** tentela, txolina, emakumeei aplikatua.
02. **Deunak:** santuak.

03. **Ugutzau:** ugutzatu, bataiatu.
04. **Kurtzulu:** kriseilu, oriozko argiontzia.
Begist: beit, biezat.

Sorta satiriko zorrotza benetan. Neurrian, barriz, badauka grazia eta bizitasuna, eta zer esanik ez erriman, bost biko konbinatzen baitira, biko bat beste baten erdian sartzen dela. Dezimaren antza dauka beronek.

JAUNTXUEN AMURRUA

(Euzkadi, 1918, 1887. zk., 1. or. Egilea: *Tuno-Erreketa*.)

- | | |
|--|--|
| 01. Jauntxu ta jauntxutarren
buru ta besoa
neurri kordelik inok
ezarri bakoia.
Neu naz hemengo jauna
eta Jaungoikoa
eta neutarra ez dan
gizonan gaixoa! | 04. Ez dago bakaldunik
ez dago legerik
ez dago Jaungoikorik
neu baino besterik.
Neure gurari danak
ez badauz beterik
ez dago zertan hartun
ezeren usterik. |
| 02. Amurruzko adurra
daukat dariola
eta laster da jausi
ura lez odola.
Nahiz eta saldu neure
gogo, bulki, ohola
Bizkaian izango da
odol uriola. | 05. Noizko dira uriol
haize ta ekatxak?
Noizko dira edurtzak
noizko dira gatxak?
Noizko dira gizonen
arteko bekatxak?
Noizko suzko erraidun
mendi eta hatxak? |
| 03. Neureak urten ezik
betoz hasarreak
gorroto ta zemaia
eta alkar-hilteak.
Betoz ekatxak eta
eguzki erreak
hata dana galduta
hil daizan goseak. | 06. Barrabas barrabasa!
Hau dok amurrua!
Diruak ahal baiok, ba!
Madarikatua!
Bizirik eratsita
lepoko narrua
petroleoz bustita
emon gero sua. |

“AULIO” ALA BESTE BAT?

(Euzkadi, 1928, 5006. zk., 5. or. “Nere adiskide Bareño Juliri” dino paperak. Bialtzailea: Garbi-Nai. Muxikatik.)

01. Jantzi zelebren batgaz
jantzita harro-harro
nok arrano jantzi hau
holan, Kokomarro?

02. Hik dok tipo modue
atzoko *Gaceta*-n!
Holakorik ez jakok
inori pasetan!

03. “Gure korresponsala
Gernikan ‘Aulio’
esatian armau jok
makina bat lio.

04. Marrazki egilia
nahi dala bera “Mon”
ezin dotsek ezkeraz
arpeiko bat emon?

05. Olgetan jinuat ta
ez benetan hartu
bestela perrerara
eingo haue sartu.

06. Nik dakidan “Aulio”
bera dala hori?
Ni tanpoko hurrik emon
adarra jo, nori?

07. “Aulio” euskel antzez
buruen hasite
bihetz puntetaraino
dana dau josite.

08. Eta atzoko *Gaceta*-n
datorren Aulio
kitate de ai, guzurti!
Es un Don Braulio!



01. **Kokomarro:** mamutxa, mamua.
04. **Dotsek:** deusak, diok.
05. **Jinuat:** *dinot* hika maskulinoan.

06. **Hurrik emon:** hurreratu, antzik emon,
usainik hartu.
07. **Dau:** dago.

KONEJUA HIL, ERBIA DALA-TA

(Euzkadi, 1929, 5061. zk., 6. or. Egilea: *Eiztari*.)

01. Kaixo, Bizkargi-Mendi
zu be lehengo antzez
lehen jantzi zuriagaz
eta orain baltzez?
02. Lehen zinan zuri-zuri
goitik da beherantza
emoten zenduala
gotzon baten antza.
03. Iak eta zagozan
lehenauko antzera
banator, ba, zerbaitxu
zeuri esatera.
04. Zegaitik esangotsut
ba, bene-benetan
zuk bere entzungo zendun
lehengo egunetan.
05. Hemetik hurrian dan
beresi batian
pen-pen, tiro bi ziran
Gabon Zahar goizian.
06. Entzun nituzanian
tiro haundi biak
neuk be altzeu nituzan
laster hanka biak.
07. Su ondoan on arren
oinak berotuten
itxi sua ta nintzan
lasterketa baten.
08. Nire orpo-jokua
soloetan behera
ikusgarrizkua zan
beheko beresira.
09. Bertara heldutian
begira nenguan
inor agiri bazan
ehiztari moduan.
10. Begira nenguala
han hegal batetik
ehiztari bi etozan
eta biak pozik.
11. Honelan ikustian
itandu neutsien
ia zer hil ete eben
beresi ertzien.
12. Esan eusten: “Erbia
hil du ontxe hemen
eta etxera eruan
bihar du lenbailen”.
13. Esan neutsen: “Ez egik
ondino eruan
neuk be ikusi daidan
ba, zelakua dan”.
14. “Jakin gura badozu
erbi honen barri
atsaldien geurera
ein zaitez etorri”.



03. **Iak eta zagozan:** zagozenez gero, gaztelaniazko *ya que*-tik.
05. **Beresi:** txaraka, berez hazitako landaredia.
07. **On arren:** egon arren.
Itxi: itzi, utzi.
08. **Orpo-jokua:** hanka-jokua, arineketa.
12. **Hil du ontxe:** hil dogu oraintxe.
Bihar du: behar dogu.
18. **Hartzien:** hartzen.
Anken: Ankaren. **Anka** = izen berezia. *Hanka* edo *hanka egin*-etik ironiaz atarea.
Konejuena: konejuarena. Singularra.
Etsien: etxean.
19. **Bot:** badot.
20. **Ez duala:** ez dodala.
21. **Erbia'ok:** erbia dok.
32. **Jatok:** dator hiketa maskulinoan.
Jaurtiok: jaurti eiok, bota iezaiok.
33. **Itzalez:** itzalezko, itzela.
34. **Ines:** ihes.
Ez zaizen hain barik: ez zaitezen bera barik.
35. **Jozak:** dauz (ditu) hiketa maskulinoan.
37. **Jok:** dau hiketa maskulinoan.
38. **Balituk:** balira hiketa maskulinoan.
39. **Sekule-bedar:** hirusta, bedar mota gozoa.

ZAPAL-ZAPAL EGITEN

(Euzkadi, 1929, 5199. zk., 3. or. Egilea: *Eiztari*.)

Zapal-zapal egiten
dautsen arren surre
ezin jo erain dautse
bizkarragaz lurre.
Zer dautso, odoldu arren
buru nahiz musturre
etxeratu ezkeru
txapel bete urre?



Jo erain: jo eragin, joarazo.
Zer dautso: zer ardura deutso.

Uzkudunek Schmelling-en kontra galdu ebanekoa. Errezilgo boxeolari ospetsuari hamaika bertso atera izan jakon, baina, bakar bat aukeratzekotan, hauxe baino politagorik eta esanguratsuagorik apenas izango den.

GARI JOTIAK

(Euzkadi, 1930, 5517. zk., 5. or. Egilea: Eiztari.)

01. Urtian zazpigarren
beti da 'garila'
aspaldi gagoz deika
etorri dedila.
Heldu da guztiz eder
hau dok, bai, mutila
jo, garbitu ta eiho,
eginik opila
asetzeko gosiaz
daghan urdaila.
02. Jainkuak lagun, hau da
daun eguraldije
ipar haizetxo gozo
osasungarrije.
Hautsa kentzeko ekarri
ardua, Marije
zerbait labanduteko
gure eztarrije
bestelan ezin geinke
ondo jo garije.
03. Etxerik gehienetan
joteko garije
lehenengo ekarten dabe
beti edarije.
Hautsaz galdu ez daigun
geure eztarrije
ondo da edatia
ardautxu gorrije
bestela ez gabiz ondo
sikuan, Marije!
04. Badaukat, mutiltxuak
etxian ardua
zueri kentzeko lain
hauts enbarazua.
Baina oldozmenetan
daukot gaur burua
zuei emon ezkeru
ardautxo nahikua
ez dozuela amaituko
gaur nire solua.
05. Esatia be hori
eit'ozu haundije
guk daukuna ikusita
gaur gorputzaldije.
Ez al dakizu, ba, zuk
horrelan, Marije
alperrik galduku'na
osasan guztijje
ekarten ez badozu
nahikua edarije?

07. Zapatu baten lagun askogaz
doaz goizean goizetik
neska guztiak andrageiagaz
isildu barik aurretik
eta mutilak senargeiagaz
zantzoka nesken atzetik.
08. Ezkongei biak egoten dira
abadearen aurrean
lotsaz beterik, baina neskea
begi biakaz lurrean
eta esateko gero baietza
ez dauko mihinik hurrean.
09. Egon ezkerro baserrietan
ezteguetan ogia
gatz bako okela eta ardao baltz
eta txakolin gorria
ezteguakoak egoten dira
itxi ezinik zoria.
10. Ahaide bakotzak aginduten dau
garia edo artoa
ezkonbarriak bizi daitezcan
beti dabela Pazkoa
ogia jaten edo berorik
sutan erreko taloa.



01. **Temea:** tema, pentsamendu finkoa, seta.
Hortik, *temoso*, bere asmoa
derrigor aurrera atera behar dauena.
03. **Lagunanera:** lagunaren era, lagunaren
etxera.
05. **Deiak:** ezkondu aurreko hiru
domekatan, abadeak elizatik egiten
zituen ezkon iragarpenak.
08. **Hurrean:** gertuan, hurbilean. Edo,
hainbaten, antza denez, nonbait.
Kontestu honetan, bata zein bestea izan
leiteke.
09. **Itxi ezinik zoria:** utzi ezinik subertea,
amaitu ezinik hain egun ona.
10. **Erreko:** erretako, erreriko.

Ohitura zaharren gaurkotze asmoan, *Euskal ezkontza* antzeztea edo berre-
gitea zabalduz doala, bertso honeek ez letorkez txarto, ospakizunaren him-
notzat edo. Politak, argiak eta ironia puntutxoak daukienak dira.

ABELGORRIAK BIZKOR

(Euzkadi, 1929, 5317. zk., 5. or. Egilea: *Basoluzeko erbi nabarra.*)

- | | |
|---|--|
| 01. Abelgorriak bizkor
gizonak bizkorrau
laister dok, ba, astindu
Mendatako lur hau. | 04. Nahiko lanik dago, ba
erroiok kentzien
lan gitxiau eukogu
artoak batzien. |
| 02. Erroiak hasi dire
solara etorten
batu barik dagozan
artoak batuten. | 05. Solo batian altzeu
badoaz bestera
etxeko gizonari
logurak kentzera. |
| 03. Batetik koak eta
bestetik karraska
hor dator, ba, gizona
etxetik barrabaska. | |



- | | |
|--|--|
| 01. Bizkorrau: bizkorrago. | 04. Kentzien, batzien: kentzen, batzen. |
| 02. Erroi: belea. | Eukogu: eukiko dogu. |
| 03. Barrabaska: barrabasak edo
maldezinoak botatzen. | 05. Altzeu: jagi, hegazkada jaso. |

Erroiek edo beleek arto sasoian emoten daben buruhaustea labur eta grazioso kontetan dau koplak sortatxo honek. Artoa gitxitu da, erroia ugaritu; artorik dagoen lekuan, arazoak ez ziren urrituko.

PADURA

(Euzkadi, 1931, 5817. zk., 6. or. Bertso sortak ez dakar ez egile, ez bialtzaile izenik.)

01. Gelako bazter ilun
baten itoxura
malkoa lez tantoka
handik jausten ura.
Ni ogean sorginak
ninduen ingura
irudirik baltzenak
ekarten burura.
02. Gazteluzarren norbait
gaztainak erretan
gabeko bederatz
edo hamarretan.
Zirrin-zarran ta geld
une batzuetan
orduana isilkiro
norbaitzuk hizketan.
03. Zirrin-zarran ta geld
laratzen eskegi
isilune horretan
ezer entzun legi?
Nik neuk ezin dot entzun
ez guzur, ez egi
hizketa darabile
haek isilegi.
04. Zirrin-zarran oster
ia gaztainak tiro
oraintxe bai dinoo
argi ta biziro:
“Arerioa hemen
sar jakuk barriro
eta bazter guztiak
itxi honen txiro.
05. Hemengo gauzez bete
gura jok sakela
ezin dok-eta bizi
lapurroi bestela.
Baina behin ataturko
jautsoguk sabela
hemen ez dok biziko
ezela-ezela.
06. Egunen baten jagi
guztiok orruka
ta ezpata zorrotzez
hasiko burruka.
Arerioak gero
birrintu ta buka
horretaxe beharko
malko honek txuka.
07. Kua, kua ta kua
zarata goibela
zarata hori jagok
eskatzen okela.
Horixe dok goseti
jatorkuan bela
edo izen bereziak
hor beheko Gaztela.
08. Kua, kua ta kua
zeozeren bila
ikusit egik arin
jagirik, mutila
ia zabalik dagon
hango lehiatila
belatzar lapur hori
sartu ez dedila.

09. Kua, kua ta kua
ez egin amairik
badaukak oraindino
nahikoa etsairik.
Euskal Herrian badok
txuntxurra garairik
eta txuntxur hoetan
arrano ta sairik”.
10. Kua, kua ta kua
leihatilan bela
izugarrizkoa da
beraren txekela.
Sutako tresnea be
ez dago epela
su gainean biraka
gorrien itzela.
11. Berehala biziro
goratu da sua
norbaitek higitu dau
ezpat dizditsua.
Mendian izugarri
adarren soinua
hil edo ez nagien
hemendik banua.
12. Iskanbila danori
buruan neroian
iskanbila danori
bidean da ohian.
Tanbolina ta sua
adarren orroia
kua, kua ta kua
ager zan erroia.
13. Hurrengo egunean
nitzan ikusgura
oso aitzurik edo
gabazko estura.
Ta hilez beterik zegoen
beterik itxura
hilez zegoan bete
zegoan Padura.



02. **Erretan:** erretzen.
03. **Entzun legi:** entzun lei, leiteke.
05. **Jok, dok, jautsoguk:** *dau, da, dautsogu*
hiketa maskulinoan.
Lapurroi: lapur hori.
Atatuko: *ataratuko, atarako* izan
leiteke.
Ezela: ezelan, inola.
06. **Horretaxe:** horretaraxe, horrelaxe.
07. **Jagok, jatorkuan:** *dago, jatorku*
hiketa maskulinoan.
09. **Txuntxur:** tontor.
10. **Txekela:** marmario mota bat,
txorrotxioa baino sendoagoa,
txekel-txekel-txekel eginez.
Gorrien: gorritasun, berotasun.
13. **Aitzurik:** ahazturik.

Amesgatx edo bildur handi baten bertsook indar eta espresino handikoak dira. Bertso politikoak, izu-alegi legez garatuak. Nahikoa hizkera herritarra erabili arren, bertso kultuak dira, duda barik, darabilzen figurak, errepikak, berba formak (*ezpat, sar jakon...*) eta estilo orokorra ikusirik. Halan be, argiak dira, ulertzeko zailtasunik bakoak. Itogin-malkoen, gaztaina-danbolinaren, erroiaren, suaren... iragarpen bildurgarri guztiak, azkenengo bertsoan, amesgatxa amaitu zelakoan, ikuspen erdiragarrian amaitzen dira. Teknikaz, barriz, errimaz batez be, sorta honek onenei ez deutse zorrik.

KARLISTAK BADAUKIE

(Alfonso Irigoienen funtseko paper anonimoa.)

01. Karlistak badaukie
mendian indarrik
ez gara geratuko
Karlos imin barik.

02. Don Karlosek emon dau
Errege-berbia
jabon gura leukela
Kristoren fedia.

03. Aitarren, seme, hartu
atxur eta pala
Errege Madridera
etorriko bada.

04. Don Karlosek ei dauko
ezpata zorrotza
tronutik kenduteko
Amadeo motza.

05. Amadeok baditu
pezeta bikuak
Don Karlosek bere bai
boluntariuak.

06. Biba Don Karlos eta
adios, liberalak!
Fedian firme dagoz
gure jeneralak.

07. Karlosek esan ei dau
Begoña ganian
Bilbon sartuko dala
kaballo ganian.

08. Biba Don Karlos eta
Doña Margarita!
Españan iminteko
pareja polita.

09. San Jose atsaldeko
hiru ta erdietan
Txintxillas larri dabil
Gernika ibarretan.
10. Mañariko atakan
laprast einda jausi
liberalak azpira
karlistak nagusi.
11. Bilbaoko baltzak barruan dira
Ate-bentanak itxirik
.....????



01. **Imin barik:** imini, ipini barik.
02. **Jabon:** jagon, zaindu.
03. **Aitarren:** aitagaitik.
09. **Txintxillas:** garaiko izen edo ezizenen bat.
11. Belarriak beste bertso edo koplaren batekotzat emoten deustan ahapaldi hau amaitu barik dago. Neurrian be ezbardina, ezaguntzat emoten den lelo bat dirudi.

ARGINSOLESEK

(Alfonso Irigoienen funtseko paper bat. Izenburutzat dino: “*Karlisten bigarren gerra ostian, Amоротoko andratxu batek atara eta abestuiak*”. Eta azkenean: “*Bere burua mozkor eginda ibiltzen ei zan atsotxu hau*”.)

01. Arginsolesek egin ei deutse
bizkaitarrari tranpie
horregaitikan entregau eben
gure mutilek armie.
02. Merezi leuke kokotetikan
hiru balazo emotie
bestien eskarmentutzat
ez egitade mentien (sic).
03. Horrek baditu beste batzuk be
Allendes edo Mallendes
eurok guztiok alkar hartunde
bestiok ipini aldrebes.
04. Kanta-kantari baninarduen
bai Gernikako kalian
etorri jatan goardazibil bat
hartu nenduan aurrian.

05. Bai eta sartu kartzelan bere eskarmentuko ustian baina han bere ez ni isildu neuriak kantau artian.
06. “Ni kartzelan euki eta be ez daukazu probetxurik kartzelajie pagatutzeko ez jat sobretan dirurik.
07. Nik batzein'txudan kuarto xamarrak trabenarako beti nik mundu honetan ez dau ni baino atsotxu mozkorragorik”.



02. **Ez egitade mentien:** paperean honela datorren honek ez dauka zentzunik. Joseba Santxok dino: “Egia esan, ez dok bapere ondo ulertzen, baina esplikazino bat topatu leio, grafia apurtxu bat egokitu ezkerro: *Ez egita (eginda > eginta > egita) dementien. Edo Ez egite (ekintza) dementien.* Atxinako erdal testuren baten inoz ikusten izan joat *mente* hori bereiz idatzita, beste berba bat balitzok lez. Hortik ete jatorrek nahastea?”.
03. **Hartunde:** hartuta.
06. **Kartzelajie:** kartzelajea. Berba bitxia, kartzelaldia esateko.
- Sobretan:** sobratzen.
07. **Batzein'txudan:** batzen ditudan.
- Kuarto xamarrak:** diru txikiak.
- Ez dau:** ez dago.

PARAJE BATEN ZIRAN

(Alfontso Irigoienent funtseko paper anonimoa.)

01. Paraje baten ziran senar-emazte bi bata zan Baldomero bestea Antoni. Haren pasadisuak esateko garbi Santiago patroia egidazu argi.
02. Egun batian ziran alkarregaz jarri kantetako asmuhan bertso bat edo bi. Andria ona zana gizonak igarri polito laguntzen eutsen biak alkarreri.

03. “Andria, ezin jan dot
makailau erria
zelan pasauko dot nik
neure denporia?
Ekarten ez badozu
beste bat hobia
sarritan biharko dot
atzeko tapia”.

04. “Gizona, izan zaitez
fin eta noblia
mundu hau pasatzeko
hau dogu hobia.
Ezin jan egin bozu
makailau erria
ekarriko dizut nik
beste bat hobia”.

04. “Gizona, izan zaitez
fin eta noblia
mundu hau pasatzeko
hau dogu hobia.
Ezin jan egin bozu
makailau erria
ekarriko dizut nik
beste bat hobia”.

05. Antoni, zu ez zara
burutik zorua
ahaleginez topetan
jateko gozua.
.....
.....



01. **Haren:** hareen, haien.

03. **Atzeko tapia:** estalkia. *Beheranzkoari eusteko, esan gura dau.*

04. **Bozu:** badozu.

Bertso sorta hau, senar-emazte biren pasadizoak garbi esatea iragartzen dauena, argi dago, jatorrian, askoz luzeagoa izango zena.

PRANTZISKA LARRINAGA

(Alfonso Irigoienen funtsa. Paperak dino: “Orain 65 urte inguru, Morga deritzon herritxuan, Frantziska Larrinagari zuzenduak. Martzelino Urkiaga 88 urtedunak abestuten dauz eta beronek gaztia zala ikasiak dirala dino”).)

01. Bertso berri batzuek
nahi neuskioz jarri
Morga-Etxebarriko
dama gaztiari.
Motiboa emon deust
hontako neuri
bublikatzera noa
herririk herri.
02. Nobedadiak dire
Morga aldetikan
urte bertan ezkontza
dogu traturikan.
Sekula hartu gabe
esperantzarikan
etortzen horrelango
errekadurikan.
03. Kontuan jarri zaitez
Prantziska maitia
hori ez dala bentanan
kopletan eotia.
Kanpoan hotz dagonian
idigi atia
Silbestrentzat izan da
sarri suertia.
04. Beti gustora danik
ez ohi da munduan
neuri hau suertatzen
askoren moduan.
Ibili bazinien
bihar dan moduan
bestelako bizitza
izango zenduan.
05. Prantziska Larrinaga
har zazu goguen
ezkontzako berbie
nun emon zenduen.
Jakingozu pekatu
nun egin genduen
.....
06. Engainaturik zabiltz
mundu zoroakin
bapere akordeu barik
Jaungoikuarekin.
Bateri hitz emon da
tratau bestiakin
fiau ezin lei oingo
neska gaztiakin.
07. San Emeterietan
gabeko hamarretan
bentanan egon ginan
zorakerietan.
Alderik egin barik
hiru ta erdietan
traturik ez daukana
ez dabil horretan.
08. Morga-Etxebarriko
damatxu gaztie
nogaz uste al dozu
orain ezkontzie?
Zeuk izan badozu
lehengoa galtzie
orain biharko dozu
neure lizentzie.

09. Diabruen bizitza
ta hori bardinak
borratzen dituela
lehen hitz eginak.
Ezin leizuz urratu
Satanasen grinak
alper egingo dozuz
orain ahaleginak.

10. Eleizatik etxera
joan nintzarian
Prantziska Larrinaga
bilatu bidian.
Berbetan jarri ginan
formalidadian
gauzak disponidutzen
ezkontzan ganian.

11. Etxera nahiz kanpora
zala konformatzen
nola atrebidu zinan
ezetza botatzen?
Zenbatak igualak
aurrie eta atzie
hori dala pertsonak
engainatutzie.

12. Ez dizut desiatzen
gaizki ikustie
amodiozkoa da
neure izatie.
Adios, Larrinaga
hurrengora artien
balio zaitez ondo
zeure suertien.

13. Beste bertso bategaz
horra despedida
Prantziska, zuretzako
nahikoako dira.
Jakitun paratzeko
ipiniak dira
ikasi nahi dituenak
guzurrak eztira.



03. **Idigi:** edegi, zabaldu.

09. **Ezin leizuz:** ezin lekikezuz, ezin lekizkizuke.

13. **Nahikoako dira:** nahikoa izango dira.

PEDRO ARANO DAUKAT

(Alfonso Irigoienen funtseko papera. Sarreran dino: “Alejandra Zubizarretak, 89 urte, bere jaioterri Amoroton bere aita zanagandik ikasiak, orain urte asko dirala”.)

01. Pedro Arano daukat
neronen izena
Antonia Alzola
zedorrek dezuna.
02. Neronek egin nizun
kartia lehenbizi
nerekin ezkondata
nahi al zendun bizi.
03. Zuk baietz agintzeko
kunplimentu gitxi
lau urtian euki ta
azkenian utzi.
04. Neronek esan nizun
pasadizu dana
kinta kontuan ere
nola neukan plana.
05. Zedorrek esan zidazun:
“Atoz neregana!
Gurian ez da falta
zuk bihar dezuna”.
06. Zortzi mila errial
kinta pagatzeko
amak agindu zituan
bertan prestatzeko.
07. Diru eder horiek
agindurik ziran
Solarten bilatutzen
erezak ez ziran.
08. Lau mila Natxituan
ateriak ziran
beste lauren bat mila
nunbait izan ziran.
09. Bilbora joan nintzan
denpora batera
zerbait irabaztera
denpora zanian.
10. Ama bialdu zuten
nerau ikustera
gero alaba zuten
bialdu neugana.
11. Ezkonduteko hartu
bihar zala plana
esan zidan: “Nere
ilargi laztana”.
12. Jan da edan egin zuen
neronen boltsatik
nahi horrek emon ez
neroni eskerrik.

13. Bilbotik Natxitura
kotxe eder batian
kontu asko esanez
alkarren artian.
14. Zedorrek esan zidan
neroni aurrian:
“Maitiagorik ez det
nere bihotzian”.
15. Hilaren hamaseian
Santa Eufemia zan
Bilbotik Natxitura
pozik joan nintzan.
16. Erromerietara
joateko esperantzian
dama harekin joateko
lizentzirik etzan.
17. Bezperan joan nintzan
dama horren etxera
libertadia ama
horri eskatzera.
18. Errespuesta laster
genduan atzera:
“Nire alabarekin
joango etzera”.
19. Bera egoten zan
etxeko alaba
suaren ondian
pasatzeko gaba.
20. Gero preguntia
amak alabari:
“Nor egon da hemen,
Josepa Antoni?”.
21. “Pedro izan da, ama
ez esan inori
kanpian jakiterik
ez jako komeni”.
22. Neure nobijia zan
Antonia Alzola
abanikuarekin
gozaten ez zana.

Kopla legez idatzita datozen honeek, ia seguru, jatorriz, bikoak barik, zor-
tziko txikiak izan zirena. Sorta polita izango zen itxura dauka, baina argi
dago oso bertsinu deformatua dela. Tamalgarria.

ANTON GANBELUETA

(Alfonso Irigoienen funtsa)

01. Anton Ganbelueta
Braulia Iñasi,
bizimodua degu
nahi adierazi.
Eskaturik grazia
Jaunari lenbizi
gure inbidietan
ez dein inor bizi.

02. Zazpi egun justuak
ohi ditu astiak
batzuek bijiliak
barauak bestiak.
Honelan tratatzen nau
neure emaztiak
oso tximurtu zaidaz
tripako estiak.

03. Goizero bihar ditu
bost edo sei kopa
ardau naparrarekin
baratxuri zopa.
Gauza onak dizkio
gorputzari opa
baina gizonarentzat
guzurra ta kopla.

04. Ekarri bihar neuke
kintalez linue
ondo probetxetako
neure andra gaixue.
Auzuan salduko balitz
ardautxu gozue
agur neure mataza
eta amukue.



02. **Zaidaz:** *jataz-zaizkit* aditzen nahastea.

03. **Kopla:** berba hau bizkaieraz asko erabiltzen da eta berba labana, engainakorra, zurikeria, atxakia, benetakoa ez dena esan gura dau.

04. **Mataza:** harila, hariagaz egiten den bola.

Amuko: iztupa, liho mota latza.

Sortatxo dotore honek berez luzeagoa izango zen antza dauka, baina, bere laburrean, badauka zorroztasun xalo bat, kanta baterako, aproposa litzatekeena. Lastima da, zenbait unetan, euskalki biren nahaste hori, baina, Bizkaiko bertsolaritzan, hori akats ohikoa da. Jatorrizko testua garbia izan arren, iturriak aldatuz joaten dira, beti be gipuzkeraren alderantz.

JOSEPA LAKABEKO

(Alfonso Irigoienen funtsa. Oharrean dino: "Alejandra Zubizarreta eta Arostegi, Amoroton (Bizkaian) jaiok eta gaur 89 urte dituzanak abestu dauz aldra bi honeik, eta, bera neskato-txua zala, bere aitagandik ikasiak dirala dino". Aldra biak hau eta aurreko Anton Ganbelueta dira.)

01. Mari Josepa Lakabeko
baratzeko lorie
oraintxe noie esaten
zeure bentajie.

02. Dan hori zara baltza
ezpana lodije
horra klaru esanda
bentaja guztije.

03. Goietara zara panpoxa
behietara baldrasa
Amoroton ikusi det
Lakako neskatxa.

04. Abarkiaren zopitan
alkondara iduna
iluntzian gura eban
etxerako laguna.

05. San Antonio egunien
merijendarako
hamairu mutil gazte
ditu etorteko.

06. Beste lau andrazkogaz
horra hamazazpi
merijendie ostu deutsie
erlontzi batetik.

07. Lau libra ziran urdaiak
beste sei ogiak
horra zazpi txorixo
nekez ekarriak.

08. Hogeita bi arrautza
tortillia eiteko
ez zan merijenda hori
edozeinentzako.



03. **Baldras:** narrasa, zaskila.

04. **Zopita:** abarka konpontzeko txatala,
ipinkia.

Idun: sama buelta, lepoa. Abarkaren
zopita alkondara idunez eginda
dabilela esan gura da.

Kopla sorta hau, jatorriz be, bikoak zirela esan daiteke, nahiz eta, seguruenik, deformazino handi samarrak dagozen. Harritzekoa be ez da, 89 urteko andre baten buruan. Josepa Lakabeko hau ez zen edonor. Alde batetik, satira zorrotza da, baina, bestetik, ez zeukan jentea inguratzeko gaitasun makala. *Matxalen Busturiko* bat, bertsino brutoagoan.

AI HERIOTZEAREN

(Alfonso Irigoienen funtsa. “*Adiskide batek damoskuz, nunbaiten ikasiak dirala-ta. Ez daki noiz eta nork eginak direan*”.)

- | | |
|--|--|
| <p>01. Ai heriotzearen
izenaren baltza
ez dabela ezagutzen
pobre ez aberatsa.
Instante triste hartan
hartzen jok mudantza
begiratu nun dagon
lehenagoko antza.</p> | <p>03. Badaroie eleizara
lau lagunek andan
senide batzuek be
atzetiko bandan.
Kantu batzuk eginda
itxiten dabe han
gero haren ahaidiak
dagoz jan da edan.</p> |
| <p>02. Senblante palidua
arpegia hotza
harek tristetu leio
gizonari bihotza.
Lehengo balientiak
ez balio dautsa
denpora gitxi barru
izan bihar hautsa.</p> | <p>04. Munduko denporia
guztiz dogu labur
ehun urte barru danok
egin bihar agur.
Gorputz hilak sartzen'txuez
lurraren barrure
arimie salbau ezkeru
ez dautso ardure.</p> |

05. Hil arte baina munduan
bihar dogu bizi
Jainkuak emongosku
zer dogun merezi.
Zerua geugan daukagu
nahi bogu irabazi
salbazinua ezin lei
diruaz erosi.

06. Ezin gara konpondu
alkarregaz lurrien
heriotzea barriz
daukagu hurrien.
Egunoro bihar geunke
egon bildurrien
ze kontu emongo'gun
Jaunaren aurrien.

07. Osasuna dozula-ta
ez zaitez harrotu
San Martin handiari
sari erregutu.
Konfesio barik heriotza
ez dakigula agertu
bestela gauza horrek
ein leike bildurtu.

08. Gorputz eta arima
hemen eiten da lur
Jaunaren tribunalian
izango zara bildur
gorputzak arimiari
egin daion agur
gorputzaren destinua
izanikan labur.



01. **Jok:** *dau* hiketa maskulinoan.
02. **Tristetu leio:** tristetu leikio, liezaioke.
03. **Anda:** hage bigaz egiten den
eroangailua. Gorpuk eroatekoa.
Banda: aldea, hegala.

04. **Sartzen'txuez:** sartzen ditue.
05. **Emongosku:** emongo deusku.
Nahi bogu: nahi badogu.
06. **Emongogun:** emongo dogun.

Bertsinoaren oker batzuk somatzen dira, baina, halan be, testu argia eta indartsua da, fede baten oinarria suposatuz gero. Laugarren ahapaldian, ahapaldi ezbardin biren zatiak nahasten direla ziurtzat jo leiteke.

GALAI BAT ETORRI ZAN

(Alfonso Irigoienen funtsa)

01. Galai bat etorri zan
larri eta estu
oiharen bazterrian
egiteko leku.
Zirri eta mosu
traje baten neurria
bihar gendula hartu.
02. Lelengo onian eta
gero gogorrian
neurtu bihar gendula
luze-laburrian.
Oiharen aurrian
orainelaz jo neban
kopeta hazurrian.
03. Handikan galdu ez zein
egin nion kura
etxian zan botikaz
gatza eta ura.
Joxe Bentura
zetan etorri zinan
nire komentura?
04. Kapiaren azpitik
sartzen dau eskua
gaixorik egoala-ta
hartzeko pultsua.
Siempre txotxua
Luziferren aldeko
aingeru gaiztua.
05. Egin banion ere
zirri eta mirri
neure kopeta hazurraz
pagaturik ongi
Joxepantoni
jornalak hartu eta
etxera nua ni.



03. **Ez zein:** ez zedin.
04. **Txotxo:** ume txikia. Baita mutikoa be.
Nagusiari *txo*, mutikoari *txotxo*
esaten jako. **Beti txotxo** = sekula
gizontzen ez dena.

Bertso sorta txokantea eta misteriosoa hauxe. Frailea da etxeren batera doana ala prakadun bat moja komentura, fraile jantzita? Lehenengo bertsoko *traje baten neurri* hori inpaktantea da. Gertakariaren haria argi bereiztu ezinak (beharbada, zatiak faltako dira) ez dakit emoitzari xarma handiagoa emoten ez deutsan. Joseba Santxok honako iruzkina bialdu deust:

“Egundoko poza emon jostek bertso-sorten artean hautxe topateak. Baneukan, ba, behinola Josu Landetak neure andrearen aitite Karloseri koxiko bertso honeen bertsinu osatu bat ikusteko ganea! Pentsetan joat gure bersinoaren kopia bat emon neuala. Baina ostantzean bere, tira. Etxekok lebarik, gurea askozaz bere eskasagoa eta lorrinagoa dok eta. Gure bersinoan, hori bai, gure inguruko euskalkiaren aztarna gehiago jagok: jo nenduan, ez etorri gehiautan, kokota hazurrian... baina emoten jok bersino hau lehelauroa dala: neurria eta errimak zehatz errespetatuta jagozak. Esangurea dala eta, hona hemen neure ustea:

Nik pentsaten joat jostundegi bateko burua edo arduraduna (edonori ez eutsen-eta komentu barrura sartzen itziko) joan jakola komentu bateko moja-buruari (mojak burua izan behar jok: berak hartu, berak jo, berak egin kura... askatasun lar edozein moja izateko). Baina neure ustean, galai hori (itxura onekoa izango zoan, aiez) gustatu egiten jakoa gure moja-buruari: tardatu eban orainelaz jotzen, kura egin eutson... baina hori garbien 4. bertsoan ikusten dok: eskua kapiaren azpian sartzen deutsola jinok, baina ez dok ikusten moja-buruak traba handirik iminten deutsonik. Nahikotuten dok gero *Luziferren aldeko Aingeru gaiztua* esanaz. Ganera, *siempre txo-txua* horretan kariño apur bat bere badekotsola ikusten dok. Halandaze, mojarren buruan barne-burrukea dagoala pentsa leik: gura jok, baina ezin jok. Akabuko bertsoa traje-egileak botaten jotsok Joxepantoni izeneko serorari, eta hagaitik jinotsok jornalak hartu eta badoala. Ironia bere baja-gok hor, orainelkadea bere sartzen dok eta jornalaren barruan”.

BIZKARGIKO AZERIA

(Laudioko Bizkarrek eskuratua.)

- | | |
|--|--|
| 01. Azeri bat bizi zan
Bizkargi mendian
okerragorik ez zan
Bizkaia guztian. | 06. – Ekarrik dok damurik?
Jango dok oilarrik?
– Ez, jauna, ez dot eingo
gaurtik gauza txarrik. |
| 02. Batean ardia ta
oilarra bestean
beti eukan janari
gozoa etxean. | 07. Esaten dagoala
gero <i>konfiteor</i>
oilar batek joten dau
kukurruku gogor. |
| 03. Urteak pasa ziren
azeriarentzat
ta inpernuko zigorra
seguru beretzat. | 08. – Ene Jauna! –dinotso
Ibili bei bizkor!
– Zer dok, azeritxoa?
– Zera... oilarra hor! |
| 04. Garizuma dala ta
misinoak datoz
azeria be han da
autortzeko asmoz. | 09. Azeriak azeri
ta kontuak kontu
azeri kontu hori
egi hutsa dozu. |
- 0.5 Berakatzaz begiak
bete ditu malkoz
ta kaputxino bati
danak esan dautsoz.



- | | |
|--|--|
| 04. Misinoak: garizuma barruan, jarraiko
egunetan egiten ziren sermoi
bereziak, gehienez, aste osokoak,
damura eta penitentziara dei eginez. | 07. Konfiteor: <i>autortzen dot</i> , latinez.
Pekatuen parkamenerako otoitza. |
|--|--|

Azeriaren konfesino hau elegantea eta ironikoa da benetan. Azkena ondorio irakasgarri batera eroateko ipuin-genero hau oso maitea izan da, Bizkaiko idazleen artean. Testu honek orain leukeen eragozpen nagusia konfesinoa eta, horren barruan, *misinoak* zer diren jabetzea litzateke, baina erru hori ezingo deusagu bertsolariari egotzi.

SAN PEDROREN KANTIA

(Bermeoko “San Pedro” arrantzale kofradiak 1959ko jaien programan atera ebana, euren zaindariaren omenez.)

01. San Pedro zeruetako
giltzaren jaubea
zeurea txalupea
neurea sarea.

03. Jagi zaitez, gizonak
sareatarako
astean launa marai
zeuei emoteko.

02. Gora, gora doa
San Pedrotxo
ha baino gorago doa
gure Jaungoikoa.



03. **Jagi zaitez:** zuek subjektuaren forma zaharra.
Marai: diru zahar bat, marabedia.

Agur Intxorta maite

Gerrako bertsoz osaturiko Joseba Tapiaren izen horretako diskoan, lau kanta datoz bizkaierazko testuekin. Hemen, iturri horretatik emongo doguz, nahiz eta grafia eta ortografia geure erizpidearen arabera aplikatu.

LABAN DAUKAGU OPILE

(Utarre, 1937-II. *Agur Intxorta maite*, Joseba Tapia. Diskoak, kanta honen sarreran, dino: "Utarre, garaiko ezizenen arabera, U'tar E. izanen zen. Ezin izan dugu jakin nor den. Gudan paper garrantzitsua izan zuten salatariiek. Jende asko galdu zen horrela, auzoak edo herriko-
ren batek txibatazioa emanda, faxistak sartu zirenean")

01. Estuntza txarrik ezautu bada
sekula Euskal Herrian
oraintxe gagoz estu benetan
itsaso biren erdian.
Kanpotik daukuz areriuak
baita etxe barrenian
geuri burua hausteko gertu
usterik gitxienian
haugaitik gagoz sarri isilik
hitz ein bihar geunkenian.
02. Batzuentzako min handia da
gure gauzak ikustia
itxura danez, gure gauz ona
eurentzako da kaltia.
Noizik behin jaurti harrikada bat
ta eskuak gordetia
erakusten dau dabiliena
guzurra eta nahastia
usterik bako egunen baten
agertuko da guztia.
03. Soin asko dagoz lutuz jantziak
begi askotan negarra
baina ez ahaztu Larrazabalgo
Aita Sabinen diadarra.
Seme leialok gertuak gagoz
zaintzeko geure Ama zaharra
alperrik dagoz Alemania
Portugal eta Italiarra
geu hil ezian ez da galduko
Euskal Herriko indarra.
04. Gora euskotar abertzaliak
gudari ta eusko langile
inor ez dua, geu ez bagara,
gutzat gauz onaren bile.
Begiak argi, adina garbi
mingaina isil-isile
garaian gagoz erakusteko
zein dan ehiztari abile.
Zutik, guztiok, inork jan barik
laban daukagun opile!



01. **Estuntza:** estura, estuasun, larritasun.
Daukuz: daukaguz.
02. **Dabiliena:** darabilena, darabiltela.

04. **Adina:** adimena.
Laban: labean.

Utarre ezizena, ia seguru, sail honetako izendunetan luze aurkezten dogun Dimako Esteban Uriarte bertsolari famatua da, gero Bermeon bizi izan zena. *Utarre* hau “U tar E” da, Uriarte’tar Esteban. Bertsolariak, bere izen-abizenak ezkutatu gura zituenean, ezizen horixe erabiltzen eban, “Arratiako txori txikia” eta “Bermeoko urretxindorra” ezizenekin batera.

FORURIATAR JON KORTEZUBITARRA

(*Gora-Beti*, 1937-I. *Agur Intxorta maite*, Joseba Tapia. Kantaren sarreran, diskoak dino: “*Ez dugu jakiterik izan Gora-Beti nor den, ezta kopla hauetan kontatzen duena zinez gertatu zen ala fikzioa baliatu zuen, eredugarri bat erakusteko*”).)

- | | |
|---|---|
| 01. Bihotzez maite zaudan
ene Kortezubi
zorionak emoten
hemen natortzu ni. | 05. Ene herritar zintzo
Foruriatar Jon
gaztetxutan juanda
Amerikan zegon. |
| 02. Urte zaharra amaitu da
barria etorri
zorionian betor:
Gora Urte Barri! | 06. Baina Euzkadi gudan
dala entzutian
Jon honuntz etorri da
bidiak betian. |
| 03. Basuri maite hontan
arriskutik urrun
nasai bizi gara gu
nasai ta zorundun. | 07. Ta paxisten menpetik
askatutiarren
guda oineratuta
su ta gar pozarren |
| 04. Baina gure anaiak
han guda oinetan
guda ta guda dabiz
egun guztietan. | 08. Dabil Jon mutil zuhurra
joranez sutoska
paxistak jaurtiarren
koldarrez igeska. |

09. Amerikan gentzatsu
bizi zan mutila
guda oinian dabil
askatasun bila.

11. Gora, bada, Jon zintzo
Kortezubitarra!
Gora Jaungoikua ta
gora Lagi zaharra!

10. Foruriatar Jonen
jeltzaletasuna
eredutzat hartzeko
lako zintzua da.



01. **Zaudan:** zaitudan.

03. **Basuri:** baso-uri, baserrialdea.

07. **Guda oineratuta:** gudaren oineraino
joanda.

08. **Joran:** lehia, irrika, gogo bizia.

Sutoska: su-hoska, suzko hotsak
ateratzen, suzko armekin gudan.

Jaurtiarren: jaurtziarren,
jaurtitzearren, botatzeagaitik.

09. **Gentza:** bakea. Beraz, bakean, baketsu.

Zazpigarren eta zortzigarren koplak, gramatikalki, ahapaldi bakarrean doaz. Horrek, bikoetan idatzita, txarto emoten dau, baina bertsook, seguruenik, egilearen buruan, ez dira biko koplak, bizkaieran hain tradizino handia zeukien *zortzikoak* baino. Neurri hau gaurko zortziko txikia lakoa litzateke, baina lehenengo bikoia era batera eta bigarrena bestera errimaturik.

BERUN KONPITAK

(J. M. Garate. 1937. *Agur Intxorta maite*, Joseba Tapia. Kantaren sarreran dino: “*Hauek ere kanturako eginiko koplak ditugu, gudarien lana goratuz. Ironiaz beteriko kantu honen autorea J. M. Garate, Eusko Gudariak idatzi zuen Jose Maria Garate bera ote da?*”).

01. Kalamenditik Milluin
Osolon zihar Eizmendi
eusko mutilak herri-min
jagoten Ama Euskadi.
02. Guda-lubanen ostetik
erreketeai irrintzi
berun konpitak jaurtiaz
gura badabez iruntsi.
03. Begiak zorrotz, eskier
erpin iskiluz batera
berun pipitak mairua
bialdu daian lotara.
04. Gorrotorikan ez, arren!
Berun aleak maiteki
ahalik zuzenen bialdu
gaizkatzearren Euzkadi.
05. Zuek zarie mutilek
Urtzik maiteki eginek
falangiste ta mairuai
erakusteko haginek.

101

01. **Kalamendi, Millui, Osolo, Eizmendi:**
Berriatuko gain-lerro bateko
leku-izenak, Millui edo Milloi
mendatetik ezker-eskuman:
Eizmendi-Milloi-Osolo-Kalamendi, hau
ia itsaso gainean.
02. **Luban:** lugain, lurgain, lurrezko hesia.
Baita lubakia be.
Berun konpitak: berunezko konfiteak,
gozokiak.
03. **Eskier:** seguru.
Erpin iskiluz batera: puntadun
armagaz batera, hots, apuntatzen.
04. **Gaizkatzearren:** salbatzearren,
salbatzeagaitik.

EUSKO GUDARIAK

(Jose Maria Garate / Alejandro Lizaso / Basilio Pujana. Agur Intxorta maite, Joseba Tapia. Kantaren sarreran, dino: *“Jose Luis Ansorena musikologoak dioenez, Eusko Gudariak kantuko doinua aspaldikoa da. Azkuek jaso zuen Aramaion Atzo Bilbon nengoen izenarekin, eta Bilintxen Mando baten gainian ere abestu izan da doinu horretan. Bilboko Euzko Gaztedi elkarte abertzalekoek txango bat antolatu zuten Aralarrera, 1932an. Mendizaleen artean, Jose Maria Garate zihoan, elkarteko lehendakariordea. Ez dakigu Aralarko artzainen bati edo hartu ote zion gero Eusko Gudariak-en doinua izanen zena, liluratuta utzi zuen, behintzat,*

egun hartan entzun zuen kantuak. Letra berri bat moldatu zion, himnoaren lehen estrofa. Baina ez zuen arrakastarik eduki. Oso gerora entzuten zuen berak, Kortabarria konpainiako gudariak frontera zihoazela, akordutik kendua zeukan kantu hura. Bigarren estrofaren doinua Alejandro Lizasok moldatu zuen, Itxarkundia batailoiko metrailadoretako kapitainak. Lizaso Erreneriako udal bandako txistularia zen, eta frontean hil zen, handik gutxira. Estrofa asko erantsi zizkioten gerra garaian, batez ere, Intxortako borrokaldietan ibilitako Ibaizabal batailoikoek, antza”.)

*Eusko gudariak gara
Euskadi askatzeko
Gerturik daukagu odola
Bere aldez emoteko.*

- | | |
|--|---|
| 01. Irrintzi bat entzunda
goiko tontorrean
goazen gudari danok
ikurrinan atzean. | 05. Ikurrina goi-goian
daukagu zabalik
ez da inor munduan
eratsiko dabenik. |
| 02. Faszistak datoz eta
Euskadira sartzen
goazen gudari danok
geure aberria zaintzen. | 06. Nahita etorri Mola
ta mila rekete
ez da inor sartuko
bizirik garen arte. |
| 03. Gure aberri laztanak
dei egin dausku-ta
goazen gudari danok
iskiluak hartuta. | 07. Agur, Intxorta maite
gomutagarria
Arratiako mutilen
garaitzaren tokia. |
| 04. Arratiarren burruka
izan da Intxortan
Mola ta erreketek
gelditu dira bertan. | 08. Ez da sartuko inor
ez Euskal Herrian
eusko gudariren bat
zutik dagon artian. |



05. **Eratsiko dabenik:** eraitsiko, botako dauenik.
06. **Nahita:** nahiz eta.

07. **Intxorta:** Elgeta herriko mendi bat.
Gomutagarria: gogoangarria, oroitzea merezi dauena.
Garaitza: garaipena.

Sorta honetako hiru berba (*gera, emateko, borroka*) bizkaierara egokitu ditut (*gara, emoteko, burruka*), bizkaierazko testua izanik, jatorriz be halantxe eginak izan zirelako.

GERRA AURREKO
BERTSO IZENBAKOAK

Juan Egileor

Lekeitiarra izango zela suposatzen dogun Juan Egileor honen barririk ez dakigu, ondorengo bertso-paper bietan dakarzen izen-abizenak eta urte-datak besterik. XIX. mendearen bigarren erdiko datak jakinik, baten bat, gogorik baleu, hasi leiteke pertsonaia honen lorratz bila. Guk ez dogu hori egin, baina garrantzitsuena bertsoak dira, eta horreek hemen datoz, ez edo-zelakoak, gainera.

LEKEITIOKO KALIAN

(Alfonso Irigoien funtsa. "Eperren kantak, Lekeition jarriak, Juan Egileorrek, 1868. urtian")

- | | |
|--|--|
| 01. Lekeitioko kalian
andrak errondan gabian
zelan ibiltzen dirian.
Lorikan ere ezin ein dute
bakotzak bere tokian
jaiki gaberdi ostian
uhuka atian-atian
danak altzatu artian. | 02. Marinel triste sinpliak
Ooo galduta nekiak
pena ematen du juatiak.
Eperra dute kuadrillarekin
jotzen dituzte atiak
altzatu gizon maitiak
eingo badira bakiak
gastau dira irabaziak. |
|--|--|

03. Selerua dute aparte
egoteko hark agindu arte
ez dala izango kalte.
Gaberdi ezkerro hasitzen dira
kalian jiraka fuerte
Eperra dute alkate
agindutzen du bastante
danak altzatu arte.
04. Hau emakume kuadrila
berbetan ere abila
gabero manyuen bila.
Ehunda hogeita bat batutzen dira
askotan horren buila
kantua edo iskanbila
badirala uste mila
biztuko leukie hila.
05. Ai emakume zabarrak
kalian horren didarrak
hutsa balira edarrak.
Gizonari min emango die
horrekin izan biharrak
oraindik falta Eperra
horrekin dakusku gerra
guztia lanbide okerra.
06. Batera edo bestera
beste gauza bat oster
noa esaten hastera.
Bakian ere ezin egon zan
juan txalupen tartera
estropesatu ta behera
tolet-egurren ganera
han katiatu da bera.
07. Hau da Eperraren klasia
ez baztarrian hazia
gazte denpora pasia.
Gorputz liraina, gustogarria
pausua graziosia
ez laburra, ez luzia
koloria ere dultzia
lastima alperrik galtzia.
08. Aguardientetik goizian
lehenengo hasi ohi zian
akordatzen naiz noizian.
Aurten egunik hutsik ez dute
igual jua dan urtian
honek trabenan sartzian
errespetua atzian
oso txoratu artian.
09. Alimentatu orduan
hartu zestuak buruan
bai harek bizkor eruan.
Bakotxarentzat besigu bina
partilla dute neguan
gainerakua diruan
pezeta bana inguruan
zer irabazi dagan!
10. Partilla egin bihar danian
beti edo gehienian
hor dira alkarren ganian.
Diruak hartu eskuan eta
jarri mosuak aidian
sartu mangien barrenian
handik partitzen danian
hark diruak barrenian.

11. Malizi askoren jabia
baina beretzat hobia
hori da abilidadia.
Besteren gauzak harrapatzia
ez da bihar dan legia
bestela amistadia
hoba da karidadia
hor zerurako bidia.
12. Aditu dezute nola
hartu bizitza formala
izango dezu jornala.
Besteren gauzak harrapatuaz
ez beti ibili horrela
pobre izatia hobe da
kontu Pazkua aldera
gu salbetako bagera.
13. Horra kontuak ipini
orain poliki ibili
kalte egin bage inori.
Litxarrerian ibilitzia
ez da munduan komeni
juango zazuz igari
deituagaitik haieri
nola dan ezin igarri.
14. Agur beste bat artian
bizi zaitzeze bakian
bakotxa bere tokian.
Barkazinua eskatzen dizut
Jaungoikuaren grazian
zuek ere hitz batian
honla amistamentian
danok salbatu gaitian.



03. **Selero**: señoeroa, eguraldia jagoten dauena, itsasora urten ala ez erabagitzeko.
04. **Manyuen, manyua**: txontxorroa, gaztelaniazko “manjúa”, arrain mota txiki-txiki bat.
06. **Tolet**: txaluparen karelean egon ohi den ziri zuta, arraunari-eta eusteko.
Estropesetako: estropesatzeko, oztopo, estropozu egiteko.
Katiatu: katigatu, trabatu.
08. **Noizian**: noizean-noizean, noizean noiz, noizbehinka.
10. **Mosu**: aurpegia.
Mangien, mangiaren, manga: ontzi zubiaren barreneko zabalera. Ahapaldi honen azken hiru puntuak, poto eta guzti, ez dagoz hain argi.
12. **Salbetako**: salbatzeko.
13. **Zazuz**: jatzuz. *Zaizuz-jatzuz*, bizkaiera-gipuzkeren nahastea.
14. **Amistamentian**: berba bitxia, *amistosamentian* behar leukeena.

Hemeretzigarren mendekoa eta lekeitiarra izateko, bertso sorta honetan gipuzkera lartxo dago. Orduko ohiko lekeitiar bategan hori ez da normala. Baleiteke egileak jatorri giputza-edo izatea. Baita izan leiteke (eta horixe

izango da, seguruenik) bertsoon transmisinoan sortutako deformazioak izatea, ze, egile beraren hurrengo sorta beranduagokoan, gipuzkerazko oso forma gitxi agiri da. Dena dela, bertso sorta deigarria da oso, neurri berezian eta kalitate aipagarrian egina. *Karlisten kantak* sorta, barriz, garaiko bertso politikoen adierazle tipikoa da.

KARLISTEN KANTAK

(Alfonso Irigoienen funtsa. Paperak dino: “*Lekeitio, 1872. Egileorrek eginak. Don Juan Banca-Ormaetxeak bialdu*”).

01. Hogeta hamabost urte
dira igaruak
agintzen dauskuela
liberal gaiztuak.
Paltsokeri handiaz
madarikatuak
engainau zituezan
karlista zintzuak.

03. Isabelen gereizan
baltz inpernuak
bete dituez ondo
euren poltsikuak.
Kendu deuskuez guri
geldika foruak
askok hartu dituez
gradu ta enpliuak.

02. Judasek saldu eban
zeruko Maixua
Maroto jeneralak
Karlos gizaixua.
Paltsokeri honegaz
jaso zan tronua
España guztientzat
zorigaiztokua.

04. Inoiz aspertu ezinik
dauken egarria
muskildu dabe ederto
Españako herria.
Geratu da errentia
ze lotsagarria!
Euren erruagaitik
galdu da guztia.

05. Eskerrik baltzenagaz
O, zé jente fina!
Azkenez bota dabe
euren erregina.
Agintari izatia
ez inoren mina
izan da liberalak
beti zuen grina.
06. Agintari jarri da
jente itsusia
Serrano ta Topete
Prim da familia.
Honelan bota dabe
dauken huskeria
orbandurik galatik
euren kontzentzia.
07. Ardien narruagaz
jantzirik otsuak
izan dira ta dira
liberal paltsuak.
Otso honen artian
ez dira mankuak
ardi triskantzarako
gaurko ministruak.
08. Eleiza Santiari
dautsen gorrotuak
hartu eragin dautsez
diabru asmuak.
Erbestetu dituez
Jesus soldaduak
eta bota tuturrez
monjen konbentuak.
09. Lehenengo itxi dabez
ondasun bagarik
gero bota dituez
euren etxetatik.
Orain monja triste asko
dagoz gosez hilik
gizon gogor honentzat
ez da parkamenik.
10. Liberalen artian
daukaz diabruak
arimak galduteko
lagun ausartuak.
Entzun dituz Madrilgo
diputau-lekuak
dardar eragiteko
berbeta moduak.
11. Uxatu da Jesusen
Jaungoikotasuna
ta bardin Mariaren
dontzeilatasuna.
Handia da benetan
Jaunan ontasuna
igaroteko ixilik
irain hain astuna.
12. Oraindino badago
Españan lotsarik
ezin igaro leitez
gauza honek geldirik.
Euskeldunen artian
ez dago mutilik?
Ala dagoz gizonak
oilo bihurturik?

13. Hamar mila aingerugaz
ez horrelangorik!
Euskeldunen bihotzak
ez dauz oïloturik.
Jagiko gara laster
danok bat eginik
liberal harroari
jarkiten gogotik.

15. Españako koroia
buruan jantzita
Don Karlos izango da
espainolen aita.
Esan, bada, gogotik
bildurra itxita
bizi bedi Don Karlos
ta Doña Margarita.

14. Ea, bada, mutilak
gogor sendaturik
fusil eta makilak
hartu berbertatik.
Jauna egongo dala
beti gure aldetik
Birjina Mariagaz
diraSKU zerutik.



04. **Aspertu:** ase, asetu, bizkaierazko beste testu batzuetan legez.
07. **Triskantz:** txikizinoa, suntsiketa.
08. **Jesus soldaduak:** jesuitak.
Tuturrez: tatarrez, hankaz gora.
09. **Itxi dabez:** itzi ditue, utzi dituzte.

13. **Ez dauz:** ez dagoz.
Jarki: aurre egin.
14. **Berbertatik:** berehala.
DiraSKU: dinosku, esaten deusku.

Eusebio Maria Azkue

Resurrección Maria Azkueren aita zen idazle eta bertsolari-olerkari honen barri *Bizkaiko Bertsogintza II Izendunak* liburuan emon genduen. Bertan, hainbat bertso sortatako bilduma eskaintzen da. Hirugarren libururako bilaketan genbilzela, Gabon afariko bertso sorta hau barriri etorri jakun eskue-tara eta, lehen, haren hainbeste lanen artean hautatu beharraren ondorioz,

kanpoan iztea erabagi bagenduen, orain, sartzea pentsatu dogu, gerra aurreko beste autore batzuekin batera, sorta honek merezi ebalatu begitandu jakulako. Gainerako barri eta sorta gehiago, ikus aitatutako liburuaren 231. orrialdetik aurrera.

GABON AFARI BAT

(Euskalzale, 1897, 52. zk.)

(“*Iru damacho Donostiako* legez erezi leike” dino paperak.)

01. Gabon eguna da egun laburra
erlojuetan bakarrik
ez dot eukiten iluntzerako
belaun bietan indarrak.

Eta bat, eta bi, eta hiru, eta lau!
Ardaoak mozkortuten dau.

02. Neure Maria dabil goizerik
intxaur saltsea gietan
inor ez dau nahi subil ondoan
egun guztian berbetan. Eta bat...

03. Zazpi ta erdiak emoten dituz
etxeko erloju txikerrak
jesarten gara guztiok mahaian
Jaunari emoten eskerrak. Eta bat...

04. Zatituten dot ogi biguna
eta lehenengo kuzkurra
sendotuteko amurruturik
dagoan txakur adurra. Eta bat...

05. Lehenengo dator orio-azea
ondo egosi ta bigunik
ez dago zehian aza ta lora
bere ideko lagunik. Eta bat...

06. Izan dogun lez, Jaunari eskerrak
etxean ugari mahatsa
betor txakolin pitxarkadea
ta haren hurrengo, lebatza. Eta bat...

07. Ekazu, Txomin, goiko baldati
txetxu bateko txoleta
Gabon dogu gaur, etxekoandrea
eutsi lehenengo zurruta. Eta bat...

08. Lebatza dago gozoa baina
ez dot ikusten ardaorik
ez da euskaldunik egin deitsanik
Erriojari biraorik. Eta bat...

09. Edan, gazteak, txolindu artean
ez itxi ardaorik basuan
gaur edozeinek itxi behar dau
garbi basua barruan. Eta bat...
10. Ekazu, Kontze, subil ondoti
mahaira makailao saltsea
jan sendo, neure maite-maiteak
errukia da galtzea. Eta bat...
11. Ez dogu edaten gaur aparitan
edan maiteak ugari
Gabon gaubean egon behar da
apaldu ezker kantari. Eta bat...
12. Jesus! Maritxu, ze besigua
orain dakarzun errerik!
Nahiago neuke ia honezkero
mahaira ez baletor besterik. Eta bat...
13. Ardao gitxi gaur hemen edan da
lau pitxarkada bakarrik
ez dogu egingo dantzarik gero
narruak lagundu barik. Eta bat...
14. Urra, Maria! Urra, guztiok!
Hau intxaur saltsa gozoa!
Urte guztian ez dot nik euki
gaur baizen pozik gogoa. Eta bat...
15. Eta tragu bat, baita bi bere
edan, maitea, zia lez
balitz sarritan Gabon eguna
Behin baino urtean ez dalez! Eta bat...
16. Baita egin dausku geure Mariak
kafea lapiko baten
hau da edaria gogorik barik
ez dana gogoz edaten. Eta bat...
17. Betor kopea bete-beterik
kafera botateko bat
beste bat gero neuk edateko
kafea hartu ta ostekotzat. Eta bat...
18. Nundi ekarri da neure ezkatzera
orain bigarren argia?
Ez dogu behar argi gehiago
lehengoa baino, Maria. Eta bat...
19. Dantzan hasi jat orain ezkatza
ez dogu behar besterik
ez dot ikusten, –ai ze barrea!–
gazteak, ohera biderik. Eta bat...
20. Zer da, Maria? Ez dakit zelan
gaur aurkituten nazan ni
senar bakar bat lehen euki dozu
eta daukazuz orain bi. Eta bat...
21. Eskatu daigun, neure maiteak
ohera goiazan baino lehen
batu gaizala Jaungoiko Jaunak
betiko zeruan. Amen.
- Eta bat, eta bi, eta hiru eta lau!
Ardaoak mozkortuten dau.



02. **Gietan:** *giau-tik*, giatzen-gietan, lantzen, atontzen, prestatzen.
Subil: mukurra, sutan ipintzen den enbor zatia.
03. **Jesarri:** eseri.
04. **Amurrutu:** amorratu, txakurra errabiak hartu.
Adur: lerdea, txakurrari ahotik darion bitsa.
05. **Zeia:** plaza, azoka.
Bere ideko: bere kideko, pareko.
07. **Txetxu:** litro lauren.
Txolet: metalezko edontzia.
Eutsi: hartu eizu, tori.
09. **Itxi:** itzi, utzi.
14. **Baizen:** bezain.
15. **Bere:** be, ere.
Zia lez: zi, ziri, ihi. Ziak legez, ihiak bezala; ugari edatearen esakunea.
Ez dalez: ez den lez-legez, ez denez gero.
17. **Kafea hartu ta ostekotzat:** kafearen gainekotzat, ondoren hartzekoa.

Gabon afaria zehatz eta dotore kontetan dau sorta honek, eta deigarria da zelan ironia eta xarma batera doazen, gitxi gorabehera, halako afari motak eta konnotazino ugariak bizi izan genduzenoi,aldi berean, grazia eta emozinoa eragiten deuskuela. Halako girorik ezagutu ez dabenentzat be, kon-daira maitagarria izateko moduan kontatuta dagoela uste dogu.

Hemen emoten dogun bertsinoa *Euskalzale* aldizkarikoa da eta hatantxe izten dogu, beste bertsinobatzuetan alde handi samarrak agiri direla ikusita, esaterako, *Euskarazko Vertsoak*, *Jarein* 1 izenez, Asier Astigarragak eta K. Josu Bijuescak ateratako edizinoan. Azken honek badirudi Eusebio Azkuegandiko bertsinob originalagoa emoten dauela eta *Euskalzale*-koa “garbituago” dagoela. Aldizkaria argitaratu zenerako, Azkue aita hila zenez gero, ez dago dudarik Azkue semearen eskua ez zela urrun ibiliko. Beharbada, bigarren liburuan egin genduenez, sorta hau be aitatutako liburutik emon behar genduen, seguruagoa delako, baina diferentziak ikustea be interesgarria izan leiteke, eta bestea gura dauenak ikusi bei liburu horretan, 337. orrialdean.

Eustakio Larrabeiti “Eulea”

Eustakio Larrabeiti Trabudua, lanbidez ehulea. “Eulea” ezizenez ezagutua izan zen honen barri, *Bizkaiko Bertsogintza II Izendunak* liburuko 447. orrialdetik aurrera dator. Han, hain bertsolari interesgarri honen bertso sorta bi besterik ezin izan genduen emon, (*Zortzi Nobio* famatua eta *Frantzisko Orbegozo*), gehiago izango ziren susmoz, baina aurkitu ezin izanaren penaz. Harrezkero, beste sorta ezin interesgarriago bi agertu jakuz, *Jose Ramonen kasua* eta *Gatikako Bernarda*, liburu honetan emon barik itzi ezin genduzenak. Horreez gainera, Eustakio Euleak *Euzkadi* egunkarira bertso sortak bialdu izan zituen, gehienak eduki politikodunak. Orain, egunkari hori ikuskatzean, konprobetako modua izan dogu. Bertsook, gehienbat, gerra aurretxoan bialdu zituen, bere zahartzaro oso aurreratuan, 1936an hil baitzen, 88 urte zituela. Sorta horreetarik, *Garbitu bazterrok* izenekoa hautatu dogu. Besteei, ez bertsoz, ez edukiz, ez deutsegu interesik aurkitu.

JOSE RAMONEN KASUA

(*Jesus Mari Etxebarria* Gatika-Laukizko abadeak zuzendutako bertso-papera.)

01. Hasi beharra daukat
kantuzko lanean
aguztuen hogeta
zazpigarrenean.
Motiboak daukadaz
bi gitxienean
infernuko Satanas
heldu da gurean.

02. Jose Ramon Bilbao naz
Gibelondokoa
Gatikako herrien
jaio ta hazikoa.
Honetara heldu da
nire talentoa
bertsoz azalduteko
neuri pasakoa.

03. Hau da tentagarrizko
neure motiboa
agutzuko hilaren
hemeretzikoa.
Mila bederatzirehun
urten pasaukoa
hogei gizaldigarren
hasikerakoa.
04. Egun horretan ginan
Margaltza basora
neu ta neure lagunak
otak ebatera.
Gero etorri ginan
guztiok etxera
eguna akabau ta
gaubagaz batera.
05. Ailegau nintzanean
neure suetera
handik laster andrea
juan zan gortara.
Bertatiko hasi zan
dedar egitera
arren juan nadila
behie ikustera.
06. Etorri nintzan legez
basotik kantsaute
deskantsetan nengoan
sillan jesarrite.
Andreak deituten deust:
“Hona heldu zaite!
Behiek deko buztena
hemen ebagite”.
07. Hau entzun nendunean
banoa gortara
begiratuten nendun
behien buztenera.
Hasi nintzan pentsetan
mila gorabehera
gauza asko etorren
nire burutera.
08. Ikusi nebanean
disparate hori
geitu neutsean neure
hiru lagunari.
Baita deitu orduko
zirean etorri
han egozan hirurak
begira behieri.
09. Jose Landaluze da
lelengo-lelengo
Lukas Eguzkiza ta
Domingo Gorordo.
Hirurek dinaudea
serio-serio:
“Behi hori ikusteak
sue emon leio”.
10. Buztena ebagita
behie dago penaz
hau egin dabena da
munduko Satanas.
Bakarrik ezin esan
errezeloagaz
ingelesan bat bada
ni engainaten naz.

11. Ai balitz deskuiduen
ni engainatea
Bizkaian bata-batek
ai ze suertea!
Baina balitz ziertu
nik azartatea
zaurie beretzako
honek entzutea.
12. Gauzarik asko daukat
buruti pasaute
pentsamentuak dakar
mila disparate.
Eta hasiko banintz
akaso pregunte
baitetz esango baleu
azartako neunke.
13. Begiratu ezker
kontzientziari
“Neu naz” esaten berak
behar deu etorri.
Nik itxiko neuskio
pentsamentuari
baita ganera berak
arimea garbi.
14. Orain da denporea
ez itxi geroko
behien buztenak gero
ez gaitu salbauko.
Deskuiduen bagara
euli arterako
buzten horrek ez deuskuz
euliek kenduko.
15. Sartu behar dot orain
bigarren puntuen
kasi bi izan dodaz
lau egun barruen.
Hau bere esango dot
izan dan moduen
txiripe politekaz
nabil aguztuen.
16. Hemen bere jazo jat
barrabaskerie
labarik ostu deuste
ahuntz baten erdie.
Gauerdi pasaureko
hau bai isturie
ez deu hain txarto jakin
labako barrie.
17. Martxea euki badeu
labarik asago
ziertu izan dituz
atzamarrak bero.
Beretzat numero bat
niretzako zero
etxean eukiko dau
eroan azkero.
18. Lehen esan dodan legez
hau da txiripea
etxean behar dana
inok kendutea.
Beste munduen badeu
libre egotea
nire aldean jan deu
okela merkea.

19. Ahuntz hori hil genduan
etxerako dana
ginerrabeak eta
biok erdi bana.
Deabruren bat gero
heldu da gugana
ginerrabeana da
eron deudeana.
20. Deabru hori ez da
txakur modukoa
txakurrek ez lei koixu
laba gorikoa.
Halan nahi holan behintzat
da jeniokoa
uste dot izan dala
kadera bikoa.
21. Ahuntz hori tostetako
sartu zan labean
geure San Bartolome
bezpera gaubean.
Jaiak alimentoso
eiteko idean
gustura eta pozik
ibili ginean.
22. Gure pozak guztiek
urten deu guzurrek
pastue mudau deusku
bebingoan ahuntz horrek.
Beharra deuko gitxi
jateko samurrek
useindu ete zaitu
asaoko lapurrek?
23. Useindu lei benturez
asagorik bere
butrak bere halantxe
useinduten deude.
Lar asagorik bada
hori bere dude
okela barik behintzat
hemen itxi neude.
24. Horra kasu guztie
Jose Ramonena
ahuntzik erdiena ta
behien buztenana.
Damaturik badago
oker dabilena
konponduko gara ta
etorri neugana.



02. **Hazikoa, pasaukoa:** hazitakoa, pasatutakoa.
03. **Urten:** urtean.
04. **Ebatera:** ebagitzera, moztera.
Gaubagaz: gauagaz.
05. **Suete:** sute, ezkaratz, sukaldea.
Gorta: ukuilua.
Dedar: didar, deihadar, oihu.
06. **Basorik:** basotik.
07. **Nendunean:** nebanean, nuenean.
Pentsetan: pentsatzen.
Burutera: burutara, *burura* mugabakoan.

08. **Geitu:** deitu.
Deitu orduko: deituaz batera, deitu eta berehala. Gaur egun, esamolde horrek, bizkaitar askoren ahoan, *deitu aurretik* esan gura izango leuke.
Egozan: zegozen, zeuden.
09. **Dinaudea:** dinaude, dinoe, diote.
Sue emon leio: sua emongo leuskio, sutan ipiniko leuke edonor.
10. **Bakarrik ezin esan errezeloagaz...:** errezeloz bakarrik, edo susmo hutsez, ezin izenik emon, baina “ingelesan bat bada, engainaten naz”. Hau da, ziur ingelesa ez dena. Beraz, ez naz engainatzen, daukadan susmoagaz, baina izenik ez dot esango.
11. **Nik azartatea:** nik asmatzea.
Honek entzutea: honeek, hauek, hots, bertso hauek.
Hasiko banintz... pregunte: hasiko banintz galdezka.
15. **Politekaz:** politekin.
16. **Jazo:** gertatu.
Labarik: labatik, labetik.
Gauerd pasaureko: gauerdia baino gerotxoago.
Isturie: esturea, estuasuna, larritasuna.
17. **Labarik asago:** labatik urrun.
Eroan azkero: eroan ezkero, eramanez gero.
18. **Beste munduen badeu:** beste munduan badauka.
19. **Ginarrebeak:** aita zein amaginarreba.
Eron deudeana: eroan dabena.
20. **Txakurrek ez lei koixu:** txakurrak ezin leike, ez lezake harrapatu.
Kadera: hanka, zango.
21. **Tostetako:** tostatzeko, erretzeko.
Alimentoso: berba bitxia hauxe.
22. **Urten deu guzurrek:** guzurak urten dau, oker urten dau, aldrebes atera da.
Beharra deuko gitxi: lan gitxi dauka, hau da, jateko samurra erraz jaten da.
Useindu ete zaitu asauko lapurrak: usaina hartu ete deutsu urruneko lapurrak?
23. **Benturez:** beharbada.
Lar asagorik bere: asagoegitik, urrunegitik be.
Butrak: putreek, saiek.
Deude, neude: dabe, nabe, dute, naute.
Dude: dudea, duda.

Bertso sorta honek Eustakio Eulearen estiloa bete-betean islatzen dau, erromantze airez nahastaturiko kontakera xalo, argi eta hunkigarrian. Eta zelako solemnitatea emoten deutsan kontakerari! Lehenengo hiru bertsoak, oso-osorik, sarrerazkoak dira, baina gogaitzen ez dabena, motiboa hain baitago elegantziaz iragarria. Kasua zein den kontetan, laugarren bertso-raino ez da hasten. Eta, gero, kontakeraren solemnitatea ez da behin be jaisten. *Behi hori ikusteak sue emon leio; ingelesan bat bada ni engainaten naz; nire aldean jan deu okela merkea; txakurrek ez lei koxu laba gori-*

koa; beharra deuko gitxi jateko samurrek; lar asagorik bada, hori bere dudu... Zenbat esamolde eta esaldi oso dagoen sorta honetan, ironia ala ino- zentzia den dudatzeko modukoa! Eustakio Euleak ziur ez ebala hori guztia jakinez gainera egiten, intuizinoz baino; hau da, estilo baten transmisore legez, eta artista senaz beste armarik barik.

GATIKAKO BERNARDA

(Algortako Bertso Eskolako Joseba Santxogandik jasotako bertsinoa.)

- | | |
|---|--|
| 01. Munduko gauzak zelan
igaroten diren
esateko asmue
hartu dot lehenbailehen.
Behar ez diren gauzak
agertutearren
berba egin beharra
jazoten jat hemen. | 03. Ez naz inoz zuzendu
barriketatara
beti ahalegindu naz
zuzen ibiltera.
Baina gaur noa gauzak
garbi esatera
betatu neudelako
goirik eta behera. |
| 02. Ibilita nago ni
tertzio askotan
aditu bertsootan
zer jazoten jatan.
Nahasta neudealako
ezkontza gauzetan
Pedro Iturburuko
hasten da berbetan. | 04. Ezkontzeko asmue
hartute egon naz
Don Pedro abadean
arreatxuegaz.
Eurek etorri ziran
errekaduegaz
buztertuko baginan
biok alkarregaz. |

05. Etorri jatanean
hori esatera
begiraturen neban
leku askotara.
Han señoirita zelan
jantziten ete da
nigana etorteko
arkasats artera?
06. Beti neukan esaten
neba abadea:
“Zure begira dago
Bernarda gurea.
Berak gure dabena
da labradorea
gustetan jaku zure
propiedade”.
07. Egunen erdien ta
gau eta goizean
burutasun bat neukan
neure bihotzean:
“Señoiritatxu hori
sarturik etxean
begiratu eik zelan
bizi leitekean”.
08. Abadean esanak
erdi sinestute
imini nenduen, ba
eurek ganatute.
Señoiritatxu hori
andratzat hartute
biziko gineala
ondo aditute.
09. Ez deuste niri itzi
gure izan bakean
eurekana begire
imini artean.
Tranpea egoteko
abade-etxean
ez dakit, ba, gaur nogaz
fieu leitekean.
10. Bernarda bera bere
beti erreguke
biziko gineala
biok ezkontute.
Malezie baeukan
tratuen sartute
guzurrekaz imini
neude engainaute.
11. Eurek gure izanda
zaratak atara
ia inor helduten
bada zaratara.
Nik adituten neban
puntu horretara
uste badeude bere
tontoak ez gara.
12. Ederto egin doguz
zaratak atara
txiki eta handiek
guztiak batera.
Askok adituko deu
orain zaratara
lehen baino arinago
oin salduko gara.

13. Ez jat inoz ahaztuko
abade maitea
San Juan eguneko
bazar ikustea.
Han konforma ginean
bata ta bestea
eginik gelditu zan
gure ezkontzea.
14. Berak esaten eustan:
“Pedro, hemen dago
nik uste nabon baino
kanpo handiago.
Ez gaitez an ibili
ikusten gehiago
ikusiegaz bere
ni konforme nago”.
15. Kanpoko gauzetan ta
bai barrukoetan
konpondute gengan
gauza guztietan.
Neure anajea ta
danok ginan bertan
berbalditxu polit bat
egin gendun gortan.
16. Abadea heldu zan
ganaduekana
honek behar zirala
egin erdi bana.
Honetan zurtu ziran
aita eta ama
ikusi eudelako
larregie zana.
17. Ederto portau ziran
aita eta ama
gauza egokie zan
hemen egin zana.
Honek agindu euden
behietan onena
bost behien artean bat
aurek nahi dabena.
18. Hau da aita ta amak
agindu eudena
guretat izateko
behietan onena.
Ikusirik gehiago
emoten ez zana
abadeak agindu
eban bigarrena.
19. Tratue holan dago
eginte ilbindu
trespunte ona orain
egingo bagendu.
Orratzari firue
ez geio zuzendu
Bernardari ein jakoz
begiek ilundu.
20. Pauso asko ezin lei
horreri fiaute
satorran jenioak
dagoz ikisite.
Hemen ibili dire
musturke-musturke
atzerantz egin deude
baztarrak nahastaute.

21. Musturke egin arren
arloan satorrak
pozik geldituten naz
Jaunari eskerrak.
Tranpaz ibili arren
gazte eta zaharrak
ez neude azpilduten
klomediante txarrak.
22. Bihotzeko larria
noa erakusten
nondik etorri jatan
banoa esaten.
Bernardagaz bildurrez
beti egongo nintzen
eskegi ez dakiden
arantzaren baten.
23. Oraintxe bai nagola
ni pozez beterik
aldendu nazalako
arriskueterik.
Ilunderan larri bat
izango neban nik
berau librau ezinik
arantzan arterik.
24. Gure izan badozuz
zaratak bakarrik
ezin hartu zeinkean
poz handiagorik.
Isiltasunagaitik
ez egin negarrik
zaratok egingo'guz
ez euki bildurrik.
25. Agur, ba, Bernardita
ama eta neba
bakotxa beranagaz
geldituten gara.
Askok adituegaz
zeure zaratara
ni kontentu naz behintzat
zeu halan bazara.
26. Orain enoa eiten
zarata gehiago
egie esanagaz
deskantsuen nago.
Barrue hutsitu dot
lehenago-lehenago
etorri Pedrogana
guzurrik badago.



01. **Jazo:** gertatu.
02. **Tertzio:** ordua, unea.
Aditu: begiratu.
Neude: nabe, naute.
03. **Ez naz inoz zuzendu:** ez dot inoiz jo, ez
naz inoiz abiatu.
Betatu: bete.
Goirik: goitik.
05. **Arkasats:** endalaharra, landare txiki
bat, arantzaduna.
08. **Imini nenduen:** ipini nindueen,
ninduten.
Eurek ganatute: eurakanaturik,
eurengana ekarrita.

09. **Zaratak atara:** hotsak, burundada atara, zeozer inguruan entzun eragin.
Ia inor helduten bada: ea inor etortzen, hurreratzen den.
13. **Baztar ikustea:** etxaldea, propiedadea ikustea.
14. **Ikusiegaz bere:** ikusitakoagaz be, ikusi dugunarekin ere.
15. **Anaje:** anaia.
Gortan: kortan, ukuiluan.
16. **Ganaduekana:** ganaduengana.
Honek: honeek, hauek.
Zurtu: harritu.
Eudelako: ebelako, zutelako.
Larregie: larregi, gehiegi.
17. **Aurek:** eurek, beraiek.
19. **Ilbindu:** albaindu, puntada luzeekin, gero zeheago josiko dena hartu.
Trespunte: gaztelaniazko pespuntea, joskura modu bat.
Firu: haria.
Ez geio zuzendu: ez geinkio, ezin geinkio jiratu, aurkitu.
20. **Ezin lei:** ezin leiteke.
21. **Azpildu:** arropen ertzari tolesa hartu eta josi. Hemen, esanahi metaforikoan, euren erara tolestu, moldatu, makurtu.
22. **Eskegi ez dakiden:** dingilizka, zintzilik, trabaturik gelditu ez dakidan. Arantzaren baten eskegita gelditzeko arriskua hain “señoritatxua” izatetik dator. Delikatuegia, alegia, “arkasats artera” ezkontzeko.
Arantza: arantzadun zuhaitza. Sasia be bai, leku batzuetan. Hemen, 5. bertsoan aitatu dauen arkasatsa.
23. **Ilunderan:** ilunkeran, iluntzean.
Arantzan arterik: arantzen artetik.
26. **Hutsitu:** hustu.

Gatikako Bernardaren bertsoak jaso zituen *Urduliz ingeru. Berbak eta bizi-modu* izeneko liburuan, Iñaki Gamindek dino:

“Gatikako Bernardari eginiko bertsoak bertsopaperetan agertu ziren, eta bertan egilea beste bat izan zela agertzen bada ere, herriak, behinik behin, Euleri egotzi dio bertsoen autoria. bertsopaperaren fotokopia bat Gorlizko Miren Goikoetxeari esker lortu nuen; hala ere, sano egoera onean egon ez iteagatik, lerro batzuk hona ekarri izan ditut; zelangura ere, hona hemen bertsopaper hori: Bertzo-berriak millá bederatzireunde amaspiko urtean Pedro Iturburukok Bernarda Echeandiari Gatikan jarriak”.

Gamindek, hainbat bertsoan, gatikar biren ahotik jasotako aldaerak be

emoten ditu. Horrekin guztiekin osotu eban Joseba Santxok bertsinoko bakarra, eta hemen horrexeri jarraitu deusagu.

Bertso sorta honegatik be, aurrekoagaitik esan dogun guztia eta berbera esan geinke. Estilo hunkigarrirako inkonfundiblea dago hemen, eta bertso-paperean, egilea ezkutatzearren, seguruenik, beste izen bat agertzen bada be, ez dago dudarik Eustakio Eulearena dela. Beharbada, bertso honetako ironiak zorroztasun tristeagoa transmititzen dau. Azkenean, protagonistak deskantsuan amaitzen dau, baina ez tristura sunde bat itzi barik: mutila bera be ezkontza ustez eskuragatx ha sinestera heldu zen, sinestu eragin eutsielako.

Behi kontuagaitik atzera egiteak ulergatxa emoten badau be, pentsatu behar da, alde batetik, behia, orduko bizimodu urrian, ondasun handia zela. Baina, bestetik, ez da hori behinena. Abadeak, lehenik, behiak erdi bana egitea proposatzen dau. Horrelakorik mutilaren gurasoek ez dabe inondik itxaroten. Halan be, behirik onena eskaintzen dabe. Orduan, abadeak bigarren behia agintzen dau. Bertsoek ez dabe argi izten etxekoek baldintza hori onartzen daben ala ez. Zelan edo halan, badirudi tratua egitera heltzen direla: *“Tratue holan dago / eginte ilbindu / trespunte ona orain/ egingo bagendu”*. Baina *“Bernardari ein jakoz / begiek ilundu”*. Bernardak atzera egiten dau. Zeozertan tratua apurtu da, hau da, bila zebilzen atxakiren bat (behi gehiago, behi guztiak...) gertatu da, ezkontza hausteko.

Orduan, zertarako proposatzen dau abadeak ezkontza hori? *“Zaratak ateratzeko”*. Hau da, Bernarda dispoñible dagoela zabaltzeko, ea abadearen loba señoiritatxoari bere pareko pretendienteren bat (beharbada, begiz jota zeukien bat) agertzen jakon, eurak bila joan barik. Zarata horreek zabaltzeko, Pedro Iturburukogaz baliatzen dira. Honek, behintzat, mogida guztia beste helburu baterako teatrotzat interpretetan dau, bera biktima dela.

Genero honetakoak, *ezkontza galdutako bertsoak* esan ohi jakenak, bertso-laritzan ugarienetarikoak izan dira, baina behin be ez dot honelako intenzinoekin “ilbindutako trespunterik” edo tramarik aurkitu. Historia hau kantakeran, gaurko gazte hiritarrak be ikusi izan ditut emozionetan, eta ez da harritzekoa.

GARBITU BAZTERROK

(Euzkadi, 1919, 2294. zk., 6. or.)

01. Kanpora bedar txarrak
laparda ta danak
bere ortuen sartu
daizala Españak.
Horrek dira Euzkadi
galtzen dabilizenak
apurtu, ba, geuretzat
onak ez diranak.

02. Hemen ez dogu bihar
laparda bedarrik
lapardak ez daukea
gauza dan lorarik.
Atxurtu sakon, hartu
ez daien indarrik
urdeila betetako
baiagok hobarik.

03. Lapardak beti dire
usein txarrekoak
bagoz gehiago bere
horren antzekoak.
Eta ganera dire
lurre galtzekoak
beste lagunek bere
ez dire bapoak.

04. Euzkadin hartuteko
nahi daben indarra
pozik badabiz hortik
Berge ta Balparda.
Beste bat bere dauke
nahasteru ederra
burgostar ta euzkotar
egin dan Ibarra.

05. Astorik salduteko
gaur badago inon
hor dabilz hiru gizon
eta Txibiliton.
Merkatari badator
ez begira egon
hartu makilea ta
bizkarrean emon.
06. Heldu dire lo bako
gau eta egunek
eutsi daiskule sendo
buruko zentzunek.
Gaur asko balio deu
bekoki ilunek
ikeratu daitezana
piperpotedunek.
07. Danak lotsabakoak
esan lei benetan
jan gura deudeanak
beti ilunetan.
Bizi gure badogu
lehengo legietan
ez imini Euzkadi
horren eskuetan.
08. Zarataik asko deuko
gaurko denporalak
ahuspez karaderaka
hor dabilz gizonak.
Belarritik barrure
zaratau sartu jat:
Gernikan sartu dala
sagu makarren bat.
09. Askok dinoena da
gaur gogo-gogorik
ez deudela ikusi
holango sagurik.
Sarri urteten badeu
hormako zulorik
ez dala geldituko
katuek jan barik.
10. Maitetu, euzkotarrak
Euzkadi ederra
holan maitetuko'gu
Jaungoikoa bera.
Haustu arantza baltzok
kendu bedar txarra
Gora Jaungoikoa ta
Gora Lege Zaharra!



01. **Laparda:** ustai-bedarra, lapa-bedarra,
solo eta landetan gorrotagarri den
bedar mota.
02. **Baiagok:** *badago* hika maskulinoan.
03. **Bagoz:** badagoz.
05. **Merkatari:** erostuna, eroslea.
07. **Jan gura deudeanak:** jan gura
deudenak, dabenak.
Ilunetan jan: esakera dotorea, jaki
zikina (ostua, kendua, engainuzkoa...)
jaten dauela adierazteko.

08. **Karaderaka:** kaderaka, ostikoka.

Zaratau: zarata hau.

Makar: argala, ziztrina, gauzeztana.

Bertso sorta hau 71 urtegaraz bialdu eban Eustakio Euleak *Euzkadi* egunkarira, eta badaukie, bai, bere estilo natural eta arkaikoaren ikutu xarmagarria, erromantze eta baladetan agiri den airekoa. Adinean aurrerago zihoa-la, beste sorta batzuk be bialdu zituen *Euzkadi* aldizkarira, baina ez deutesegu jasotzeko besteko interesik ikusi.

Bonifazio Latxa eta Agirre

Bonifazio Latxa Agirre izan da Bizkaiko bertsolaritzan egin dogun aurkituntzarik handienetarikoa. Aurkituta bazegoen, egon, bere sasoiari eta askoz geroago be, haren bertso sortak (*Jazintaren bertsoak, Bilbotik Ipiñaburura, Arloraren alabeari...*) oso kantatuak baitziren, baina anonimo antzera. 1900. urte inguruan, bazen *Euskalduna* aldizkaria, non Latxak bertso sorta mordo argitaratu eban. Horreetariko asko *Bizkaiko Bertsogintza II Izendunak* liburuan argitaratu genduzen, 389. orrialdetik aurrera.

Bigarren liburuan, idazle eta bertsolari hain interesgarri honen barririk apenas geunkan. Orain, zorionez, Iñaki Esparza Ordeñana eta Angel Larrea Beobideren *Arratiako euskal idazle aitzindariak* izeneko iker-liburu zehatz eta bide-edegitzaileari eskerrak, badakigu “Ubide” eta “Ea” ezizenez be sinatzen eban Bonifazio Latxa honen barri dezente. Ubidean jaio zen, 1874ko uztailaren 19an eta Argentinako Pirán-en hil zen, 1909an. Gazterik hil zen, beraz, 35 urtegaraz. XIX. mendearen azkenetan eta XX. aren hasieran, 1898-1905 bitarte horretan, hemengo hainbat aldizkaritan idatzi eban. 13 seme-alabako familia batean jaio zen, bera zazpigarrena zela. Badirudi

familia modutsua zela, burdinolen industriari eskerrak. Baina, burdinolen negozioak behera egin ebalako, edo bera be berez bohemio samarra zelako, Argentinara alde egin eban, 1904. urtean. Alde egite arraro samarra, emaztea eta alaba bi hemen itzita. Argentinan *La Baskonia* eta *La Euskaria* aldizkarietan asko idatzi eban. Pello Mari Otañoren lagun handi egin zen Boni. Ubidearra Argentinan be erdi nomada legez ibili zen bere maleta txikiagaz, arrakasta bila eta zain, antza, baina heriotzak gazteegi harrapatu eban, Pirán izeneko herri txikian, Otaño baino urtebete lehenago.

Bonifazio Latxak zer eskola zeukan oraindino ez dabe zehatz argitu, baina, bere bertsoetatik eta gaztelaniazko prosa-lanetatik, bistan dago gizon kultua zena. Musikaria bazen, behintzat. Zeberion organista kargua izan eban eta geroago Ean be bai, aldi berean, musika irakasle zela. Emaztea be Eakoa hartu eban eta bere jaioterri “Ubide”-gaz batera, hortik dator “Ea” ezizena be erabiltzea. Datu honeek guztiak gorago aitatutako liburutik edo egileen ahotik jaso doguz. Egileok “erromantiko berantiar”, baina “kalitate handikotzat” kontsideratzen daben honek *Todos Erribatekos* izeneko sainetea be argitaratu eban Gernikan, 1899. urtean. Eta haren bizitzaz, oraindino ilungune handiak badagoz be, bere amari eskainiriko bertso sorta batean, (hemen jaso doguna bera), hainbat xehetasun familiar eta pertsonal agiri da.

Bizkaiko Bertsogintza II Izendunak egin genduenean, Buenos Airesen ateratzen eben *La Baskonia* aldizkariaren barririk ez geunkan, edo ez genduen, behintzat, ikuskatu. Oraingoan, eskuratu dogu eta, bertan, Bonifazio Latxaren hainbat bertso sorta agertzen da, 1904tik aurrera, bera be Argentinan egon zeneko bertsoak. Horreetariko selekzino bat hemen emotea nahitaezko genduen, hain bertso-jartzaile (beharbada, bertsolari be bai) seinalagarria izanik.

Latxa Euskal Herrian zegoela, *Euskalduna* aldizkarian argitaratutako bertsoak bizkaiera huts-hutsean eta guztiz naturalean eginda dagoz. Liburu honetan emoten doguzen sortetarik, bakarra da, –*Martin Anton Txintxurta*–, aldizkari horretakoa, eta bertan bere ohiko bizkaiera hutsa eta argia darabil. Argentinan, Pello Mari Otañoren lagun handi egin zen, eta Latxari berari be Otañoren antzeko herri-min ia gaixotia somatzen jako bertsoetan. Eta abertzaletasun sutsua. Dela Pello Mari Otañoren itzalagaitik, dela han aurkitu zituen euskaldunik gehienak giputzak zirelako, dela, aldizkari haretan argitaratzeko, egokiago begitandu jakolako, Argentinako bertsoetan, gipuzkera asko sartzen dau, eta hori tamalgarria izan zen, sarritan, hizkuntza nahasia darabilelako. Latxa gizon kultua zen, baina ikusten da gipuzkerarik ez ebal, sasoi haretan, behintzat, ganoraz menperatzen, eta horrek bere bertsoak apur bat lorrindu eta naturaltasuna kentzen deutse.

Ahapaldiak egikeran, Latxak, tradizino kultuaren arabera, ez ditu beti erdian eteten; hots, zortziko handiko neurrian, esaterako, bigarren puntutik hirugarrenera eta gehiago be, esaldiak jarraitu egiten dau. Adibide bat:

Zu zara nere osagilea
zu, Pello Mari Otaño
ez det nik beste osagilerik
bilatzen hemen zu baino
lur honetara heldu nintzanik
ta gaurko eguneraino.
Atara zazu daukadan narrau
sarturik bihotzeraino.

Bertso honetan, lehenengo hiru puntuak loturik doaz. Esaldia hirugarren puntuan amaitzen da eta, ortografikoki be, hortxe ipintzen dau puntua.
Edo:

Honetantxe nengoala
neure lanok eginik
baina senide urrunak
bakez euki ezinik
bada danentzat ez neukan
ez agorik ta ez txinik
batek esan eustan: “Betoz
diru danok isilik
bestela beste mundura
bialduko zaitut nik”
eta iratzartu nintzan
ohipean hotzak hilik.

Sei puntuko bertso hau, oso-osoan, esaldi bakarra da. Lehenengo puntu biak aditz atzizki beraren gainean eraiki ondoren, (bata ekintza burutua, bestea *-ezinik = ezinez-* burutzen ari), hirugarren puntuan kausal bat sartzen da, laugarrenean aditz nagusia sartzeko. Honek, bere menpean, ia puntu biko aipua dakar. Eta, azkenik, eta lokailuaren bitartez, ahapaldia era indikatiboan amaitzen da. Gramatikaz eta sintasiaz, oso ahapaldi argia da, irakurtzeko. Kantatzeko ere, ez legoke arazorik, testuari dagokion doinua ezarriz gero, baina kakoa da, bertsolaritza herritarrean, euskaldun bertsolariek garatu daben bertsolaritza ohikoan, doinuek euren etenak edo pausa argiak daukiezela. Lau puntukoak zein gehiagokoak izan, bigarren puntutik hirugarrenera, doinurik gehienek eskatzen dabe esaldia amaitzea eta barria hastea.

Latxak beste baliabide bat be erabili ohi dau, sarritan apropos, enkabalgamendua edo zamalkadura deritzona, non unitate sintaktikoa eta unitate metrikoa batera ez doazen. Hau da, beragaz amaitu behar dauela suposatzen den errima-oinaren gainetik, esaldiak aurrera jarraitzen dau.

Handik egun bi barru
zepo bat *errekan*
ipinirik, jausten da
Martin Anton bertan.

Lur horretatik urruntxu nago
baina urrun egon arren
uste dot, neure Euskal Herria,
maite zaitudala *nik lehen*
baino gehiago, bihotza daukat
amodiozko *su-garren*
erdian, dana kiskil-kiskilik
zu ikusteko pozarren.

Ahapaldi honeetan garbi ikusten denez, esaldia errimaren gainetik pasetan da: *zepo bat errekan ipinirik; maite zaitudala nik lehen baino gehiago; bihotza daukat amodiozko su-garren erdian*. Poesia kultuan normalak ziren efektuok bertsolaritza herritarrean arrotzak izan dira, doinuagaitik, batez be.

Ahapaldi beraren barruan eta, inoiz, puntu beraren barruan, alkarrizketa konplexu samarrak sartzeko be, Latxak ez dauka eragozpenik, *Martin Anton Txintxurta* sortako laugarrenean, esaterako:

Ta zelan koxu dozu?
– Butroian.
– Benetan?
– Gorbeieko erreka
ur handienetan.
Peru hau entzunagaz
egoan pentsetan
zelan koxuko ete'ban
bera sarietan.

Bertsolaritzan ahalegindu ziren Bizkaiko idazleakan (eta, gitxi asko, gehienek egin eben hori nonoiz), joko honeek ohikoak ziren eta Latxak be bazeukan tradizino horren haria.

Estilo eta baliabide literarioak albora itzita, teknika aldetik, erriman, batez be, harrigarria da Latxagan ikusten den garapena, areago, bera bizkaitarra izanik. Errima zorrotza eta aberatsa ez ezik, sarritan, ohigabea eta txokantea darabil, egiten dituen konbinazioak ikusita:

- *Errekan, bertan, zertan, lapurretan*
- *Orpotikan, botikan, edo bitan, mila tokitan*
- *Hila bi, gizaldi, ilargi, ugari*
- *Denporak, gero lorak, odolak, adiskidetxo bat*
- *Urte, murmurke, luke, dute*
- *Nahi diot, biok, begiok, Bonifaziok*
- *Lanikan, Gernikan, ganik gan, Bonik han*
- *Laburra, barrura, heldu da, ardura, deabrura*
- *Honetara, ez bada, lan baga, dantzara*
- *Arimaren, arren, bigarren, amen*
- *Danari, mirari, Baskoniari, ehunda bi*

- *Arduraz, zugaz, benturaz, deutsudaz*
- *Ikara, bertara, Undurrara, barkukara*
- *Daitezán, dot esan, tristezan, ha zer zan*
- *Jazinta, jantzita, jausita, lau zinta*
- *Eleizetan, errezetan (errezatzen), ezetan, pezetan*
- *Irikiten, egiten, birriten, sarriten*
- *Beterik, besterik, beste bik, eskerrik*
- *Nun zertan, benetan, berbetan, ber-bertan*

Errimatzeke modu hau, Bizkaiko bertsolaritzan ez ezik, bertsolaritza osoan be ezezaguna zen. Behin edo behin, aurkitzen dira, bai, nobedade txikiak, baina, harek legez, hain era natural eta sistematikoan egiten dauen kasurik ez dot uste dagoenik, ezta askoz geroago be, *Hiztegi Errimatua* eta horrelakoak etorri arte, behintzat. Berezeko intuizinoz ete zebilen Latxa? Gatxa. Nahitaez, errimari buruzko gogoeta luzeak eginak izan behar zituen, eta ez dago dudarik azartetako intuizinoa izan ebala.

NEURE AMA MAITEARI

(“Bertsoak neure ama maiteari, Ignazia Aguirreri”.)

(*Euskalduna*, 1903, 275. zk., 3-4. or. eta 151 or.)

01. Hamahiru seme-alaba gara
zuk hazi gaituzuzanak
atsakabeak hamahiru mila
guk emon deusuguzanak.
Larogei mila izango dira
zuk emoniko laztanak
eta guk barriz lotsa bagarik
aiztu genduzan dan-danak.

02. Hamahirutatik zazpigarrena
ni naiz zuk eginikua
edo hamahiru neba-arrebetan
erdi-erdi erdikua.
Nok egin eustan niri harako
birau edo begizkua
izateko ni zuretzat, ama,
seme arpegi bikua?

03. Izan naizala arpegi biko
seme zantarra zureztat
neuk dakit, ama: emon deustazuz
ehun mila gurari, bitzat:
emon deustazuz beti ta beti
zeure bihotzeko giltzak
eta nik barriz hartu bai baina
eskerrik ez emon, behintzat.
04. Seme danentzat euki dituzuz
bularrak bete-beterik
ez daukazula irribarria
baino eurentzat besterik.
Zuk egin dozun lan handiori
egingo dabe beste bik?
Gurari danak emon ta gero
eurak ez hartu eskerrik?
05. Baina amatxo maite-maitea
zergaitik zagoz, nun, zertan?
Izan ete da atzo gaubeko
nire ametsa benetan?
Bada egin dot egon zinala
atzo gaubian berbetan
Andra Maria Birjiniagaz
hantxe zeruan, ber-bertan.
06. Mari Kruz eta Edita dira
Filipaz neure arrebak
Aingeru eta Mauriziotxu
Eusebitxugaz aurrenak.
Karlos, Jakobak, Rikardok eta
Angelak, Teres laztanak
danok nahi dogu hor emotea
eskerrak, arreba Juanak.
07. Izan bazara mundu honetan
ama hamahiru semeren
zeru horretan izango zara
izan zareana hemen.
Eta gu barriz aitzu bagara
esker emoten zuri lehen
hartu egizuz oraintxe, ama:
Requiescant in pace. Amen.



03. **Ehun mila gurari, bitzat:** “bitzat”
honek ondoren datozen alderdi
kontrajarri biak
esan gura dau. Batetik, amak
“bihotzeko giltzak emon” eta, bestetik,
semeak “hartu bai, baina eskerrik emon
ez”.

MARTIN ANTON TXINTXURTA

(Euskalduna, 1898, 96. zk., 212. or.)

01. Martin Anton Txintxurtak
Peru Txorixori
iri bat ostu eutsan
eukana oso lodi.
Peruk jakin gurarik
nun zan iri hori
lau meza atara eutsazan
San Antoniori.
02. Handik laister entzunik
Txintxurtak eukala
juan ta hasi zan berbaz
esaten deutsalara:
– Martin Anton, iria
zeuk ostu deustazu
– Berba, Peru Txorixo,
hobeto egidazu.
03. Modu onian dinotsut
berba ondo egiteko
egon gura ez badozu
kartzelan betiko.
Bada jakin dagizun
arraina da idia
errekan koxu ezkeru,
ta edozein priztia...
04. Ta zelan koxu dozu?
– Butroian.
– Benetan?
– Gorbeieko erreka
ur handienetan.
Peru hau entzunagaz
egoan pentsetan
zelan koxuko ete'ban
bera sarietan.
05. Handik egun bi barru
zepo bat errekan
ipinirik, jausten da
Martin Anton bertan.
“Ai ene!”, egite'ban
“Ai, baina ni zertan
hasi nintzan lehenengo
iri lapurretan?”.
06. Zepoan ebilala
indarka azaria
heldu jakon bertatik
Peru kazaria.
“San Antoniño!”, dino
“Hau da arrankaria!
Honegaz atara dot
Neure idi saria”.

07. – Martin Anton!
– Ai Peru!
Arrain dala iria
pentsatu dot. – Ta nik zu
zarela pritzia.
Bakez ez dagozanak
euraren lekuan
halantxe jausten dira
azari zepuan.



01. **Iri:** idi.
03. **Koxu:** harrapatu.
Priztia: pizti.

04. **Sarietan:** sareetan.

PELLO MARI OTAÑORI

(La Baskonia, 1905, 419 zk.)

01. Zu zara nere osagilea
zu, Pello Mari Otaño
ez det nik beste osagilerik
bilatzen hemen zu baino
lur honetara heldu nintzanik
ta gaurko eguneraino.
Atara zazu daukadan narrau
sarturik bihotzeraino.

03. Erraz daikezu, bada, Otaño
neronen narra atara
juan naitian egunen baten
nere gustura lotara.
Entzun egizuz erregu hoiek
entzun egidazuz, bada
honetariko zauri gaiztoen
osagilia zu zara.

02. Ezin det gaubaz lorikan egin
izanagaiti logura
bada nar haiek igoten zaizkit
bihotzetikan burura.
Baldin zuk, Pello, ez badeustazu
gaur ataritzen nar hura
laister, bai, laister juan bihar det
hemendik beste mundura.

04. Zauri gaizto hau osatuteko
erraz eta orpotikan
ez det bilatzen osagilerik
ta osagarririk botikan.
Hutsa zan, Pello, sartu banintzan
bakarrik bat edo bitan
baina sartu naiz beraren bila
hainbeste mila tokitan.

05. Badakit nun dan zauri honentzat
nik osagarritegia
baina urruti, urruti dago
belar osaki mendia.
Urrun ta urrun aurkitzen da gaur
nere biziña erdia
zein dedan beti hil arteraino
amatxu Euskal Herria.
06. Amatxu harek ezin du eta
Pello, osatu dezazu
bihotz honentzat pozkida pixkat
bada, arren eman zazu.
Zeure bertsuak entzundakuan
ni osatuko naitzatzu
eta lotxuak esan nahiko du:
Boni, ez zaite esnatu.



01. **Narrau:** nar hau, lar, sasi, arantza hau.
03. **Erraz daikezu:** lerro hau aldizkarian
holan zetorren: *erraz dezu bada /
neronen narra atara*. Konpontzen
ausartu naz, errakuntza ziuorra
delakoan, Latxa sekula ez baita
neurrian deskuidatzen, eta gitxiago era
nabarmen horretan.
05. **Belar osaki:** osa-bedar, osasun-bedarra.
06. **Osatu dezazu:** sendatu dezakezu. Ez
ete da *osatu nezazu*-ren errakuntza
bat?
Naitzatzu: *naiatzu-natzaizu* aditz
forma bizkaiera-gipuzkerazkoen
nahastea.

PAKA ETA KRISTINA

(La Baskonia, 1905, 417 zk., 328. or.)

01. Eder galantak zerate baina
ene bihotzeko pena!
Bazterturikan utzi dezute
edertasunik onena.
Gorputz liraina, kolore gorri
alaba euskaldunena
ta, barriz, ez nahi egin hizketa
Aitak egiten duena.
02. Gezurra dala esango nuke
eskaturikan baimena
zuen aitatzu dala euskaldun
Markos Azuzabarrena.

03. Hainbat urtian Ameriketan dezutez aita ta ama ta orain ere euskeria da hoién hizketa dan-dana. Ta zergatikan ez dezute nahi hartu aitatzuk emana? Hain da dezuten gorroto hori handia aitarengana?
04. Edertasunak ez du egiten euskaldunaren alaba baldin huraren euskaltasuna bihotzetikan ez bada. Honetariko euskalduna da ate bagako aldaba edo patatak egosten diran eltz bat, hura kirten baga.
05. Uste det lartxu sartu dedala neure lumatxu arina barka zazute Boni Latxari Pakatxu eta Kristina zuen ongarrri paper honetan jotia honek txilina ez nituzen, ez, hitzok egingo adiskide ez bagina.



03. **Dezutez:** *dozuez-dezute* aditz formen nahastea.
04. **Eltz:** eltze, lapiko.
Baga: bage, barik.
05. **Lartxu:** larregitxo, gehiegitxo.
(Juarez-en, 1905ean).

GORA GURE FORUAK

(La Baskonia, 1905, 412 zk., 247. or.)

01. Euskal Herriko seme guztiak deadar bat gaur egin dabe ta barriz hango agintariak inoren bildurrik gabe harako aitak urteiten daben bezela semeen alde poz-pozik danak urten dabe gaur Euskalde adar hoién jaube.
02. Euskaldun hoién deadar eder hau da “Gora gure Foruak!” dirauen arte Alkate Jaun da lau aberriko Buruak. Gora, mutilak, foru ederrok emonik guri goguak bakez ez bada, txarrez kentzeko laster joko dau orduak.

03. Gure anaien hitz hoiek dira
pozgarritsuak benetan
nere barrua ipini dabe
behintzat, pozarren erretan.
Eta orduan ezin badot nik
lagundu hemen ezertan
laster naiz jua Euskal Herrira
eta lagundu han bertan.

04. Gure lur maite Euskal Herritxu
amaren seme laztanak
egin, bai, egin gogor motzari
gogortu hor zeuen zanak
ekarri arte Euskal Herrira
osorik Lege Zahar danak
eta orduan ze poz handia
hartuko dau gure Amak!



01. **Harako aitak urteiten daben:** halako,
delako aitek urteten daben.
Euskalde adar hoien jaube: *Euskalde*
hitzak euskaldun-alde edo Euskal
Herriaren zati adierazteko neologismoa
dirudi. Euskal Lurraldea. Edo Euskal
Herriaren sinonimoa. Horrela, *Euskalde*
adar hoiek Hego Euskal Herriko lau
lurraldeak litzatekez.

03: **Erretan:** erretzen.

04. **Motzari:** motzei, belarrimotzei.
Kanpotar espainolak izentatzeko hitza.

BETI ZAITUT MAITE

(La Baskonia, 1905, 400 zk., 600. or.)

01. Lur horretatik urruntxu nago
baina urrun egon arren
uste dot, neure Euskal Herria,
maite zaitudala nik, lehen
baino gehiago, bihotza daukat
amodiozko su-garren
erdian, dana kiskil-kiskilik
zu ikusteko pozarren.

02. Noiz izango dan egun dontsu hau
jakiten dodanian nik
ez dakit zelan egongo naizen
dantza bat egin bagarik.
Eta benturaz ez badau inok
nahi egin nigaz dantzarik
“Aita San Migel Iurretako”
egingo dot neuk bakarrik.

03. Honetarako jantziko ditut abarketatxu zuriak txapel azula, barradun prakak txiribizko galtzerdiak. Ta arkondaran lora, kolore gorri pintañoakeriak eta sedazko gerriko ederra euko dau nire gerriak.
04. Aurrekulari baten plantia hartuko dot nik orduan ez deust ardura jakin ezarren dantzan onaren moduan. Bada ez dago dantzari onik txarrik ez bada onduan ta halan bere ez dituz harek puntu guztiak goguan.
05. Zortziko zahar hau amaitu eta ikusiko dot zertxu bat maite doguna nik, nire aitak anaiak eta osabak. Ikusiko dot maite dabena Euskal Herriko alabak zertxu hori da maite dabena euskaldun garbi dan-danak.
06. Arbola zahar bat Euskal Herrian da ikusiko dodana gerotxuago beste bat bere harek onduan daukana. Ahal dodan beste hurratuko naiz arbola santuokana eta poz-pezik kantauko deutset biari bertsotxu bana.
07. O, arbola zahar, maite-maitea euskaldun urre-kutuna errege askok baino gehiago beti balio dozuna! O, arbolatxu gazte liraina orri zabal, samurduna! Noiz izango dan nago pentsatzen desio dodan eguna.
08. Urrun ta urrun Euskal Herri urrun ta urrun nago, bai baina agur bat egin bagarik ez dot lumia itxi nahi. Entzun dozue, euskaldun danok Agur, bizi beti alai bada ni bere halan bizi naiz barre ta barre, ja-ja-jai.
02. **Dontsu:** dohatsu, zoriontsu.
03. **Txiribi:** txiribia, tximeleta. Tximeleta koloreko galtzerdiak.
Euko: eukiko.
06. **Hurratuko:** hurreratuko.
07. **Urre-kutuna:** urrezko kutuna, aldean eroaten den zer babesgarria.



BARKO NIRE AMESA

(La Baskonia, 1904, 393. zk., 527. or.)

01. Lur honetan ez jat jazo
inoiz honelakorik
ez dot egin inoiz bere
ames gozoagorik
bart egin dodana baino
hain egon naz usterik
Ubidera juan naizala
barku baten duberik
lagun egiten eutsala
hareri bestetxu bik
barrenetik ganeraino
diruz bete-beterik.
02. Dirudun barkutxu biak
neuriak izan dira
aberats egon ez banaiz
euskaldunak, begira:
Ordu bian juan nintzan
hemendik neure herrira
bide luzia egon arren
guzurretik egira
emakuma, gizon, ume
danak ziran senida
esaten ziharduela:
“Don Boni etorri da!”
03. Hainbeste Don, Don, Donegaz
gutziz Ton-totu nintzan
bada Boni ordura arte
inoiz ez zan Don izan
ez etxian, ez kalian,
trabenan, ez eleizan.
Nahi dozue zer zan bada
Don nik zueri esan?
Entzun egizue, bada
nire Don hori Din zan.
Esan zuek ez badot jo
naurri-naurriko giltzan.
04. Zelan ziran diru-zorro
asko eta handiak
gatx zan lepoz eruaten
halako zaragiak
eta ekarri genduzan
Martzeloren idiak
bebingo baten legorturik
dirudun barku biak
laister etxeratu ziran
zorro-zaku guztiak.

05. Idiaren jaubeari
emon neutsan ehun duket
bere idiaren eta
bere beharren truke.
Pozen pozagaz Martzelo
joian bidean puzke
esaten ebara: “Bihar
beste bat bagenduke
ze poza, andra Katalin,
etxe aldean guk, e?
Ondo biziko ginake-
zala ez dozu uste?”.

06. Handik laster deitu neutsan
neure senideari
jakin egian guztiak
nire agintzen barri.
“Emoten dot –esan neban–
neba-arreba danari
hogeine mile duket ta
zortzi mila amari.
Honek zortzi milok dira
beraren meza-sari.
Miloi...baina nun da, bada,
nire Eako Mari?”

07. Gerorako itxi neban
neure agintzaria
ez zalako han agertzen
inoiz bere Maria.
Handik laister entzun neban
Marionen barria
itxaroten egon arren
Boni soinularia
juan bagarik daukala
bere txistu-larria
emon eustan laztaneko
hain gomutagarria.

08. Honetantxe nengoala
neure lanok eginik
baina senide urrunak
bakez euki ezinik
bada danentzat ez neukan
ez agorik ta ez txinik
batek esan eustan: “Betoz
diru danok isilik
bestela beste mundura
bialduko zaitut nik”
eta iratzartu nintzan
ohipean hotzak hilik.



01. **Ubide:** Ubidea, Legutio eta Barazar
bitarteko herritxoa, Latxaren
jaioterria.
Barku baten duberik: barkuan dohan,
dohainik. Ubidera barkuan igotea
amesetan be ez da erraza.
02. **Naurri:** neurri.

04. **Legorturik:** legorreraturik, lehorrera
ekarririk.
06. **Jakin egian guztiak:** jakin zeieen,
zezaten guztiek.

07. **Agintzari:** agintzen dena, promesten den eskaintza. Tratuan, eskaria eta agintzaria egoten dira. Batak honenbeste eskatu, besteak honenbeste agindu.

Marionen: Maria honen.

Txistu-larria: tua edo txistua botatzeko gogoia. Ahoa zerbait onaren pozez urtzea be izan leiteke, baina hemen bestea da. Latxak Maria etorri daiten gura dau, baina ez jako etortzen, Ameriketara urtekeran emondako laztan edo mosuak itzi eutsan txistu-larriagaitik.

08. **Txinik:** txintxinik, dirurik.

Ohipean: ohapean, ohe azpian.

NIRE ETORRERA

(La Baskonia, 1904, 383 zk., 368. or.)

01. Lur honetara heldu nintzala
oraintxe dira hila bi
uste dot, barriz, juan dirala
hogeita zazpi gizaldi.
Bada itxasoz ikusi dodaz
hainbat moduko ilargi
arrainak barriz txiki ta handi
miloiak: ura ugari.

02. Hainbeste mila izar, hainbat ur
hainbat arrain ikusirik
ez dot ikusi itxaso horretan
neuk gura neban erdirik.
Ez dot ikusi arto solorik
ez dot ikusi herririk
ez dot ikusi, o neure pena
Euskal Herriko mendirik.

03. O, Euskal Herri maite-maitea
ez neban uste sekula
urteetarako edo betiko
agur egingo neuntsula.
Baina egia esakerea
gizonok uste dogula
ta, barriz, hango zero altuko
Jaunak agintzen deuskula.

04. Barku zahar baten ta heldu baino lehen
Haize Onetako portura
arrain artera juango nintzala
egingo neban postura.
Bada sarritan zeebilan urak
berak nahi eban modura
eta orduan esaten neban:
“Konfesatzeko ordu da!”.

05. Noizbait portura heldu nintzan ta lurra jo baino lehenago ikusi neban gizon bat, zein zan ikatza baino baltzago. Orduantxe bai esan nebala: “Nora heldu naiz, non nago? Herri honetan ez dago gizon baltz-baltzak baino gehiago?”.
06. Barku zaharreko urteierea zan guztiz pozgarritsua haintxe mutuak berba egin eban ta argiratu zan itsua. Pozaren pozez tontotu egin zan gizon guztiz jakintsua ta barriz dantzan danen artean eбилan Boni zintzua.
07. Kalerik kale ibili nintzan Haize Onetako urian adiskide bat bilatu бага egun ta arrats guztian. Neure gomuta dana nebala han neure Euskal Herrian eta pena bat guztiz handia neure bihotzen erdian.
08. Aizkenerako bilatu neban O, zelan diran denporak! Sarritan honek emoten dabez arantzak, ta gero lorak. Bilatu neban... pozen pozagaz zirt egiten deust odolak orain hamabost urte izan zan neure adiskidetxo bat.
09. Itaundu eustan nungua nintzan noiz heldu nintzan ta zertan eta orduan pozez beterik hasi nintzakon berbetan. Esan neuntsazan abizen biak eta momentuan bertan dinost: “O, gara adiskideak hamabost urte honetan!”.
10. Apaiz jaun batek hau esanagaz ez nenkiean nik zer zan baina horregaitik itandu neuntsan bere izena zelan zan. “Karlos Arrieta antxinakua! Badakizu orain nor nazan? Zeure tokian gelditu arte beure etxera bai guazan!”.
11. Zelan, On Karlos, pagauko dodaz nik mesede hain ederrak? Zelan, On Karlos, pagauko dodaz egin deustazuzan txerak? Zelan pagatu zeure etxian emon zeunstazan nahierak? Ezin dot esan, esan daijala Bihotzak: “Karlos, eskerrak!”.
12. Jakingo dabe Euskal Herrian bai zure portakizuna entzungo dabe zure bihotza dala, bai, guztiz biguna. Jakingo dabe ez daukazula ez zuk arpegi iluna entzungo dabe arran soinua bada naz arran minduna.

13. Zuek, Euskal Herriko
euskaldun paperok
Sarri nire izena
Esan dozuenok!
Egizue mesede
oin bere esatea
bada ondino daukat
hor neure izatea.

14. Egizue esan bada
ondo nabilala
eta ez uste izan
aiztuko nazala.
Gorantzi asko bada
euskaldun danari
batez bere Ea-ko
Abadetxoari.



01. **Hila bi:** hile, hil, hilabete bi.
03. **Gizonok uste dogula:** gizonok uste...
Jaunak agindu. Gaztelaniazko “*el hombre propone, Dios dispone*”
esakeraren moldakuntza.
04. **Haize Onetako:** Buenos Aires esan
gura dau.
Postura: apustua.
Zeebilan: zerabilen, urak barkua, hai
zearen eraginez.
11. **Txera:** xera, abegi ona.
Nahierak: gurariak, kapritxoak.

12. **Arran... arran minduna:** joare,
zintzarri mihiduna. Esakera da *min
bako arrana sasian usteldu*. Mihin
barik, ez denez entzuten, bertan
usteldu behar. Alderantziz, ostera,
arran mihinduna izateak esan gura dau
ez dela isilik egongo, kontatuko dituela
behar direnak eta ez direnak.

BASKONIARI

(Aldizkariaren hamabosgarren urtian.)

(La Baskonia, 1907, 505 zk., 14. or.)

01. Baskonia, zu jaio zinala
hamabost urte dirade
denbora horretan hartu dituzuz
hainbat mila atsekabe.
Eta guztiak igaro dozuz
ezeren bildurrik gabe
horregatikan zara gaur hemen
euskaldun on danen jabe.

02. Baskonia, zu jaio berritan
edo gaur hamabost urte
zinan haurtxo txit txiki biguna
beti negarrez, murmurke.
Nork egun hatan esango zuen
eta nork esango luke
zein zinan eta gaur nor zeraden?
Askok sinisten ez dute.

03. Baskonia, zuk mesede truke
ta on eginaren sari
hartu dituzuz, hartu dituzuz
atsekabeak ugari.
Bainan ez euki ardurarikan
barka zaiozu danari
ta bitartian ni hemen nago
zure omenak kantari.
04. Nere bertsuak gaur ez dirade
bakar-bakarrik zuretzat.
Erdi-erdiak gutxienean
bi, hiru, edo lau behintzat
dirade zure jabe, nagusi
ta menpetariarentzat.
Esan nahi dedan dana esanik
eman det lan hau egintzat.
05. Orain On Jose Uriarteri
zertxubaist esan nahi diot
ditudalako adiskideak
Baskonia ta hau, biok.
Erantzuidazu, Josetxu, bada
iriki zazuz begiok
ta ikusi zazu zenbat nahi deutsun
gaur zuri Bonifaziok.
06. Badakit zeinbat lan egin dezun
hamabost urte honetan
badakit nola izan zarean
zu beti Ameriketan.
Ez da mirari Euskal Herriko
uri ta baserrietan
bihotzetikan maite izatea
danak zu bene-benetan.
07. Zuk eman dezu frutu ederra
gustatzen zaie danari
zuk egindako lan eder hori
da guziaren mirari.
Bakar-bakarrik begiratzian
gaur zure Baskoniari
esan leike ze hamabost urteen
alde ditula ehunda bi.
08. Nahiku da bada, adiskidea
nahiku dezu zuk lanikan
adiskideak ugari dezuz
Bermeon eta Gernikan.
Ta zuaz hara, ibili zaite
mendirik mendi, ganik gan
denboraz ia bilatzen zaitun
zure adiskide Bonik han.



04. **Menpetari:** menperatzailea, zuzendaria izan daiteke, edo menpean dagoena, kasu honetan, irakurlea.
05. **Zertxubaist:** zerbaitxo, zeozertxo. *Bait* atzizkia Ubidea inguruetan, *baist* da: *zerbaist*.
07. **Hamabost urteen alde:** hamabost urteen ordez, hamabost urte izan beharrean.

BIRAUA, DAMUA ETA ZORIONA

I. Biraua

(La Baskonia, 1907, 494 zk., 405. or.)

01. Zori gaiztoko egunen baten
etorri nintzan mundura
zorigaiztuan hartu nuen bai
nik bataioako ura.
Zorigaiztuan Euskal Herria
da ni sortu nazen lurra.
Birau batekin hil ahal banintza
eta juan inpernura!
Baina ez degu inpernurikan
Ez! Guzia da gezurra!
02. Alperrik hemen nere bizitza
txit izango da laburra
alperrik sartu gorputz ta arima
hango sutegi barrura.
Esaten ditene batera: "Asko!
Zure epea heldu da".
Nahikeri danak euki ezker
hemen, eloskit ardura
hamabost mila deabrurekin
Juateko... "deabrura!"
03. Zertarako gu etorri gera
bada mundu honetara
nahikeri danak geure antzera
egitekotzat ez bada?
Zergatikan gu ez gerade gaur
biziko ongi lan bagea?
Zergatikan guk ele bezela
ez degu egun ta gaba
jan ta juateko jokora batzuk
eta bestiak dantzara?
04. Buruzakego herritar nua
gaurgandik bihurtutzero
jan da lan bagea bizi nahi duen
guziaren egokera.
Bizi gaitezen guziok bada
hemen ganadu antzera
eta hil bedi apaiztarra ta
hil bedi nere Euskera!
05. Ez degu behar apaiz alperrik
ez degu behar lanikan
behar deguna da egitea
lan gutxi eta ongi jan.
Honetarako onen-onena
da buruzakego izan
hil aberatsak eta probiak
gu bizi, abere izan.



- 02. **Eloskit:** ez leuskit, ez lidake.
- 03. **Ele:** eli, ganadua.
- 04. **Buruzakego:** berak *anarquía* ipintzen dau oharrean. Berak asmatutako neologismoa izango da. Esaldian eta hurrengo bertsoan be, gehiago dirudi *anarkista*, adjektibo moduan josten dau eta.

BIRAUA, DAMUA TA ZORIONA

II. Damua

(La Baskonia, 1907, 495 zk., 424. or.)

- 01. Ai nere gaiso, triste
ta errukarria!
Galdua naiz betiko
Ai nere larria!
Ilundu da neretzat
munduko argia
eta beste munduan
ze bildurgarria!
- 02. Beste munduan ez det
ezer bere itxaro
bada deabruakin
bat eginik nago.
Ta honek ikaratzen nau
askozaz gehiago.
Zergatikan ez nuen
pentsatu lehenago?
- 03. Birau itzalgarría
bota nuenian
inguratu ziraden
nere aldamenian
Inperuko deabru
zaharrak aizkenian
eurakin ikusteko
su eta gar ni han.
- 04. Gaisorik arkitzen naiz
hau da ezbeharra
ez det onik ikusten
guzia det txarra.
Nere laguntzakoa
da deabru zaharra
bakardaderik bada
hau da bat bakarria.

05. Ez det nork begiratu
neri arpegira
bakarrik deabrua
det beti begira
Nere aldamenian
bai jira ta bira
esaten: “Hil-pausuak
hor sentitzen dira”.
06. Zer egin behar det nik
egoera honetan?
Birau itzalagatik
nago ni penetan.
Orain bai sinisten dot
nik bene-benetan
dagola Jaungoikoa
zeru zabaletan.
07. O, Jaungoiko ahaltsua
Jaungoiko laztana
oso damaturikan
nator ni zugana.
Aurrerantzian beti
zuria naiz dana
ez naiz inoiz izango
lehen izan naizana.
08. Egin bedi gaur, Jauna
zure nahitasuna
barkatu egidazu
birau hain astuna.
Eta nahi ez badezu
eman osasuna
hil ta gero nahi nuke
ha zeuk dakizuna.
09. Hilten banaiz ez det nahi
juan inpernura
osatzen banaiz, zugaz
ez det aitzu gura.
Ta hilgo banintza, barriz
eloskit ardura
ni eruan ezkeru
hegazka zerura.
10. Erruki zaiz gaur bada
nire arimaren
Jaungoiko handi hori
erruki zaiz arren.
Lehenbiziko ez banaiz
naiten gaur bigarren
zu laister ikusteko
zeruetan. Amen.



06. **Birau itzalagatik**: birau handiagaitik, izugarriagaitik.
08. **Ha zeuk dakizuna**: zeuk dakizun ha, zeuk dakizun hura.

09. **Eloskit**: ez leuskit.
10. **Zaiz**: zaitez.

BIRUA, DAMUA TA ZORIONA

III. Zoriona

(La Baskonia, 1907, 496 zk., 435. or.)

- | | |
|---|--|
| 01. Noiz, nun eta nola
hainbat zorion nik?
Nola txarra izanik
lehen, da ba gaur ona? | 07. Dirua ugari
det esku artian
ta egun batian
eskerrak Jaunari... |
| 02. Zergatik dirade
mesede hain ederrak
txar batentzat, berak
onik egin gabe? | 08. Ez nuen sinisten
zeru-inpernuan
ta barriz nenguan
gaisorik ta ikusten... |
| 03. Atzo zan gaisua
ta gaur barriz dago
osasuntsuago
gaiso gisaisua. | 09. Arerio beltza
apaizaren nintzan
ta gaur apaizgintzan
da nere ametsa. |
| 04. Lehen txit gaiztua zan
ta gaur barriz ona
Jaunak gauzak nola
nahi, hala dira izan. | 10. Bi seme dituten
barria det jakin
apaiz dira egin
biak egun baten.
Nor izan leiteken
apaiz gaur eurakin! |
| 05. Ni probia nintzan
lehen, gaur aberatsa
indarrez naiz hartza
legoi baten gisan. | 11. Zoriontasuna
det gaur nik ugari
eskerrak Jaunari
hain da txit biguna. |
| 06. Nik uste bagarik
ditut indar asko
ondu naizalako
da bakar-bakarrik. | 12. Jaungoiko laztana
eskerrak nik zuri
eutsiz semetxu bi
neu ta nere dana. |



11. **Dituten:** ditudan.
12. **Eutsiz:** hartu eizuz. *Eutsi = tori,*
nor pluralez.

ERNIALDETARRAK

(La Baskonia, 1906, 470 zk., 24. or.)

01. Asto txerri-belarri
 madarikatua!
 Zergatikan ez dek nahi
 etorri, astua?
 Bada, gaur arto orde
 jango dek lastua
 ta ura petraletikan
 lotsa bagekua.

03. Alperrik egingo dek
 atzerantz, Periko
 muturreko sokatik
 ez diat utziko.
 Ta hemen ikusiko dek
 nola lehenbiziko
 heu nekatuko haizen
 sekula betiko.

02. Arri, asto zantarra
 hator aurrerantza
 eta ez egidak egin
 horrenbeste arrantza.
 Horrela portaturik
 dek heuk esperantza
 artoz kontsolatzeko
 askan heure pantza?



01. **Petral:** asto edo zaldi uhala. *Ura*
 petraletik edateak hain barik geratzea
 esan gura dau, egarri egon beharko
 dauela.

EUSKALDUNA NAIZ

(La Baskonia, 1906, 464 zk., 1. or.)

01. Euskalduna naiz, oso
euskaldun garbia
baina ezin izan det,
esanik egia
irakurri kondaira
hain miragarria.
Nekezale batentzat
ze pena handia!

02. Dakit nola ginan lehen
zoriekuak
baina gaur ezbeharrez
gera menpekuak.

03. Baina nere bihotzak
dino bere artian:
“Anai bezela danok
alkartu gaitian
eta geure foruak,
ez bada bakian,
gerran hartuko deguz
egunen batian”.



01. **Nekezale:** nekezale, artisaua. Izan daiteke nekazaria be.

Kirikiño

Ebaristo Bustinza Lasuen, Kirikiño ezizenez ezagutua, Mañarian jaio zen 1866an eta 1929an hil. Madrilen, matematika eta fisikan lizentziaturik, Guadalajaran irakasle egon zen. Gero, Euskal Herrira itzulirik, idazlerik oparoenatarikoa eta eragilerik handienatarikoa izan zen. Eta, bertsoan be, bere lorratza itzi eban, Bizkaiko idazlerik gehienen tradizino izan den moduan. *Bizkaiko Bertsogintza II Izendunak* liburuan, 499. orrialdetik aurrera, sorta batzuk sartu genduzen. Hirugarrena egitean aurkitutako beste sorta batzuetarik, ondorengo honeek hemen emoteari ezin izan deusagu

itzi, halako idazle batek bertsolaritza zelan erabilten eban hobeto jabetzeko.

ERRATZIK ONENA

(Euzkadi, 1917, 1707. zk., 1. or.)

- | | |
|--|--|
| 01. Katuari buztana
zapaldu eiozu
astin-astin jarririk
purrust egingo'tzu. | 06. Alkate hori ei zan
Burgostik etorri
ta gure Euskal Herrian
aginduten jarri. |
| 02. Harri bategaz joizu
buruan txakurra
hor juak larri-larri
alarauz etxera. | 07. Beti motzai euskeraz
egingo bageuntso
amurratuta geunkez
beti erabiliko. |
| 03. Adakiaz astua
neurtu bizkarretik
arrantza baten dua
belarriak zutik. | 08. Ta ekin eta ekin
eliaz bakarrik
bialduko gendukez
guztiok hemendik. |
| 04. Ugao Miraballesko
alkate dana be
euskeraz ein ezkeru
jarten da astindute. | 09. Astuai adakia
txakurrai harria
eta belarrimotzai
euskera garbia. |
| 05. Purrustadia jaurti
euskun lehengunian
berai ez esateko
ezer gure elian. | 10. Euskadi garbitzeko
ez dago erratzik
gure euskerea baino
erratz hobagorik. |

11. Erratz hau geure eskuan
daukagu ta, beraz
lotsa pixkat badogu
ein daigun euskeraz.

12. Ai zenbat aineketa
Ebrorantz orduan!
Zein pozik gu, jarririk
bidien onduan!

13. Orduan eingo geunke
didar bihotzeta
Gora gure euskerea
Ta Gora Euzkadi!



02. **Juak:** *doa* hiketa maskulinoan.
05. **Lehengunian:** lehengo egunean.

12. **Aineketa:** arineketa, lasterkaldi.

HORI DOK BIZIMODUA

(Euzkadi, 1917, 1673. zk., 1. or.)

“Pello Josepe” Betelun da ta
bialdu dausku kartia
bertan esanik goizik gabera
egiten daben guztia.
Eguzkia hartu, jan da pasiau
edo poz-barriketia
señoritakaz euskeraz egin
hori dok bizi izatia!
Mutilak, holan bizitekotan
hauxe dok asmo neuria
halako baten pardela hartuta
Betelun neu be jartia.

AI, KIRIKIÑO!

(Euzkadi, 1917, 1678. zk., 1. or. Egilea: Pello-Josepe)

01. Ai, Kirikiño! Jaurti daustazu
gaur ziri sekulekua
nik horra bota neutsun kartiak
merezi eban lakua.
Hori dala-ta, nire kontura
ein dabe barre nahikua
eskarrik asko guztiaugaitik
aiskide bihotzekua.

02. Hainbat lasterren pardela hartuta
etorri zaiz Betelura
bihotzez maite zaitun lagun hau
ondo bizi dan lekura.
Ogetik hara ez da paltako
Iturri Santuko ura
jan bitarte ta goiz nahiz artsalde
noznahi eta zenbat gura.
Eta urdaila jakirik barik?
Ez izan horren ardura.
Gauza danetan daukogu hemen
geuk gura beste onura
hauxe dala bai bizimodua
balitz osaben kontura.

(*Erantzuna Kirikiñok*)

03. Orduan hor be pagau ein bihar
hain ondo bizi izateko?
Ez zala bihar nik uste neban
besterik agertu baino!
Ai, ai, ai, ai, ai, ez dogu bihar
alprojaik horretarako.

Gagozan geldi geure lekuan
hori holan dan ezkeru.
Gu lakuak han, hemen, edonun
nekez gara bizi izango
geure zorrua txin biribilez
bete ez badaigu lehenago.



03. **Txin:** txintxin, txanpon, dirua.

ITURRI LUZ, ITURRI LABUR

(**Euzkadi**, 1927, 4558. zk., 4. or. “*Umiei lo eragiteko abestuten diranak*” dino Kirikiñok berak.)

- | | |
|---|--|
| 01. Iturri luze, iturri labur
iturri ur gozoduna
Birjina Amaren uso zuriak
bertan edan dabe ura. | 04. Hartu dagizunien
gatzen ardurie
ez dozu olgado
maitie neurie.
Han egon biherko'zu
suaren onduen
kumiai eragiten
dringilin-dranguen. |
| 02. Jesus Umia sehaskan dago
Andra Maria lanian
bihotza bere geldirik ez ta
Jaungoikuari begira. | 05. Dringilin-drongo Marine
zeu zara neure pospoline.
Pospoline ta gaitie
zeu zare neure pospoline. |
| 03. Gure umetxu txiki politai
usuak eperrak ekarri
beste guztiei bana ta bine
gure umiai hamabi. | |

(Kirikiñok dino: “Hor *gatzen ardurie* dinon lekuan, *gauzen ardurie* edo da. Dringilin-drongo sehaska edo kumiaren zaratia da”)



04. **Gatzen ardurie:** gatzaren ardura, erantzukizuna. Harritzekoa da Kirikiñok *gatzen ardurie* ez ulertzea eta *gauzen ardurie*-edo dela pentsatzea. Gatzaren ardura hartzeak sukaldearen, etxearen ardura hartzea esan gura dau. Janariei gatza egitea umeen eskuan iztea arriskutsua da, ez dakie ondo kalkuletan eta. Gatza nagusien zeregina zen, batez be, etxekoandarearena. *Gatzaren ardura hartzea* nagusien beharrak egiteko gauza izatea da, eta, hortik, etxearen ardura osoa hartzea. Halan, sehaskako haurtxoari esaten jako, gatzaren ardura, etxearen karga hartu daienean, ez dauela olgetako astirik izango.

NAHI DAN LEZ? AHAL DAN LEZ!

(Gure Herria, 1924)

- | | |
|---|---|
| 01. – Esaidazu, adiskide
nora zoaz, nora
horren arin eta artez
aldatzean gora?
Ibili barik holan
hartuizu albora
heldu nahi bozu zeure
leku gogokora. | 03. – Goratzen da arranoa
hegaiz-inguruka
ta aihenak adarrean
bira ta biraka.
Ilintiaren keia
doa kiribilka
bideak mendietan
igoten zeharka. |
| 02. – Albora neuk? Ez hoixe!
Ni beti aurrera
noa mendi latz honen
gailur-gailurrera
bertako gordailu bat
neuregandutera.
Neure asabena zan
neurea da bera. | 04. – Zeharka joateko
ez daukot gogorik
gailurrera artez-arte
heldu gura dot nik.
– Gorantza ez daukozu
artez joaterik.
Artez? Beherantzakoan
harria bakarrik. |

05. – Gizonak beti artez
behar dau jokatu
alboetara barik
aurrera begitu.
Gordailura bidetik
atara nahi nozu?
Bide hau laga baino
lehenago zuzitu.
06. – Ez zaiz itxutu eta
oldoztu hotzean
zein eragozpen gatxak
dozuzan aurrean.
Ez dago nire nahia
zu gelditutean
zeu heldutea nahi dot
egin-eginean.
07. – Ez dot, ba, nik albora
ezegaitik joko
ni beti aurrerantza
zuzen naz igoko.
– Alperrik eta alperrik!
Ez zara helduko.
Laster zara horrelan
bidean galduko.
08. Hasi da, ba, artez-arte
gorantza joaten
han jausi, hemen jagi
astrapala baten.
Soina ta soinekoak
sasitzan urratzen
harri artean oinak
zauriz odolduten.
09. Hatx handi batzuetan
joten dau azkenez
ta lurrera jausten da
nekearen nekez.
Ostikurtika dabil
zutundu ezinez
eta gordailura noz?
Gordailura behin be ez!
Orain jakitun dago
belu bere kaltez
ezin danean egin
gauza bat nahi dan lez
egin beharra dala
ondoan ahal dan lez.



05. **Gordailu:** altxorra, altxorra dagoen lekua. Mendi tontorrean dagoela suposatzen da.
Zuzitu: desegin, birrindu, trimindu.

09. **Ostikurtika:** ostiko urtika, jaurtika, ostikoka.
Belu: berandu.

Kirikiñok berak idazten dau: “*Bertsularien primetako igortzen ditut beste aldeko hoik. Bizkaiko euskeraz idatziak dira, hitz berririk bat ere sartu gabe. Denak dira hitz zaharrak, herriak erabiltzen dituenak. Zuentzako, gure euskera gogorra-edo da eta, horigatik, ez dira izango atseginak zuentzako. Ez doa saririk irixteko ustean; bakarrik doa, bere beste anaien artean agertzeko; nahi du jakinarazi bai dala Bizkaia deitzen den Euskal Herri bat*”.

Kirikiñoren bertso sorta hau ikasbidezko alegietan sartzen da, Moglek eta sasoi bateko euskal idazlerik gehienek hain maite eben generoa bera. Ikasbidezko esakera bati (kasu honetan, *nahi den lez ez bada, ahal den lez*) istorio bat asmatzen jako, ikasbidea ondorio garbia izateko moduan.

Bestetik, deigarria da Kirikiño lako batek, Iparraldeko *Gure Herria* aldizkarira bialdutako ohar horretan, zelako azalpen apala, ia apaldua emoten dauen. Matematikari eta fisikari den idazle kultu batek bere euskalkiaganako halako lotsa edo justifikazino premina bazeukan, pentsatu beste kontzientzia makalagoek zelako konplexua edo gitxi-ustea izango eben.

Esteban Uriarte

Aita Santi Onaindiak *Gure Bertsolariak* liburuko 285. orrialdean dinonetik, Esteban Uriarte Etxebarria Diman jaio zen 1894an. Lanbidez, hargina zen eta, bizialdirik gehiena lan horretan Bermeon igaro ondoren, bertan hil zen 1947an, harri hautsak eragindako gaixotasunez.

Gorago aitaturiko Iñaki Esparza eta Angel Larrearen liburuak beste datu batzuk be gehitzen deusaz Estebanen bizitza oraindino ilunegiari. Dimako Bikarregi auzoan jaio zen. Ezizentzat, hiru behintzat erabili zituen: “Utarre” (Uriarte’tar Esteban, U tar E), “Arratiako txori txikia” eta

“Bermeoko urretxindorra”. Basarrik irabazi eban Donostiako Lehen Bertsolari Egunean parte hartu eban (1935-01-20), Bizkaiko ordezkari legez, baita Lekeition be, Zazpigarren Eusko Olerki Egunean.

“Euskaltzale eta abertzalea, –dinoe Iñaki Esparzak eta Angel Larreak–, Gerra Zibilaren ostean, *Utarrek* kartzela ezagutuko du El Dueson (Santoña, Kantabria), Larrinagan eta Burgosen, 1943. urte arte; gaixorik hilko da, lau urte geroago. Bere lana argitaratu gabe dago, hogeigarren eta hogeita hamargarren hamarkadetako aldizkari eta egunkarietan sakabaturik”.

Uriarteren bat-bateko bertsogintzatik, emoitza urria geratu jaku. Kepa Enbeita “Urretxindorragaz” askotan ibiltzen zela dinoe sasoiko lekukotzek, baina haren bat-bateko bertsorik, guk dakigula, bat edo bi besterik ez jaku heldu, Aita Onaindiak aitaturiko liburuan jaso, hain zuzen. Uriarte izan zen, 1935eko Euskal Herriko lehenengo txapelketa nagusian, Donostiako Pospolin Antzokian, Bizkaiak emon eban partaide bakarra. Han honako puntua ipini eutsien eta honela erantzun eban:

Aurkezlea: *Ekin zazu oraintxe
nere lagun zaharra*

Uriarte: Horretako bai dala
orain ordu txarra.
Badakizu haragiz
naizela malkarra
kanturako amaitu
da nere indarra.

Uriarteren beste bat-bateko bertso bat be gordetzen da, berea dela gutiz ziarra ez da baina. Behin, tabernan, ordaintzeko modurik edo gogorik ez zeukan mutilzahar bati honako hauxe kantatu ei eutsan:

Mutilzaharren bizitza
beti doa penaz
bentaja gitxi dauko
etxetik urtenaz.
Nik diru gitxi eta
hik bapez apenas
neuk gonbidatuko haut
poltsan daukotenaz.

Haren bat-bateko beste bertsorik ez jaku heldu, baina, zorionez, aldizkarietan idatzi zituen sorta ugariak hor dagoz. *Bizkaiko Bertsogintza I Izengabeak* liburuko 524. orrialdeko *Dimako idiari* izeneko sorta deigarria be berea izatea oso leitekeena da. Beste bertso-paper interesgarri bat be heldu jaku, Alfonso Irigoiainen artxiboari eskerrak. Batzuetan, errima nasai samarra badarabil be, bertso sorta hau egin ebana bazen zeozer.

AGURE ZELOSUA

(Alfonso Irigoiainen funtsa. "Bertso berriak, Bermeoko Esteban Uriartek jarriak".)

- | | |
|---|--|
| 01. Hiru-lau bertso jarri biharrik
aurkituten jat barrua
mingain zorrotzak diran medio
galdu ez daidan burua.
Herri honetan ez da besterik
neure murmurazina
jazo zan dana, txarra zein ona
garbi esatera nua. | 02. Ama Karmengo errukiorra
erruki zaite nigana
ondo dakizu motibo bage
ni txarto narabilena.
Gaixo bat dago pertsona baten
osatu ezin leikena:
Agure zahar bat zeloz beteta
dauen gaixorik txarrena. |
|---|--|

03. Egun batian agure horregaz
hartu nebala berbeta
gizon onen bat zala pentsaurik
mingain gozua dauko-ta.
Esakera da konfiantziaz
urteten dala erreta
begira hemen min gozo horrek
zabaldu daustan konduta.
04. Zer zan motibo etxe horretan
konfiantzia hartzeko
umore txarrez sarri kantau dot
jente gehiago batzeko.
Txarri-korta bat ein bihar zala
abere nik egiteko
hurrengo gero mostradorian
jentia zerbietako.
05. Neure arreba etorri dan lez
gaur goizean neure etxera
bere arpegie ez dau ekarri
bakezkuaren antzera.
Hemen ez ei dau aginduten da
atara ei dozu kanpora.
Holan andria erabilteko
motibuak zeintzuk dira?
06. Neure bizian ez jat ahaztuko
zelan San Pedro gaubian
kafia hartzen neu ta lagun bat
alkarraz egon ginian.
“Gabon guztiai” esan da gero
etxera urtekerian
kontua paga ta eskatu nion
kopa bat mostradorian.
07. Kopa horrerri atara eta
ezarri neutsan eskua
agure zaharrak barrutik diraust
berba ganorabakua:
“Beste batzuri bere esan deutset
zuri bigarrenezkua
ezer edaten datozenentzat
mahaian dagola lekua”.
08. Honek entzunda gora-goraka
barruak eustan irakin.
Itandu neutsan: “Zer da, gizona
jazoten dana zurekin?
Motibo horrek zeintzuk dirian
bihar nenduke nik jakin
bihar goizian etorriko naz
berba egiten alkarrekin”.
09. Hurrengo goiza heldu zan eta
joan nintzan zuregana
baita Lorentzo zure koinetu
oindik bizirik dagona.
Hak esan eutsun: “Zer da, Batista,
hako hemen jazo dana?”
Erantzun zeuntsan santu batian:
“Hamen bakian dao dana”.
10. Horrek kontuok esaten eurek
ni egon nitzan albuhan
testigurik han ez zala bihar
non dinon berak behinguan.
Horretarako erantzun neutsan
errazoia dan moduan:
“Neu nator hona bartko motibo
zer dan jakiten klaruan”.

11. Motibo txarrik ez zala eta
esanak parkatutzeko
berak baten bat insultau bihar
barrua deskargatzeko.
Erantzun neutsan: “Parkatute dao,
zer erain gehiau ez dauko.
Gaur egingo dot juramentua
gehiau hona ez sartzeko”.
12. “Horretarako –erantzun zeunstan–
ez egin juramenturik
aurrerantzian etorri zaitez
ez daukat zure kejarik.
Neronek dodan buruko mina
gauza bat dala bakarrik
neure andriak ez daust egiten
amodiozko barbarik”.
13. Zorigaiztoko sarrerria nik
ein nauen zure etxian
ordutik hona atsekabia
sarri daukot bihotzian.
Holan zabiltez aspaldi hontan
inori onura kentzian
igarri barik ibili barik
zeutzat gurrak batzian.
14. Nire aurretik beste batzuek
ziraden horko maixuak
esan zeuntsenak galdu deizala
zure etxerako pausuak.
Orain nirekin izan badira
hurrengo pasadizuak
bere andria jan ez dagigun
agure zahar zelosuak.
15. Zer esan gehiau badaukat baina
gordetan ditut barruan
harik jarriko dituguzela
honek ikasi orduan.
Zeure andria geuretzat dala
sartu deutsue buruan
ezjakineko gauzak esanda
jakinikuen moduan.
16. Trumonadako auri bat legez
herri guztia berbetan
neure onura jan biharrian
euren mingain zitaletan.
Desgusto hoiek hartu baditut
errurik бага ezetan
gure Jainkuak egunen baten
juzgauko gaitu benetan.
17. Esteban dala neure izena
apellidu Uriarte
urte askotan ibilikoa
jaio-herritik aparte.
Honetariko desonrra txarrik
ez jat zabaldu gaur arte
besten andrarik gura izateko
neuria daukat nik maite.
18. Gaur hamazortzi bertso barrigaz
horra neure despedida
ez uste izan nagoala ni
zeure andriai begira.
Ondo eginen paguak barriz
holan izaten badira
agure zaharko zelosuari
nork egin gauzak harira?



01. **Jazo:** gertatu.
02. **Bage:** barik.
Pertsona baten: pertsona bategan.
Dauen gaixorik: dagoen gaixotasunik.
04. **Zerbietako:** zerbitzeko.
05. **Urtekerian:** urtekeran, urtetean.
06. **Diraust:** dinost, diosta.
09. **Hak:** harek, hark.
11. **Zer erain gehiau ez dauko:** ez dauka gehiago zeri eraginik, gehiago ekin beharrik; ez dago beste zer esanik.
13. **Kentzian, batzian:** kentzen, batzen.
Zeutzat egurrak batzian: zeure burua erretzeko egurra batzen.
15. **Harik, honek:** haiek, hauek.
16. **Auri:** auria, orroe.
17. **Honetariko:** honelako.
18. **Ondo eginen paguak:** ondo eginaren ordainak.

NEURE ANAIEARI

(Arratiako euskal idazle aitzindariak, 285. or. Iñaki Esparza eta Angel Larrea)

01. Hau da daukodañ atsakabia,
hau da goguan ituna!
Agur ein barik aldendutia
neure anaia kutuna!
Sendi guztiak samin izan dau
zuk itxi dozun hutsuna
eta negarrez urtu biharrik
amaren bihotz biguna.
02. Hogeï eta bost urtekoa zan
zeure ludiko bizitza
Jaunak ez eban gehiako gura
emon dautsu heriotza.
Hemeko amak zeuri negarrez
zatitu badau bihotza
betiko Ama hor goian dago
Josuren Ama Neskutza.
03. Ama semiei didar ta deiez
semiak agur amari
zein itzala zan azken orduko
adikun haxe alkarri.
Baina semiak dinotso: “Ama,
ez egin negarrik niri
noia betiko atsedenera
zeuok be laster etorri”.
04. Ludi honetan bizia zinan
hogeï eta bost urtian
seme guraso-maitale hutsa
halan anaia tartian.
Samin haundia hartu dogu zeu
gugandik aldendutian.
Itxi negarrai, otoi dagigun
Jaunagaz batu zaitian
ene anaia maitagarria
agur geroan artian.



02. **Hemeko:** hemengo.
Neskutz: birjina.
03. **Adikun:** adikune, begirakune, begirada.
04. **Agur geroan artian:** esamolde arraro samar honek areago dirudi "agur gerora artian" delakoaren errakuntza bat.

Joseba Biritxinaga (Ereño)

BEHI ZAHAR ADAR OKER BAT

(Zeruko argia, 1966, 177. zk., 6. or.)

01. Behi zahar adar oker bat
daukagu etxian
komeriak ditugu
esnia kentzian.
Ostikuaren hotsa
nunbait aditzian
gizona dardar dago
ukuilu ertzian.
02. Behi hau hoba genduan
ez balitz ekarri
sarri erabili nau
estu eta larri.
Berau salduta ezin
barririk etorri
dirurik ez daukona
jagok errukarri.
03. Behi hau aspaldi dago
argal eta igar
ezin euki lei, bada
horrenbeste indar.
Esnia kenduteko
egunez bi bidar
ez zenduke orduan
akulurik bihar.
04. Zelan esan leiteke
argal daguanik?
Ostikuak bizkorrak
daukoz, ba, oraindik!
Esnerik ezin kendu
ezelan inundik
ontzi hau hartu eta
banua hemendik.

05. Koldarra ziniala
nik ez neban uste
arin-arin juateko
behiak bildurtute.
Ontzia badaukazu
esnez gaineztute
oindik kendu leikio
bestera hustute.

06. Errapie zimurre
erruak zorrotzak
esnezko jariorik
ez dario, behintzat.
Atrapatuko baleuz
apatxaren ertzak
apurtuko litukez
ezpain eta hortzak.

07. Behia mantsotutzeko
zerbait egin leio.
Nik zurekin izan dot
horrenbeste pio.
Nik uste izan arren
ez dozu balio
erro guztietatik
esnia dario.

08. Ezin atara leike
inoiz errazoirik
ez jako jausiko, ez,
behi honi esnerik.
Ezin emon gehiago
sekulan pentsurik
hoba da egon daiten
siku ta antzurik.

09. Esnezko iturririk
ez dago gurian
halan be behi zahar honen
errape aldian
bezeruak badatoz
esnian galdian
ezin salduko dogu
erdi debaldian.

10. Behi horrek egin badau
hain gaiztua urten
ikasi bihar dogu
behiari igarten.
Beste barri hobarik
ez bada ekarten
bezeru barririkan
ez da bihar aurtten.

11. Zelan halan badoia
aurtengo urtie
ez uste errez danik
behiari igartie.
Behi hau ekarri neban
zalako merkie
nork erosi balego
saldu ta bakie.



02. **Jagok:** *dago* hika maskulinoan. Zagok.
03. **Euki lei:** euki leike, eduki lezake.
05. **Gaineztute:** gainez eginda, gainezka.
Oindik kendu leikio: oraindino kendu lekikeo, oraindik ken lekiok.
07. **Egin leio:** egin lekikeo, egin lekiok.
Horrenbeste pio: horrenbeste konfiantza.
09. **Esnian galdian:** esnearen galdean, esne eske.

Bertso sorta hau alkarrizketan eginda dagoela garbi ikusten da, bertsolariak ez eban halan aurkeztu baina. Bertsoak, barriz, benetan dotoreak, biziak eta natural-naturalak dira. Arrazoiak graziosoak dira eta, teknikaz be, errimaz batik bat, elegante eginda dagoz.

Markelin Madariaga

ERANDIOTIK

(Euzkadi, 1929, 5284. zk., 4. or.)

01. Arratietik iges eginte
hemen naukazu, 'Algorri'
Erandioko jaiotz-herrian
beheko aldean nago ni.
Goirik ez beherik ez daukedala
esanta nago danari.
02. Bakar zala-ta oldoztu neban
Ustakioz oinengoan.
Larritasuna kendu jatala
horregaitikan nengoan
hor zatoz gero, geure Algorri
beran atzetik behingoan.
03. Izerdi hotza, ene Algorri
ondino kendu ezin jat
aitite-loba bien artean
estu ta larri ongo naz.
Bat edo batek lagundu ezik
txartotxo ibiliko naz.
04. Neure Algorri maite hori, ba
nik erantzungo neuskizu
zure aitite neurea balitz
ziur hau halan eukizu
aititeri gaur ta zuri biher
halan egingo neskizu.

05. Bide erdire, ba, heldu naz oztaz
Algorri gazte laztana
beti holantxe lotuten da, ba
atrebidutxue dana.
Hobetoago ibilko ahal da
holangokoa eztana!
06. Arratietik lagunak dozuz
hemetik be bai ugari
areriorik inon dozule
ezin esan leizu zuri.
Adeskide onak euki darozuz
beti zuk, geure Algorri.
07. Gorantzi asko aite-anaiai
baita zeure aititeri
beste izen bat esatekotan
Ustakio Euleari.
Adeskideak dodaz guztiok
agur ein behar danori.



02. **Oldoztu:** pentsatu.
Oinengoan: orainengoan,
oraintsurengoan, oraindik aurreko
azkenengo aldian.
03. **Ongo:** egongo.
06. **Euki darozuz:** euki daroazuz, eduki
ohi dozuz.

ERDIAURTEA

Donak, 1937ko maiatzaren 14a

Agintari, 1937ko maiatzaren 14a

Agintari, 1937ko maiatzaren 14a

Agintari, 1937ko maiatzaren 14a

AURKIBIDE ZEHATZA

Agintari, 1937ko maiatzaren 14a

Agintari, 1937ko maiatzaren 14a

Agintari, 1937ko maiatzaren 14a

Agintari, 1937ko maiatzaren 14a

Agintari, 1937ko maiatzaren 14a

Agintari, 1937ko maiatzaren 14a

Agintari, 1937ko maiatzaren 14a

Agintari, 1937ko maiatzaren 14a

Agintari, 1937ko maiatzaren 14a

Agintari, 1937ko maiatzaren 14a

Agintari, 1937ko maiatzaren 14a

Agintari, 1937ko maiatzaren 14a

Agintari, 1937ko maiatzaren 14a

Agintari, 1937ko maiatzaren 14a

Agintari, 1937ko maiatzaren 14a

Agintari, 1937ko maiatzaren 14a

Agintari, 1937ko maiatzaren 14a

Agintari, 1937ko maiatzaren 14a

Agintari, 1937ko maiatzaren 14a

Agintari, 1937ko maiatzaren 14a

Agintari, 1937ko maiatzaren 14a

Agintari, 1937ko maiatzaren 14a

Agintari, 1937ko maiatzaren 14a

Agintari, 1937ko maiatzaren 14a

Agintari, 1937ko maiatzaren 14a

Agintari, 1937ko maiatzaren 14a

Agintari, 1937ko maiatzaren 14a

Agintari, 1937ko maiatzaren 14a

Agintari, 1937ko maiatzaren 14a

HITZAURREA

KOPLARITZA IZENBAKIOA

Don mikolas koronelo.....	11
Agilando erresilando.....	12
Gure ortuan.....	12
Aurtengo gaztainia.....	13
Apatamonasterioko eguen zuri.....	14
Arto ganbaran.....	15
Foruan batuta.....	16
Ezkontzen zariela.....	17
Ederrak bi balio.....	18
Euskeraz kantauko dot.....	18
Oka-pagoetan dauz.....	19
Etorri porakello.....	21
Atsua zalakuan.....	22
Esku batian.....	23
Ze ordu de?.....	23
Ahotxua lo ta lo.....	25
Aingeru guardakua.....	26
Kukuan prakak.....	27
Gabon gabian.....	30
Mendi handi bat.....	31
Aza berdie.....	32
Auzokoak gazez.....	32
Nabarniz eta zamudio.....	33
Etxe honetako.....	35
Antonio salaue.....	36
<i>Errose Bustinza "Mañariko"</i>	37
Santa ageda bezpera.....	38
Mutiltxu txanbelinak.....	39
Andra galanten etxian.....	41
Zapatari aprendiz bat.....	42
Nire maitian gonía.....	45
Antoniok egin arren.....	46
Hara hor goian.....	46

Aurten etorri dira.....	47
Ederra da loria.....	48
Udabarriko loria.....	49
Gaztiak gazte dira.....	50
Mendi handi-handi bat.....	51
Oban dabil gizon bat.....	52
Izarrak argi-argi.....	53
Lora zuri bat.....	55
Eskumendiko artzainak.....	56
Neskatilatxu ponpoxa.....	57
Hasiko naz hasitera.....	58
Dingin dangindan.....	59

GERRAURREKO BERTSO IZENBAKOAK

Elantxobe.....	66
El riojano.....	68
Zeozertxu nik esan guria.....	68
Dirua eta konpianza.....	70
Mikel anjel aldeko.....	74
Martolo alperra.....	76
Ezkontza baten kasuan.....	77
Albako txoritxuak.....	81
Albaiterua.....	83
Arrats-hautsak.....	84
Atsuarena.....	85
Jauntxuen amurrua.....	87
“Aulio” ala beste bat?.....	90
Konejua hil, erbia dala-ta.....	90
Zapal-zapal egiten.....	94
Gari jotiak.....	95
Baserrietan ezkonduko.....	97
Abelgorriak bizkor.....	98
Padura.....	99
Karlistak badaukie.....	102
Hara hor goian.....	103

Arginsolesek.....	104
Paraje baten ziran.....	105
Prantziska larrinaga.....	106
Pedro arano daukat.....	108
Anton ganbelueta.....	110
Josepa lakabeko.....	111
Ai heriotzearen.....	112
Galai bat etorri zan.....	114
Bizkargiko azeria.....	116
San pedroren kantia.....	117
Agur intxorta maite.....	117
Laban daukagu opile.....	118
Foruriatar jon kortezubitarra.....	119
Berun konpitak.....	120
Eusko gudariak.....	121

GERRAURREKO BERTSO IZENDUNAK

Azkue Eusebio Maria.....	132
Biritxinaga Joseba.....	187
Egileor Juan.....	127
Kirikiño.....	174
Larrabeiti Eustakio "Eulea".....	136
Latxa eta Agirre Bonifazio.....	149
Madariaga Markelin.....	189
Pello-Josepe (Ezizena).....	177
Uriarte Esteban.....	181

**ITURRIAK,
MATERIAL BATZAILEAK ETA
KOLABORATZAILEAK**

ITURRIAK

Agur Intxorta maite diskoa. Joseba Tapia
Alfonso Irigoienen funtsa
Algortako Bertsolari Eskola
Arratiako euskal idazle aitzindariak. Iñaki Esparza eta Angel Larrea
Eguna egunkaria
Ekin aldizkaria
Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoa
Euskal Bertso eta Olerkien Bibliografia. Julen Urkiza
Euskalduna aldizkaria
Euskalerriko Ipuinak. Mañariko Errose edo Rosa Bustinza
Euskalzale aldizkaria
Euzkadi egunkaria
Euzkerea aldizkaria
Euzko aldizkaria
Gure Herria aldizkaria
Ibaizabal aldizkaria
Karmel aldizkaria
La Baskonia aldizkaria
Santa Ageda koplak Sopelana-Urduliz inguruan. Mikel Zarate Iker Mintegia.
Labayru Ikastegia
Urduliz ingeru. Berbak eta bizimodu. Iñaki Gaminde
Xenpelar Dokumentazio Zentroa
Zeruko Argia aldizkaria

MATERIAL BATZAILEAK

Arantza Plaza
Igor Elortza

KOLABORATZAILEAK

Jesus Mari Etxebarria
Jon Aurre
Jon Lopategi
Joseba Santxo
Pedro Bizkarguenaga “Bizkar”

Bizkaiko 
Bertsozale Elkartea



■
Bizkaiko Foru
Aldundia
Kultura Salla
■

bbk=